



Ane INTXAUSTI LASARTE | Leitzako gaztea

## «BESTEENGANA EGOKITZEKO AHALEGINEAN BIZI IZAN NAIZ BETI»

Leitzar gazteak hamar urte zituela jakin zuen adimen gaitasun handiak zituela. Haurtzaroan «zama» izan bazen ere, gaur egun ez du horrela sentitzen eta argi dio: «zoriontsu izan naiteke» / 10

### SINADURAK



ZURIÑE  
ZUBILLAGA  
IZAGIRRE / 3



AITOR  
AROTZEN  
ALBIZU / 3



XABIER  
MARITORENA  
ZUBIETA / 4



AMAIA  
TELLETXEA  
LARRETXEA / 4



ZOKKETA / 60

### «Gu bakebidean ari gara, espainiar estatuak, ordea, gerran jarraitzen du»

Irailaren 16an hasiko da 11/13 sumarioan epaituko dituzten 47 lagunen kontrako epaiketa. Tartean eskualdeko bi daude: Haizea Ziluaga eta Fernando Arburua. / 8





niaia eta jostaria  
alegre y divertido



freskoa eta naturala  
fresco y natural



**eus  
kara  
ren  
kilika**

bixia eta osatua  
estimulante y completo



ikas eta ari / aprende euskera



klasiko eta berritzailea  
clásico e innovador

**Matriculikate**

ika

**Euskara errazago egiten**

**BORTZIRIETAKO EUSKALTEGIA**  
Lesaka - Matxinbeltzenea  
Tel. 948 637 796  
bortziriak@ikaeuskaltegiak.eus

**MALERREKAKO EUSKALTEGIA**  
Doneztebe - Rosa Seminario, 6  
Tel. 948 451 555  
malerreka@ikaeuskaltegiak.eus

**LEITZA, IMOTZ-BASABURUA eta  
ARAITZ-BETELUKO EUSKALTEGIA**  
Leitza - Euskal Herria Plaza, 1  
Tel. 948 610 776  
leitza@ikaeuskaltegiak.eus

**DIRU-LAGUNTZAK  
DAUDE**

**ika**  
euskara  
errazago  
egiten

**www.ikaeuskaltegiak.eus**

**MATRIKULA ZAITEZ  
irailaren 30a baino lehen**

ALTZARIAK ETA  
DEKORAZIOA

**AMETS**

*Zure beharretara  
egokitzen gara*




|                                                                                       |                                                                                       |                                                                                       |                                                                                       |
|---------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------|
|  |  |  |  |
| Egongelak                                                                             | Logelak                                                                               | Sukaldeak                                                                             | Bainuak                                                                               |
|  |  |  |  |
| Gazteentzako<br>logelak                                                               | Sofak                                                                                 | Armairuak                                                                             | Koltxoak                                                                              |

**948 630 537 mueblesamets.com**



NIRE TXANDA

ZURIÑE ZUBILLAGA IZAGIRRE

## Zeraren zera

Ohol zuriaren gainean puntu bat pausatu zen. Ikusle bi gerturatu ziren. Lehenak, lehen begiradan, puntu bat ikusi zuen. Baina pixkanaka, ikusitako hura behatu eta aztertu ostean, interpretaziorik ausartena eraiki zuen. Iraganera begiratu zuen, etorkizunera, eta begirada batean sinple zen hura korapilatsu bihurtu zen. Hura, zeraren zera bilakatu zen. Bigarren ikusleak, ordea, puntu bat ikusi zuen; eta bigarren begiradan ere, puntu bera topatu zuen hasierako leku berean. Lehena txunditurik zegoen zeraren zerarekin. Bigarrenak, aldiz, hura ikusi orduko, bira erdia eman eta bere bideari ekin zion. Bi ikusle, lau begi eta bi begirada. Konplexutasunaren eta praktikotasunaren begirada, bizitzeko bi modu, eta elkar ulertzearen zailtasuna. Begirada ezberdinez osatutako harremanen enigma.

**«BI IKUSLE, LAU BEGI ETA BI BEGIRADA. BI MODU BIZITZEKO»**



EZPALA

AITOR AROTZEN A LBIZU

## Akabo siesta!

Ba al da okerragorik loaren gozo-gozoenean euli baten durrundarekin ernatzea baino? Edo amets hezearen gailurrean umemoko baten baloikadak errealtatera itzularaztea baino gorrotagarriagorik? Irailean sartu gara eta bukatu zaigu udako siesta! Hemendik aitzinera, eguneroko martxan iratzargailuak ernatuko gaitu!

## NABARMENTZEKOAK



**IKER SALABERRIA**  
GOIZUETA



**LAXARO DAINZIART**  
ZUGARRAMURDI

Azaroaren 8an eta 10 artean, Aspe enpresaren eskutik, profesionaletan debuta egingen du Iker Salaberria Goizuetako pilotari gazteak. Bi urtetarako kontratua sinatu du.

Zinegotzi edota alkate karguan, 32 urtez Zugarramurdiren alde egin duen lana eskertuz, herriak omenaldia eskaini zion Laxaro Dainziarti herriko bestetan.

## ATZERA BEGIRA



2009-09-03 · TTIPI-TTAPA · 501 zk.

## Nekazaritza sektorearen krisia hizpide

«Irauten ari gara, baina edozein momentutan ezin izanen dugu segitu». Halaxe mintzatu zen duela hamar urte Mariado Iturralde nekazari donamariarra. Nekazaritza sektorearen krisia izan zuen hizpide TTIPI-TTAPArekin. «Arrunt gaizki» zeudela aitortu zuen, «prezio baxuengatik betidanik egon dira sindikatuak borrokan, baina orain erabat okertu da egoera». Adibide gisa, prezioak aipatu zituen: litro bat esne ekoizteak 0,36-0,41 euro gostatzen zitzairen eta 0,28 euro kobratzen zuten. Argi utzi zuen «nekazari profesionalak» direla: «nekazaritza zenbakiak ez bazaizkizu ateratzen, kanpoan bertze lan bilatzeko errateak ez dit balio. Gure lana nekazaritza da eta hori guztia gure lana ez delako baloratzen gertatzen da».

**ttipi-ttapa**

**erran.**  
eus

**TOKIKOM**

### Argitaratzaileak

Ttapi-Ttapa Fundazioa  
Koskontako bidea, 7 - 1.  
31770 LESAKA  
T. (+34) 948 63 54 58  
F. (+34) 948 63 54 57  
WhatsApp 744 48 43 61  
info@ttipi.eus

### Zuzendaria

Aitor Arotzena

### Erredakzioa

Gurutze Pikabea

Nerea Bazterrika

Eneritz Iraola

### Publizitatea

Amaia Odriozola

Arantza Agirre

Usoa Vicente

### Berriemaileak

Arkaitz Mindegia, Josebiñe Agirre,  
Koro Iratzoki, Nerea Altzuri,

Joseba Urrotz, Irune Elizagoien,  
Maider Petirena, Oihana  
Kalparsoro, Fermin Etxekolonea,  
Fernando Etxeberria, Mattin  
Larrale, Juan Mari Barriola, Iñigo  
Imaz, Marga Erdosain, Maitane  
Maritorea, Arantxa Iturralde,  
Aranxa Gamio, Jaione Ariztegi,  
Jaione Zabala, Nerea Mortalena,  
Virginia Oteiza, Pierre Bastres,  
Ainhoa Asitz, Itxaso Arizmendi,  
Xabier Maritorea, Maialen Iantzi,  
Jaione Mindegia, Olatz Mutuberria.

### Fundazioaren Presidentea

Pello Apeztexea

### Kudeatzaileak

Joxemanuel Irigoien

### Administrazioa

Amaia Goia

### Lege Gordailua

NA-1324/85

### ISSN

1578-4673

### Tirada

6.000 ale

### Erakunde laguntzaileak

Leitza, Goizueta, Arano, Areso,  
Baztan, Sara eta Sempereko udalak,  
Malerrekako Zerbitzuen Mankom.,  
Zugarramurdiko Akelarre elkarteak

### 2019ko harpidetza sariak

|                                |      |
|--------------------------------|------|
| Baztan, Urdazubi eta Malerreka | 38€  |
| Leitza                         | 26€  |
| Hego Euskal Herria             | 44€  |
| Ipar Euskal Herria, Europa     | 83€  |
| Amerika eta Australia          | 130€ |





## KOLABORAZIOAK

XABIER MARITORENA ZUBIETA

## Haurdunaldi subrogatua eta inguruko ustelkeriak

Azken boladan gai honen inguruan gero eta jende gehiagok solas egiten du. Baina benetan ba ote dakigu zer dagoen honen gibelean? Ustelkeria anitz, edo behintzat, hori transmititzen dizkidaten albisteak maiz ikusten ditut.

Gaur egun gure jendartean ernalketa hainbat modutan gerta daiteke. Emakumeen arteko bikote zein ezkongaietan alde batetik eta edozein arrazoi medio haurdun gelditzen ez diren heterosexualen artean bertzetik. Kasu hauetan haurra izateko desioa errealitate bihurtzeko tratamendu, intseminazio eta fekundazioak eskubide dituzte. Pertsona horien guztien kasuan metodo hauetatik pasatzea onartua daukagu, ez digu inolako alarmerik sortzen, baina haurdunaldi subrogatuak, berriz, berehalako erreakzio negatiboa sortarazten digu.

Haurdunaldi subrogatua, nolabait erratearren, sagarrez betetako zaku bat da, non zaku horretan sagar ustelak dauden, inguruko guztia usteltzen saiatuko direnak.

Badira herrialde anitz, zuk ezagutuko dituzunak dagoeneko, emakumeez aprobetxatuko direnak, egoera kaskarrean dituzten emakumeak beren pobrezia erabiliz, pertsonak direla atzenduta erreproduktzioarako bakarrik erabiliko dituztenak. Sagarrak ustelak.

### «GAIA SAKONKI AZTERTU BEHARRA DAGO IRITZI BAT ERAIKI AHAL IZATEKO»

emakumeez ospitaleko gastuak bakarrik ordaintzeko dirua jaso baitezake.

Jakin ere, AEBetan adibidez, emakume batek haurdunaldi subrogatuko prozesu batean parte hartu ahal izateko baldintza batzuk izan behar dituela. Emakume horrek egoera ekonomiko on batean dagoela demostratu behar du, ezin dezake behar ekonomiko batengatik egin. Emakume horrek aitzinetik erditu behar izan du. Emakume horrek psikologoek egindako txosten positibo bat izan behar du. Emakume horrek helburu argi bat izan behar du, desio bat, ezin duenari lagundu nahi izatea. Hori da benetako funtsa prozesu honetan, desio hori duen eta aitzinera eraman nahi duten pertsonen laguntzea. Gainera, ez dezagun atzendu emakume horrek aukeratzen duela ze bikoterendako haur bat izan. Berak baitu eskumena guraso berri horien inguruan informatzeko eta zeinendako haurdun gelditu nahi duen erabaki.

Haurdunaldi subrogatuaren inguruan sagar ustel ugari daude. Kritikak Whatsapp eta sare sozialen bidez arinki konpartitzen ditugu. *Telecincon* Salvamen famatu batek duen iritzi energumenoa, *Sextan* Ukrainiari buruz egindako alde bakarreko erreportajea edo *Publicon* abokatu batek idatzitako artikulua, bertzeak bertze. Sagarrak ustelak zakutik ken ditzagun eta behingoz behar den bezala erregulatuz sagar onekin geldi gaitzen.

Baina bada herrialde bat, Kanada dena (Quebec-en ez), emakumeez haur bat bertze familia batendako izatearen eskubidea aitortua dutena. Prozesu osoa erabat altruistaki egiten den bermea dago,



AMAIA TELLETXEA LARRETXEA

## 'Uskaraz leher'

Oroitzen naiz ttikitan solas-jostetan aritzeko erraten genuen hartaz. Elkar zirikan ibiltzen ginen eta batek *zer?* galdetu eta bertzeak *kakaz leher!* erantzuten zion. Erramolde hura galdua izanen da seguru aski, bertze hainbertze bezala. Amatziri azkarkitan aditzen nion *uriz leher egin du* edo *lekaz leher billu dugu* eta orain dela hogeiren bat urte herriko paretan idatzi genuena ere haxe izan zen: *Arantzan zer, uskaraz leher*. Bertze inongo eredurik ez genuen bilatu, ez baikenuen inondik kopiatzeko beharrik. Herriko euskararekiko atxikimendua eta sinismena bederen agerian dituzte solas hauek, baina gaurko egunean holakoak guttiago aditzen dira.

Hizkuntzak aldakortasuna omen du ezaugarri. Aitzinekoetatik gure belaunaldietara ere aldatu da. Aldatu bada, bizirik dagoen seinale, erranen du baten batek. Baina aldaketa guztiek ez dute balio bera.

Euskaltzaindiak errana da, euskara batuak eta euskalkiek elkarren osagarri behar dutela. Teoria hori polita da, baina ez dakit lehengoak atzendu eta berriak ikasi maila berean egiten ote diren. Erranen nuke batzuk bertzeari gainaz joaten ari zaizkiola. Bertako euskara ez da lexiko edo solas gutti batzue-tara mugatzen: arront, bertze, aitzin, gibel... Hizkuntza lexikoa bakarrik balitz, ez genuke kopialana bertzerik egin beharko

denak eleanitz bihurtzeko.

### «EUSKARAZ EDOZEIN MODUTAN ARITZEAK EZ DU INONDIK INORA BALIO»

Urte aunitzetan bezalaxe, gaurko egunean ere erdarenen eraginak abudo aski hedatzen dira. Gure haurrak eskolaratzean, *da neria* bezalakoak ahotik hortzera botatzen hasten zaizkigu.

Etxean on ustean eredu egokiak ematen saiatuta ere eta gurearekiko maitasuna eta ardura garatzeko eginahalak eginik ere, 'euskal sena' transmititzea zernahi gostatzen da. Kontzientziarik gabeko axolagabeak zer ez ote du eginen orduan, hizkuntzarekiko daukan motibazioak, ikusmolde okerrak eta jarrerak hiltun horren hautuetan zuzenean eragiten badu.

Lotsak, emozio mugatzaileak edo mezu negatiboak atzenduta, euskalkiak eta hizkerak bizitasunarekin eta aberastasunarekin lotu izan ditugu betitik. Horrek ez du erran nahi lagunarteko solasaldi guztiak hika egin behar direnik. Baina hika aritzearen aukera erabiltzen ahal den erregistroa dela ere ikasi beharko luke edozeinek. Hori guttienez. Hizkuntza irakasteak eta ikasteak berekin izan behar ditu kontzientzia eta ardura, bere funtzio guztiak nola garatu behar diren ikasi nahi bada; zer, nola, noiz, non eta norekin. Edozein modutan aritzeak ez duela inondik ere balio, alegia.

Horiek guztiak horrela, oraindik ere *uskaraz leher* gara herrian eta aski harro egotekoa da hori. Baina arnagune izendatu dituzten tokietan ere, ezin dira alderdi itogarriak ukatu. Bertze apustu bat egiteko beharra eta aukera hortxe dugu. Dudarik ez egin gureari behar adinako balioa eta tokia ematen segitzen eta ikasten ahal dela. Akaso zertan ari garen kontzientteago izanen bagina, belarriprest eta ahobiziak bakarrik ez, denak mingainzorrotz eta belarripinakin izanen ginateke.



## 11 GALDERA LABUR

JAIME URROZ TELLETXEA OIZKO ALKATEA

## «Gazteek ez dituzte bestak guk adina estimatzen»

### Aurkeztu zure burua.

Agorteneko borda baserrian sortu eta bizi den oiztarra, lanbidez igeltseroa eta lanetik kanpo azienda artean ibiltzen dena.

### Zein dira zure afizioak?

Denborarik ez dudanez, afizio zehatzik ez dut. Astez lan egin eta asteburuan ahal bada atse-den hartzea gustatzen zait.

### Herriko alkate izan zara aitzineko agintaldian...

Bai. Bertze batzuk sartu arte segitzen dugu. Ea urrian norbait sartzen den... Taldea osatzea ez da aski, ardurak hartu eta bete egin behar dira eta jendeak ez du nahi.

### Zein dira alkatearen egitekoak?

Dirulaguntzak begiratu, eskaerak egin, bideak txukundu,

uraren arazoak, mendietako landaketak eta alokatuak diren soroak kontrolatu... Herri ttikia da, baina hobetzeko den guztia egiteko bada lana.

### Lau urteotan zertan aritu zarete?

Gauza batzuk lortu ditugu. Herriko Ostua martxan paratu dugu, bideak txukundu ditugu... Saneamenduak eta argi kontuak eginak daude. Mantenimendua behar du.

### Herriko bestak ere antolatu behar...

Zinegotzi bat arduratzen da gazteekin biltzeaz eta ondotik lana banatzen dugu. Nik, erraterako, bertze bi lagunekin batera, aizkolariendako egurrak ekarri, horiek plazan paratu, garbitu... behar izaten ditut.

### Nola bizi dituzu bestak?



Batez ere arratsetan ateratzen naiz. Elkartean sortzen den giroa gustatzen zait.

### Bestetan, zein dira zure ardurak?

Kontrataturakoa antolatuta uzten dut eta gero momentukoa gelditzen zait: ordainketak. Elkartek ere lan egiten du, herri-bazkarian adibidez.

### Zein aldaketa sumatu duzu?

Lehengo giroa eta oraingoa ez da berdina. Gazteek ez dituzte herriko bestak guk adina estimatzen.

### Zein da ekitaldi politena?

Bezperako afaria eta herri-bazkari eguna. Bazkarian bertsolariak, musika... izaten dira eta umorerik ez da falta. Aizkora apustuak ere biltzen du jendea eta ingurukoak ekartzen saiatzen gara.

### Zer du Oizek bereizgarri?

Kokapen ona, Doneztebera hiru kilometro bertzerik ez daude eta hori gazteak herrian gelditzeko abantaila izan daiteke.



**1951tik**  
**Casa Cambra**  
 lentzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

**Albornozak**  
**Mantelak**  
**Kuxinak**  
**Edredoi nordikoak**  
**Ohe estalkiak**  
**Maindireak toailak**  
**Edredoi-azal nordikoak**

**Merkealdia**



## HEMEROTEKA

«Iaz ordezkoko aritu nintzen Lehen Mailako binakakoan, Iribarriarekin, eta nahiko ongi aritu nintzen. Gero, Bigarren Mailakoan, Peio Etxeberriarekin, partida asko jokatu nituen, eta gozatu nuen. Baina, azken hilabeteetan, egoera okertu egin da. Eskuko minak izaten hasi nintzen, eta ez nuen ongi jokatzeko, ez nuen hobekuntzarik ikusten, eta, azkenean, pilota uzteko erabakia hartu behar izan dut (...) Etxekoek sufritzen ari nintzela ikusten zuten, eta beti babestu naute. Gustura ez egoteko, ez zuen merezi jarraitzea (...) Orain amets berriak bilatzea tokatzen zait».

**JON JAUNARENA** LEITZA. BERRIA. 2019.08.15



## BOTA BERTSOA



**EGOITZ ZELAIA**

BAZTAN-BIDASOKO XXXII. BERTSOPAPER LEHIAKETAN AIPAMENA (18 URTETIK GOITI)

## Isilik dauden ahotsak

Doinua: Gazte denboran sasoia eta

*Maiz Ekialde Hurbila urrun  
ez ote dugu sentitzez.  
Berririk ez da nahiz, maiz, burua  
betetzen dugun albiste;  
Gaza, Ramallah, Al-Khalil, Betleen,...  
erran dezakegu hitzez  
ekialdetik hurbil daudela  
baina justiziatik ez.*

*Justizia, zein hitz ederra. Zu  
goratzen gabilta denak,  
baina, etikan absolutistak  
ez ote gara gehienak?  
Aditu ditut maiz "justizia  
itsua da" diotenak.  
Ez al gara gu injustizien  
aurrean itsu gaudenak?*

*Indarrez oldar dabilenean  
Israeleko Armada  
amorrutsez ez bada ere  
ulertzen da Intifada.  
Inpotentzia epaile bada  
nagusitzen da ikara.  
Arrazoiak ez badu indarrik  
indarra arrazoia da.*

*Bere aurrean israelarrek  
palestinar batek bere  
zuen etxea suntsitu dute,  
sufri araztea xede.  
Mendebaldeko begiradatik  
sinesgaitza bada ere,  
mina mendeku bihurtu dute  
eta mendekua lege.*

*Gazan ume bat. Sei polizia  
eskuan arma berriak.  
Goliaten antza hartu berri du  
kolonoen laterriak.  
Zure izena eta abizena  
duenean hilerriak  
erranahi bera hartu dezake  
harriak eta herriak.*

*Lehen harriak, beste harriei  
emanez gero segida,  
fusilak arin beraigana  
itzulikatzen du mira.  
Ohartzerako lurra pasa da  
gris koloretik gorria  
balak mintzatzen diren unean  
hitzak isiltzen baitira.*

*Egiak zeinen bortitz ematen  
duen belarrondokoa.  
Hau jainkoaren sorlekua da  
edo infernu zokoa?  
Erlijiotik aparte baina  
zein dugu antidotoa  
malkoetatik sua badator  
eta sutik gorrotoa?*

*Beltzak ikusten dabilta batzuk  
haiena denaren alde  
besteak haien herra zurituz  
gerraren mendean daude.  
Xake partida zikoitz honetan  
absurdoenaren pare  
denak zuritik beltzera doaz  
grisetik igaro gabe.*

*Ai, Palestina! gure lastima  
dugu zuregan gordea  
maiz zure alde jarri gaituzu,  
hitzek bakarrik, ordea.  
Zer egin dugu bihurtu dadin  
lehengoa baino hobea  
odolak busti duen lurretik  
ateratako lorea?*

*Begiei inoiz ikusi dute  
bizitakoa bihotzak  
garunak hitzez adieraztea  
hartua dut derrigortzat.  
Ezberdinduko al ditu gure  
begiradaren zorrotzak  
isilduriko ahotsak eta  
isilik dauden ahotsak.*



# Osasuna



---

Nafarroan, sexu-transmisiozko infekzioak eta nahi gabeko haurdunaldiak ere ugaritzen ari dira.  
**Arduraz gozatu, erabili kondoia.**

---

gozamenez.com  
con.nafarroa.eus

Nafarroako  Gobierno  
Gobernua  de Navarra



Fernando Arburua 2005etik Jaiki Hadi elkartearen ari da eta Haizea Ziluaga euskal preso politikoen abokatua da 2004az geroztik.

## «Bakegintzan lan egin izana dugu defentsarako euskarririk handiena»

**HAIZEA ZILUAGA ETA FERNANDO ARBURUA** 11/13 SUMARIOAN AUZIPETUAK

Irailaren 16an hasiko da 11/13 sumarioan epaituko dituzten 47 lagunaren kontrako auzia. Tartean daude Haizea Ziluaga arantzarra eta Fernando Arburua zugarramurdiarra

### G. PIKABEA

«Epaiketa zaila eta konplikatu izanen da, baina itxaropentsu eta animatuta gaude». Halaxe, argi, mintzatu dira Haizea Ziluaga Larreategi euskal preso politikoen abokatu arantzarra eta preso ei osasun arreta eskaintzen dien Jaiki Hadi elkarteko Fernando Arburua Iparragirre zugarramurdiarra. Erakunde terroristan parte hartzea leporatuta, irailaren 16an Madrilgo Auzitegi Nazionalean hasiko den 11/13 auzian epaituko dituzte. Ziluagak zein Arburuak, ordea, garbi dute beraien lana publikoa eta ezaguna izan dela eta dela, eta ez dutela deus gordetzekorik. Are gehiago, harro

daude euskal preso politikoen eskubideen alde egiten duten lanaz.

**Auziak 2013an Herriraren aurka hasi zen operazioa du oinarrian. Zuek 2015ean atxilotu zintuzteten. Nolako oroitzapenak dituzue?**

**Fernando Arburua:** Zaila ikusten genuen osasun arreta zigortu eta gure kontra jotzea, baina garai hartan Espainiako Gobernuak preso en inguruko auziekin hartua zuen dinamika ikusita, gerta zitekeela bagenekien. Hortaz, ez gintuen ezustean hartu.

**Haizea Ziluaga:** Konponbidearen bidean geunden urteak ziren. ETAk 2011ko azaroan eten zuen borroka armatua eta egoera berri hura iraultze-

ko asmoz etorri ziren atxilotetak. Nire kasuan, Madrilen nengoela atxilotu ninduten, epaiketa bat hasi behargenuen egunean. Abokatuok noiznahi Entzutegi Nazionalean lanean ari gara, baina epaileak deklaratzera deitu beharrean, guardia zibilak atxilotzera etorri ziren. Gainera, ikertuak gine-la jakinda, hilabete batzuk lehenagotik, deituak izanez gero, epaitegira azaltzeko borondatea adierazia genuen.

**F. A:** Helburua ahalik eta mediatikoena eta ikusgarriena izatea zen. Erakundeak borroka armatua utzi zuen arte sarekadak izan ziren, baina sarekada politikoa izan ziren: Batasunaren aurka, HBren

aurka, EKiNen kontra... Presoen gaia ez zuten ukitua. Hain justu 2011n, borroka armatua utzitakoan, preso en mundura hurbiltzen hasi ziren, bazekitelako preso en artean egungo egoera politikoa en inguruko eztabaida zabaldua zela. Presoak zituzten jomugan eta horretarako inguruaren aurka egin zuten: abokatuak, gu [Jaiki Hadi], senideak, preso en ordezkariak, Herrira...

**Atxiloteta haiek zein ondorio izan zuten zuengan?**

**F. A.:** Jaiki Hadin, Oihana Barrios psikologoa eta biok atxilotu gintuzten. Nire kasuan ez zuen ondorio praktikorik izan; ez nuen presoekin zuzeneko harremanik izaten eta berdin-berdin lanean segitu ahal izan dut. Oihana, aldiz, preso en arreta psikologikoa arduratzen zen eta atxiloteta haren ondotik, espetxeetarako sarrera ukatu zioten. Laguntza psikologikoa behar zuten preso ei terapeutaren bisita bat-batean ukatzea aski gogorra izan zen. Ez da erraza psikologo berriak bilatzea, pazientearekin konfiantza hartzea... Hasmenta gogorra izan zen, baina poliki-poliki aitzinera ateraginen.

**H. Z.:** Abokatuoi ere preso ei bisitak egitea galarazi ziguten. Gu baztertu eta presoak arreta juridikorik gabe uztea zen haien helburua, baina praktika ren bitartez, debeku horri buelta eman eta arreta bermatzen segitu dugu. Horrez gain, bulegoak miatu zizkiguten eta neurri batean, konfidentzialtasun-printzipioa urratu zuten. **Fiskalak hamaikana urteko espetxe zigorra eskatu du zuentzat. Zer iruditzen zaizkizue zigorrak?**

**F. A.:** Astakeria bat.

**H. Z.:** Kondena handiak dira. Zigor Kodearen arabera, ETAko kidea izateagatik 6tik 12ra urte arteko zigorrak izan daitezke eta guretzat 11 urtekoa eskatu dute. Badira handiagoa dutenak. Arantza Zulueta eta Jon Enparantza abokatu entzat, adibidez, ETako zuzendari tzako kide izatea egotzita 14 urteko eskaera egin dute.



## 47 euskal herritar epaituko dituzte 11/13 sumarioan



Argazkian batzuk falta badira ere, 11/13 auzian epaituko dituzten gehienak hor ageri dira. Tartean, ezkerrean behehian, Ziluaga eta Arburua. UTZITAKOIA

Herrira mugimendukoak, EPPKren Bitartekaritza Taldekoak, abokatuak, Etxerateko kideak eta Jaiki Hadikoak dira 11/13 auzian epaituko dituzten 47 lagunak. Fiskalak zortzi eta 21 urte arteko espetxealdiak eskatu ditu eurentzat, 601 urteko eskaera guztira, eta horrez gain, 117.600 euro isunetan. Epaiketa orain egitekoa bada ere, Eloy Velasco epailearen aginduz 2013an hasitako polizia operazioa du oinarri. 2013ko irailean Herriraren aurkako operazioan 18 lagun atxilotu zituzten; 2014ko urtarrilean EPPKko zortzi bitartekari; 2015eko urtarrilean 12 abokatu –tartean Ziluaga– eta Herrirako hiru kide eta urte bereko martxoan

Etixerat eta Jaiki Hadi elkarteetako bina lagun –tartean Arburua–. Geroztik, epaiketaren esperoan izan dira. Orain badituzte datak: irailaren 16an, 17an, 18an eta 30ean, urriaren 1ean, 2an, 28an, 29an, 30ean eta 31n eta azaroaren 11n, 12an, 13an, 14an, 25ean, 26an, 27an eta 28an egingen dira auzi-saioak. Espetxe zigor eskaera handiei egin beharko diete aitzin, baita zama ekonomiko handiari ere: abokatu eta prokuradoreen gastuak, auzipetu, abokatu eta lekukoen garraioa eta auzipetu eta lekukoen egonaldia kontuan hartuz, 336.462 euroko gastua izanen dute; auzipetu bakoitzeko 7.180 euro. Hortaz, laguntza eskatu dute.

**F.A.:** Eta Herrirakoei kondenak gehitu egin dizkiete, ETako kide izatea eta terrorismoa goratzea leporatu diete. Francisco Baldarentzat, erraterako, 21 urteko eskaera egin dute. **2011n iragarri zuen ETak jarduerara armatua behin betiko utziko zuela. Aldiz, 2012tik aitzinera egin duzuenean oinarrituta egotzi di-  
zute terrorismo delitua...**

**H. Z.:** Defentsari begira hori da gure euskarrik handiena, alegia, bakegintzan lan egin izana. Urte horietan ETak borroka armatua utzia zuen eta gu bakebidean geunden; espainiar estatua, ordea, argi dago ezetz. Gerran jarraitzen zuten eta oraindik hala jarraitzen dute.

**F.A.:** Ordurako ETak ekinbide armatua utzia zuenez, leporatu digutenak ez du zentzurik. Frogarik ere ez dute, guardia zibilen hitzak baino ez dira. Gure auzipetze-autoan ageri denez, ETaren eta gure arteko lotura erakusten duen dokumenturik ere ez dute.

**Epaiaketa guttienez hiru hilabetez luzatuko da. Nolako hilabeteak espero dituzue?**

**H. Z.:** Hiru hilabetez, igandetan Mirentxineko furgonetak hartu eta ortzegun gaua arte ez gara etxera itzuliko. Horrek bertzeak bertze, gure seme-alabengan edota lanean eragina izanen du. Nolabait errateko, aulkiko zigorra ezarri digute, hau da, oraindik ez gaude kondenatuak baina epaiketa egiten bada, Madrilera joateagatik zigor hori sufritu beharko dugu.

**F. A.:** Lanaz ari garela, gure kasuan, badugu antolatzeak aukera. Baina auzipetuen artean badira hezkuntzan edota lantegietan ari direnak. Baimenak eta opor egunak eska-

tu beharko dituzte eta hori dena moldatzea ez da erraza. Segurtasun-eza sortzen du.

**Espetxealdia burutik pasa zaizue?**

**F. A.:** Aukera bada. Espainiako Auzitegiarekin ezin da jakin.

**H. Z.:** Presoekin lan egiten dugunez, egunerokoan espetxeak presente ditugu, baina irtenbideren bat bilatuko dugun itxaropena dut. Herri eta erakundeetatik elkartasun handia lortzen ari gara eta horrek ere indarra egiten du.

**Elkartasuna garrantzitsua izanen da, ezta?**

**H. Z.:** Bai, baina oraindik 252 euskal preso politiko ditugu mila kilometrotara eta orain jasotzen ari garen indar guztia horra bideratzea nahiko genuke. Preso politikorik gabeko

euskal herri bat nahi dugu, eta kartzelarik gabea bada, hobe. **Ume motxiladunen gaia ere mahai gainera ateratu duzue. Haizea 7 eta 3 urteko haurren ama zara...**

**H. Z.:** Abokatua naizenez, presoak bisitatze bidaia egin behar izaten ditut eta hori ez da arrotza eurentzat. Kasu honetan, zaharrenak badaki irailan presoan alde lan egiteagatik epaiketa batera joan beharko dudala Madrilera. Baina espetxera joaten bagara, 18 urtez beheitiko 38 ume motxiladun gehiago izanen dira eta milaka kilometro egin beharko dituzte gurasoak ikusteko.

**Asteburu honetan epaiketa salatu eta elkartasuna adierazteko ekimenak egingen dira han eta hemen eta irailaren 14rako manifestazioa deitu duzue Bilbon...**

**H. Z.:** Bai, eta herritarrei parte hartzeko deia egin nahi diegu, denen indarra beharrezkoa delako.

**F. A.:** Auzoz auzo, herriz herri eta hiriz hiri lan eginez, jendea atxikitzea lortu nahi genuke.

**«ESPAINIAKO  
ESTATUAK GERRAN  
JARRAITZEN DU»**

HAIZEA ZILUAGA, ABOKATUA

**«LEPORATZEN  
DIGUTENAK EZ DU  
ZENTZURIK»**

FERNANDO ARBURUA, JAIKI HADI



Ane Intxausti bidelagun izan duen *¿Demasiado inteligente para ser feliz?* liburua eskuan duela. NEREA BAZTERRIKA

## Adimen gaitasun handia zama edo oparia?

ANE INTXAUSTI LASARTE LEITZAKO GAZTEA

Hamar urte zituela jakin zuen Ane Intxaustik adimen gaitasun handia zuela. Luzaroan «zama» izan dena «oparizat» du egun

**N. BAZTERRIKA** LEITZA

«Mundua ikusteko eta bizia bizitzeko modu berezia» du Ane Intxaustik (Leitza, 1995). Adimen gaitasun handia du, adituen arabera «biztanleria-  
ren ehunetik bik» baino ez duten ezaugarria.

### Identifikazio goiztiarra

Ez dago ama baino azti hoberik, ezta norberak bere burua bezala ezagutzen duenik ere: «oso-oso txikia nintzenetik berezitasunen bat antzeman zidan, zenbait egoera ez nituela gainerakoek bezala bizitzen eta sentitzen nabaritu zuen». Haurtzaroan «zama handia» izan zen hori: «neure burua ez nuela ezagutzen eta ulertzen jakinda ere, ez nuen horren arrazoia zein zen urte batzuk geroago arte jakin». Adimenaren eta adinaren de-

sorekak eraginda, maiz adin-  
nekoen artean «lekuz kanpo»  
sentitu izan da. Are gehiago,  
«nire berezitasunen nondik  
norakoez jabetzen ez nintze-  
nez, haien erritmora egoki-  
tzeko zailtasunak izan ditut». Sentipenei aurre eginez, adi-  
nekoekin egoteko «esfortzua  
egin» izan du baina «ez naiz  
inoiz haurra sentitu».

Koskortuta, «gainerakoekin  
batera hezkuntza musikala  
ikasten hasi nintzen». Horre-  
tan ere ikas-erritmo bizia izan  
zuen: «hamaika urterekin,  
akordeoia garraiatzeko inda-

rrik ere ez nuela, kontserba-  
torioan hasi nintzen». Astean  
hiru arratsalde Iruñean pasa-  
tzen zituen: «eskolatik korrika  
atera eta 20:30 arte ez nintzen  
etxera iristen». Kezka eta ja-  
kin-min ugari izan ditu txiki-  
txikitatik eta, ondorioz, ekin-  
tza ugari probatu ditu: «akor-  
deoia, bertsolaritza, balleta,  
gimnasia erritmikoa...».

### Hezkuntza Sistemaren mugak

Eskola garaiko oroitzapenak  
oroimenean iltzatuak ditu  
Intxaustik: «momentu gogor  
asko bizi izan ditut». Horren

oinarrian Hezkuntza Sistema-  
ren mugak ekarri ditu gogora:  
«ez dago adimen gaitasun  
handiak ditugun ikasleontzat  
prestaturik, ezta beste hainbat  
behar dituzten haur eta gaz-  
teentzat ere». Aniztasunari  
behar bezala erantzuteko al-  
daketen beharraz ere hitz egin  
du: «Hezkuntza Sistemari al-  
daketak egin eta aurrerapau-  
soak ematea gustatuko litzai-  
dake baina goitik beherako  
aldaketa ezinezkoa dela uste  
dut. Beraz, behetik gorakoa  
izan behar du. Ikasle guztion  
beharrei erantzuteko irakasle  
eta hezitzaile bakoitzaren lan-  
keta behar da».

### Egia jakin eta aurre egin

Ongi oroitzen du egia jakin  
zuen momentua: «ikaskide  
batek gaintotatua nintzela  
esan zidan eta etxera negarrez  
joan nintzen. Amak orduantxe  
kontatu zidan». Hamar urte  
zituen orduan, baina ez zuen  
pausorik eman hamahiru urte  
izan arte: «ikasgelan ez nintzen  
gustura sentitzen eta egoera  
aldatzeko beharra nuela era-  
baki nuen. Orduan amak es-  
kolara joan eta irakasleekin  
eta orientatzailearekin hitz  
egin zuen. Bederatzi urterekin  
eginak nituen Weschler eska-  
lako probak berriz egin behar  
izan nituen adimen handikoa  
nintzela berrets zezaten. Emai-  
tzak jaso eta proposamena  
entzutean hartu nuen eraba-  
kia: kurtsoz pasatu eta Derri-  
gorrezko Bigarren Hezkun-  
tzako bigarren mailarikezu nuen  
egin». Aldaketa «onerako» izan  
zen: «adin horretan ikasturte  
batetik bestera heldutasunean  
alde handia dago eta hori na-  
baritu nuen. Oso ongi hartu  
ninduten».

### Arrotz izatearen beldur

Begi bistan denaren atzetik,  
sentipen mikatzak bizi izan  
ditu leitzar gazteak: «inguru-  
koen pertzepzioak ez du nire  
bizipenekin bat egin». Inork  
gutxik pentsatuko luke «so-  
zializatzeko eta onartua iza-  
teko lan handia» egin duela.

**«ARROTZA EZ  
IZATEKO INGURURA  
EGOKITUZ BIZI IZAN  
NAIZ»**

**«GIZARTEAK DUEN  
IRUDIA  
AURREIRITZIZ  
JOSIA DAGO»**



## «'¿Demasiado inteligente para ser feliz?' liburuak lagundu dit neure burua ulertzen»

«Liburuak» izan dira Ane Intxaustiren arnasmune: «egun pil-pilean dagoen gaia denez jendeak badu horren inguruko interesa eta ikerketak eta bestelako materiala ere bada-go». Berriki arte, ordea, «gai tabua» zenez, «horri buruzko informazioa bilatzea zaila zen eta neure kabuz egin ditut bilaketak eta hausnarketak». Bilaketa horien artean mugarrri nagusietako bat *¿Demasiado inteligente para ser feliz?* liburuak izan da: «gaitasun handia dugunon berri alderdi guztietatik eman eta sakon aztertzen duelako».

### Alderdi emozionala

Autoikaskuntzari esker, «ikuspegia aldatu» zaiola gaineratu du: «ez nuen zoriotsu izan nintekeenik uste eta liburuak horretarako bide eman dit». Aldaketa horretan «gizartean dagoen ikuspegi desegokia deuseztatzea eta beste alderdi batzuk ezagutzea izan da gakoa. Ordura arte ez nuen hipersentsibilitatearekin lotzen. Liburuak irakurtzen ari nintzela, nire sentipenekin bat egiten zuela ohartuta, argia ikusi nuen».

Gaitasun handikoen alde ezezagunetako bat horixe dela esanen luke: «hauskorak gara eta beste batentzat txikikeria dena guretzat izugarria izan daiteke». Zentzu horretan



«alderdi emozionala landu eta babestu behar da. Maiz eskola porrotarekin lotzen bada ere, oinarrian dagoena arazo akademikoaz gain, emozionala eta soziala ere bada».

### Kirola, osasun mentala

Oraindik orain, gorabeherak izaten ditu: «emozionalki ez naiz lineala eta zenbaitetan ideia bonbardaketak izaten

**«EZ DUT INORK NI ULERTZERIK LORTU ETA BESTEAK NIGANDIK ERE EZ DIRA ULERTUAK SENTITU»**

ditu. Halakoetan ez dakit zer pasatzen zaidan burutik, ez naiz ideiak identifikatzeko gai eta burua galtzen ari naizela pentsatzen dut». Horri aurre egiteko «kirola» du sendabide: «burua gelditzeko modu bakarra da. Lesioak izan ditudanetan hutsune handia nabaritu dut». «Beti» gustatu izan zaio kirola, eta 8-9 urtez atletismoan ibili da. Baina bere

**«SOZIALKI GAIAREKIKO KEZKA HANDIAGO DAGO ETA GEROZ ETA EROSOAGO SENTITZEN NAIZ»**

kasuan «osasun fisikorako baino, mentalerako beharrezkoagoa» zaio.

### Laguntza soziala

Liburuak besapean hartu eta gorputza mugituz, bakarrik egin die aurre bere kezkei eta ezinegonei: «ez dut inguruko inork nik nahi bezala ulertzerik lortu, zaila da...». Ulertuezin hori, «norabide bikoitzekoa» dela argitu du: «besteak nigan-dik ere ez dira ulertuak sentitu».

Dena den, «sozialki gaiarekiko kezka geroz eta handiagoa denez, geroz eta erosoago sentitzen naiz lehen deseroso sentitzen nintzen eremu eta espazioetan». Oro har, jendearengan ere aldaketa handia sumatu du: «lehen mesfidantza zerion jendeari orain jakin-mina dario eta horrek baikor izateko arrazoiak ematen dizkit». Bereziki, gertukoengan «aldaketa handia» sumatu du eta horrek bere burua «ezagutzeko eta onartzeko» bideak zabaldu dizkio: «ni neu izan naiz neure buruari muga gehien jarri dizkiona».

Mugak gainditzen jarraitzeko «persona egokiez inguruta» sentitzen du bere burua. Are gehiago, orain liburuaren izenburuari erantzuteko ausardia ere baduela argi eta pozik adierazi du: «zoriotsu izan naiteke».

Zentzu horretan, «bakardadea» sentitu du: «ez naizela ni izan sentitu dut, besteak bezalakoa izateko ahalegin horretan bizi izan naiz: azalpenak emana-tatik, ez naute ulertzen».

Ez ulertze horretan gizarteak adimen gaitasun handiak di-tuztenekiko eraiki duen irudia dago, «zuzena ez dena». Desikasten ikastea erraza denik ezin esan, baina zenbaitetan ahotso ematea aski da: «zori-onekoa naizela esan izan

didate, buruaren prozesamen-du azkarra, memoria fina, ikasteko erraztasuna eta sormena garatua izateagatik, baina ez dute orain arte bizi izan dudana bizi eta ez dakite zer den hori».

Dena dakitelako ustea ere hedatua da, «eta horrek gure izatean badu eragina». Intxaustiren kasuan bere buruarekiko «zorrozatasuna errotzeko» bi-tarteko izan dira aurreiritziak: «nik ezin nuela ezertan huts

egin sentitu izan dut». Gizarteak oharkabea markatutako norabidean ibili da berriki arte: «denak interesa eragiten zidanez, edozer ikasteko prest nintzen, aholkuak segi eta ingeniari-tza ikasten hasi nintzen. Baina ez ninduen asebetetzen eta uztea erabaki nuen». Uzteko erabakia hartzea ez zen erraza izan, «ez asmatzeak beste edonori ez bezalakako frustrazioa eragiten bait-tit».

*Ogi gogorrari hagin zorroz-tzarekin kosk eginez*, «eta Hezkuntza Sistemarekiko bateragarria ez nintzela onartuz», urrutiko hezkuntzarako uni-bertsitatara jo zuen gero, psikologia ikasteko. Gustuko tokian ez du aldaparik izan eta «ordura arteko eskolaldian garatu gabeko ikas-ohiturak arazorik gabe» hartu ditu. Argi dago zein den bidea: norberak erabaki geroa, horixe da arrakastarako gakoa.

## Illekuetako bestak irailaren 14an eta 15ean

Larunbateko bazkarirako txartelak irailaren 10a baino lehen erosi beharko dira

### TTIPI-TTAPA

Urteroko hitzorduari hutsik egin gabe, bestak ospatuko dituzte irailaren 14an eta 15ean Illekueta auzoan. Aurten ere, auzoko besta batzordeak denetarikoko ekitaldiak prestatu ditu: dantzak, herri-kirolak, haurrentzat ekintzak, musika...

### Larunbatean herri-kirolak eta auzotarren bazkaria

Irailaren 14an, larunbata, Konpane zubitik 12:00etan botako duten txupinazoarekin hasiko dituzte bestak. Ondotik buruhandiak, erraldoiak eta gai-teroa auzoan barna ibiliko dira. 13:00etan herri-kirol saioa egingen dute eta 14:30ean auzotarrek mahaiaren bueltan bilduko dira. Txartelak Auzoa ostatuan erosten ahalko dira irailaren 10a bitarte. 18:00etan mus txapelketa jokatu dute eta 19:00etan Bera Kantarik

doinuz alaituko ditu bazterrak. 20:30ean zezensuzkoa aterako da eta ordu erdi beranduago dantzaldia hasiko da.

### Igandean haurrak eta dantzariak protagonista

Igandean, hilak 15, 12:00etan meza egingen dute Irigottian eta ordu berean, haurrentzako marrazki lehiaketa antolatu dute. Illekuetako besta batzordetik jakinarazi dutenez, parte hartu nahi dutenek margoak eraman beharko dituzte eta antolatzaileak papera banatuko dute.

16:00etan haurrentzako jolasak izanen dira eta 19:00etan Gure Txokoa Dantza Taldearen ikuskizuna hasiko da. 20:30ean pintxo dastaketari emanen diote hasiera eta horretarako pintxoak eraman nahi dituenak 19:30 arte txosnan utzi beharko ditu.

### Baztan-Bidasoko ekoizleen merkatua irailaren 14an

Udako oporraldiaren ondotik, irailaren 14an egingen da Baztan-Bidasoko ekoizleen merkatua. Ohi bezala, Ricardo Baroja eskolako arkupeetan izanen da, 10:00etatik 13:30era. Hortik aitzinera, hilabeteko bigarren larunbatetan bilduko dira bertako ekoizleak.

### Musika Eskolan ohi baino beranduago hasiko da ikasturtea

Isidoro Fagoaga Musika Eskolan igogailua paratzeko lanetan ari direnez, ikasturte hasiera pixka bat gibelatu egingen da. Ikasleak irailaren 16an itzuliko dira ikasgeletara eta Udaletik adierazi dutenez, ordurako dena prest egonen dela espero dute.

### Baztan-Bidasoko ekoizleen merkatua irailaren 14an

Jesus Gonzaga Aristondo izendatu dute arkitekto tekniko eta aparejadore. Udalak oposizio bidez postu horretarako langile euskalduna hartzeko deialdia egin zuen, kontratu finkoa eskainiz. Probetan puntuaziorik altuena lortu zuen eta irail bukaeran hasiko da lanean.

### Auzoz auzo bilerak egiten hasiko da Udala

Herritarren eskaerak zein diren jasotzeko auzo-batzarrak egiten hasteko asmoa du Udalak iraileko bigarren hamabortzaldian. Batzarrak joan den agintaldiaren errebaso egiteko eta agintaldi honetan auzoetan egin beharreko lanak zehazteko baliatu nahi dituzte.



UTZITAKOAK

### Besta koloretsuak Agerran

Eguraldia lagun, ederki ospatu zituzten Agerrako bestak. Zozketan txartel sarituak zein diren ere jakinarazi dute. Lehenbiziko saria 0587 zenbakiari egokitu zaio; bigarrena 0579ari; eta hirugarrena 1.142ari. Lehendabiziko biak Pikabea harategian salduak dira; hirugarrena, berriz, Goxunen.

**Alberto RETEGI**  
abokatua  
948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

**ZUBIONDO**  
JATETXEA-SAGARDOTEGIA  
EGUNEKO MENUA  
SAGARDOTEGI MENUA  
KARTA  
OGITARTEKOAK  
PLATER KONBINATUAK ...  
T. 948 625 472  
Alasta karrika · BERA  
zubiondojatetxea.com





UTZITAKO ARGAZKIAK

## Musika eta dantza nonahi bestetan

Gure Txokoa Dantza Taldekoek botatako txupinazoarekin hasi ziren bestak. Ekitaldi batzuk aipatzearen, Izaskun Agarak gidatu zuen Bordon-dantza, 88 lagun elkartu ziren danborradan, lehen aldiz mutxikoak dantzatu zituzten eta Josu Goia gogoan kalejira hunkigarria egin zuten txistulariek.

**K<sup>2</sup>SAT**  
TELEKOMUNIKAZIOAK  
ANDONI LASAGA APEZTEGUIA  
T. 637 40 86 40 31780 BERA  
andoni.lasaga@gmail.com

**LABE ZAR**  
Astelehenetik  
ortziralerara:  
07:15etik  
aitzinerara  
Larunbata  
eta igandea:  
08:00etatik  
aitzinerara  
948 631 076 • BERA

**MARITX**  
• INGENIARITZA ELEKTRIKOA  
• PROIEKTU ELEKTRIKOAK  
T. (0034) 636 617 450  
• BOLETIN INDUSTRIA  
• INSTALAZIO ELEKTRIKOAK  
Legia. 23 - BERA

## Dokumentala euskara ikasteko kanpainaren baitan

Eskualdeko hiru lagunen lekukotzak biltzen dituen lana irailaren 12an eta 13an aurkeztuko dute

### TTIPI-TTAPA

Bortzirietako Euskara Mankomunitateak eta Malerrekako Mankomunitateak, IKA euskaltegiekin elkarlanean, helduek euskara ikasi eta hobetzeko martxan paratu duten aurtengo kanpaina berrikuntza batekin dator, dokumental bat ekoiztu baitute propio. Bi mankomunitateetatik adierazi dutenez, «ez da dokumental faltsua, guztiz serioa baizik» eta eskualdeko hiru lagunen lekukotzak bildu dituzte: «euskara ikasten hasi berria den batena, dagoeneko tarteko urratsean den ikasle batena, eta bere ikasketa prozesua burutu duen bertze batena».

Sortzez Zaragozako eta Beran bizi den Adriana, Leioatik Zubietara etorri zen Ernesto, eta Hernani utzi eta Bortzirietara bizitzera etorri zen Sofia

dira dokumentaleko hiru protagonista. 30 minutuko iraupena du, euskara eta gaztelaniaz egina da eta azpigitulaturik.

### Dokumentalaren aurkezpenak

Dokumentalak aurkezteko hiru emanaldi prestatu dituzte, eta hiruren ondoren merienda egingen dute. Bortzirietan, irailaren 12an, Berako Beralandetan aurkeztuko dute eta irailaren 13an Lesakako Harriondoan eskainiko dute. Bi aurkezpenak 19:00etan hasiko dira. Irailaren 13an, berriz, Doneztebeko Zinemaren aurkeztuko dute, 19:30ean.

### Izen-ematea

Bortzirietako eta Malerrekako IKA euskaltegietan izena emateko epea zabalik dago. Irailaren 30era arte izanen da horretarako aukera.

## Bortzirietan Euskaraldia prestatzeko bilera irailaren 10ean Lesakan

### TTIPI-TTAPA

Bortzirietako Euskaraldiko bilera egingen dute irailaren 10ean, 19:00etan, Lesakako Harriondoan. Bilera irekia izanen da, eta interesa duten guztiek parte hartzen halako dute. Ekainaren 6an Euskaraldiaren bigarren edizioa aur-

kezteko saioa izan zen Beran, eta han adostu zuten Bortzirietako bilera irail hasieran egitea. Euskaraldiaren bigarren edizioa 2020an da eta mota guztietako entitateak eta herritarrak izanen dira protagonista. 2019ko udazkenean hasiko dira presaketak eta izen-emateak.

**JAKONE-COXOTEGIA**  
Etxean  
egindako  
produktuak  
948 630 786 • Altzate, 21 • BERA

**ERANDONEA, S.L.**  
BILTEGIA: 948 630 102  
SAKELAKOA: 633 480 563  
Bidasoa, 76 - atea 21-22 • BERA

## Ttirriki-ttarraka bideoklip lehiaketa antolatu dute

Kanta aurkeztearekin batera, bideoklipa aurkezteko epea irailaren 30era arte ireki du Tantirumairu Ikastolak

### AITOR AROTZENA

Tantirumairu ikastolak, neska-mutikoengan ohitura osasuntsuak sustatu eta bidena-bar, ikastetxeean sartzeko orduan sortzen diren auto-pilaketak saihesteko asmoz, Ttirriki-ttarraka egitasmoa abiatu zuen joan den ikasturte bukaeran. Horren helburua goizero ikastolara ahalik eta ikasle gehien oinez hurbiltzea da. Horretarako bi ibilbide proposatu zituzten: Ttirriki, 08:40an Eltzetako plazan abiatu eta Bittiria, Erdiko Errota eta Plaza Zaharrean barrena ikastolara 08:55ean ailegatzen dena; eta Ttarraka, Iturrun-zubiko plazako iturrian 08:45ean elkartu eta Antoiu karrikan eta Eskol-Ttikin barrena ikastolara joaten dena.

Orain, egitasmoa indartzeko kanta bat sortu dute, Bortzi-

rietako Bertso eskolaren eta Lesakako zenbait musikariren laguntzaz (<https://www.tantirumairuikastola.com/ttirriki-ttarraka> atarian entzugai).

### Bideoklip lehiaketa

Kantaren aurkezpenaz gain, bideoklip lehiaketa antolatu dute. Kanta hori oinarri duen bideoa sortu ondotik, Youtube edo Vimeora igo beharko dute. Gero, lotura ondoko helbidera bidali behar dute: [idadzaritza@tantirumairu.eus](mailto:idadzaritza@tantirumairu.eus). Lanak irailaren 30era arte bidali ahal dituzte, eta ondotik, Tantirumairu ikastolak izendatutako epaile taldeak erabakiko du saridunen zerrenda.

Irabazleak 300 euroko saria jasoko du eta 16 urte arteko bideoklip onenak Irrisarrilanderako Baxiko Natura sarrera (sei lagunendako).



UTZITAKO ARGAZKIA

### 'Cóncavo-convexo' aurkeztu dute

Martxel Rodriguez herritarrak eta Jon Lopez madrildarrak osatzen duten Led Silhouette dantza konpainiak *Cóncavo-convexo* landu du udan. Lan hori abuztuaren 11n taularatu zuten komentuko elizan, Gaizka Sarasolaren zuzeneko musikarekin.



UTZITAKO ARGAZKIA

### Zubiriak irabazi du apustua

Zubiriak irabazi zuen Otxune eta Saralegiren aurkako apustua. Lasterkalariak baino biziago osatu zuen 25 kilometro eta 1.250 metroko desnibel positiboa duen ibilbidea. Behor gainean egin zuen buelta eta 50 bat metroko aldea atera zion bikoteari. Jende dezente bildu zen.

### Organorako Musika Zikloa irailaren 20an eta 21ean

Irailaren 20an eta 21ean Organorako Musikaren Zikloa izanen da herrian. Helburua Nafarroako elizetan erabiltzen dituzten organoei eta idatzitako musikari balio handiagoei ematea da. Horretarako egitarau zabala prestatu dute (xehetasunak 742.zk.).

### Haurren hizkuntza-garapeneko arazoei buruz ikastaroa

Irailaren 27an eta 28an Haur euskaldunen hizkuntza-garapeneko arazoak antzemateko, baloratzeko eta zuzentzeko eskura ditugun prozedurak eta tresnak izeneko ikastaroa eskainiko du EHUK Harriondoan eta [www.uik.eus](http://www.uik.eus) webgunean eman daiteke izena.

### 'Zoaz pake Santuan' antzerkia irailaren 14an

Txalo Produksioak, Begoña Bilbaoren zuzendaritzapean eta Ane Gabarain eta Mikel Laskurainek antzeztuta, 'Zoaz pake Santuan' lana eskainiko du herrian. Irailaren 14an, larunbatean ikusi ahal izanen da, 20:00etan Harriondoan. Sarrera zortzi euro izanen da.

### Bizikleta-itzulia eginen dute irailaren 15ean

Beti Gaztek antolatuta, bizikleta-itzulia eginen dute hila-ren 15ean. 09:00etan abiatuko dira eta 40 eta 25 kilometroko ibilbideak izanen dira aukeran, 1.300 eta 850 metroko desnibela dutenak. Izen-ematea egunean bertan edo [kirolprobak.com](http://kirolprobak.com) atarian.

**IRU-BIDE**  
OSTATU • JATETXEA  
Arratzubi Kalea 3  
31770 LESAKA  
T. 948 63 71 27

Hemen erabili  
**kattagorria**  
LESACA  
948 627 514  
[www.kattagorria.com](http://www.kattagorria.com)



## Uso postuen aprobetxamendurako enkantea hilaren 7an

12:00etan udaletxeko Batzar Aretoan bilduko dira eta hartzaileek, fiantza gisa, %30a ordaindu beharko dute

### IRUNE ELIZAGOIEN

2019ko sasoirako 21 uso postuen ahozko enkantea irailaren 7an egingen dute eta sesta emateko aukera izanen dute. 12:00etan bilduko dira, udaletxeko bilkura aretoan. Enkantean ematen den tanto bakoitza hamar eurokoa izanen

da eta behin-behineko esleipena egin ondotik, hartzaileek hasierako prezioaren %30a ordaindu beharko dute fiantza gisa. Ordainketak irailaren 27rako egin beharko dira. Baldintza guztiak [www.etxalar.eus](http://www.etxalar.eus) atarian kontsultatu daitezke.

## Angel Iribarren eta Mariezkurrena hirugarren Teruelgo rallyan

### I. ELIZAGOIEN

Javier Mariezkurrenak, Doneztebeko pilotoak, eta Angel Iribarrenek, Etxalarko kopilotoak, hirugarren postua lortu zuten Teruelen egin zen Baja España Aragon rally lasterketan, kamioiarekin. 08:31:55 behar izan zuten.



Hirugarren postua lortu zuten.



BLANCA PEREZ

## Larraburuakoek ateraldia egin dute

Abuztuaren 24an Logroñora eta Brionesera ateraldia egin zuten Larraburu jubilatuen elkarteko 40 lagunek. Goizean Ontañon ardotegia bisitatu eta Logroñon bazkaltzera joan ziren. Arratsaldean berriz, Briones herria ezagutu zuten. Irailan muxiko eta yoga ikastaroetan hasi dira.

## Urritzokietako bestak irailaren 14tik 16ra ospatuko dituzte

### I. ELIZAGOIEN

Irailaren 14an 11:00etako txupinazoak emanen die hasiera beste. 12:00etan meza izanen dute eta gero hamaiketako. 18:00etan txokolatea eta 21:00etan xingar jatea izanen dira. Igandean, 11:00etan meza eta 13:00etan kalejira izanen dute.

14:00etan *asauan* bilduko dira eta segidan musa eta partxisa izanen dute; 17:30ean, berriz, jokoak. 18:30ean musikak girotuko ditubazterrak. 21:00etan afaria izanen dute (txartelak igandera arte salgai, 948 63 51 34). Astelehena garbitzeko baliatuko dute.



JOSEBA OLAGARAI, ANA INDABURU, ITSASO ELIZAGOIEN

## Bestak giro onean

Eguraldia lagun, abuztuaren 14tik 18ra giro ederrean pasa zituzten bestak herritarrek. Herri-lasterketa, herri-afaria, dantza saioa, trikitilarien saioa, herriko pilotarien pilota partidak, asaua, eta bertze hainbat ekitaldi ere hagitz jendetsuak eta arrakastatsuak izan ziren.

## Imanol Vicente irabazle Lesakako II. Slalomean

### I. ELIZAGOIEN

Imanol Vicentek bertze garai-pen bat lortu zuen abuztuaren 10ean bere Nitocar EvoIIrekin. Ziharka Sportek antolatutako lasterketan, monoplazen kategorian, txapeldun izan zen zirkuitoari bi buelta emanda denbora onena lortuz.



Vicente irabazle monoplazetan.



80ko hamarkadan zenbait egunez bestak antolatu zituzten. JUANJO SAGASTIBELTZA

## Berrizaungo besta eguna berreskuratu dute

Irailaren 14rako egun osoko besta antolatu dute: dantzariak, trikitilariak, bazkaria, lehiaketak... izanen dituzte

### TTIPI-TTAPA

Berrizaunen 80ko hamarkadan, zenbait egunez, bestak antolatu izan dituzte. Hagitz ongi antolatutako bestak ziren, giro ederrekoak. Auzo ttikia izanagatik, herriko eta inguruko herrietatik jende azkarki animatzen zen.

### Egun osoko besta

Aurten, hori berreskuratu nahian, egun bateko besta prestatu dute, irailaren 14rako, larunbaterako. Eguerdian, 12:00etan, botako dute bestari hasiera emanen dion txupinazoa, eta segidan, herriko

dantzarien saioa izanen da. Trikitilariekin batera eskainiko dute emanaldia.

14:00etan bazkaria izanen dute, fabrikaren ondoan, trikitilariak alaitua. Dagoeneko salduak daude bazkarirako txartel guztiak. Ondotik, mus eta partxis txapelketak jokatuko dituzte eta ilunabarrean, 19:00ak aldera, hanka lehiaketarekin emanen diote segida bestari.

Txosnaren inguruan emanen diete akabera besta egunari, musika eta dantzarekin. Egun polita pasatzeko aukera herriar guzientzat.



Irailaren 8a izanen da azken eguna. IBAI RETEGI

## Herriko igerilekuak irailaren 8an itxiko dituzte

### TTIPI-TTAPA

Ekainean hasitako igerilekuen sasoia azken egunetan dago. Irailaren 8a izanen dute azken eguna. Eguraldiak dezente lagundu du aurtengo denboraldian eta betealdi ederrak izan dira egun frankotan.

Halere, Amabirjin Eguna pasatzuz gero nabaritzen da fres-

katzen hasi eta jendea betiko zereginetan pentsatzen hasia dela. Aurten, guztira, udako 400 bonu inguru saldu ditu Herriko Etxeak, hagitz kopuru polita.

Dena dela, tenis pista ia erabili gabe gelditu da. Izan ere, eremu horrek harroaldi bat eskatzen du.

## Piedadeko besta eguna igandean izanen da

Irailaren 8an izanen dute Piedadeko besta. Auzoko eta Frain aldeko herritarrak biltzen dira gehienbat baina bada herritik joaten denik ere. Eguraldiak lagunduz gero, Kalbario Gurutzetan bazkalduko dute; bertzela, Biltoki Elkartera mugitzeko asmoa dute.

## Ortziralean hasiko dute ikasturtea 59 ikaslek

Irailaren 6an hasiko dute ikasturtea herriko eskolan. Aurten aldaketa haundi samarra izanen da ikasle kopuruan. Izan ere, 11 dira Haur Hezkuntzan sartuko diren haurrak eta bi bertzerik ez Beran hasiko direnak. Beraz, 50etik 59ra iganen da eskolako haur kopurua.



**TXIMISTINDAR**  
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK  
*Andueza e Iriarte, SL*  
Zalain Industrialdea, 42B-4.pab BERA  
T. 948 631 452 | 639 608 034 | 639 125 046



**BEKO**  
LOREAK ETA LANDAREAK  
Frain Auzoa - LESAKA  
T. 948 637 826

TTIPI-TTAPA SARE SOZIALETAN



facebook  
www.facebook.com/ttapi.ttapa



**PRIM, c.b.**  
Fisioterapia Zentroa  
Itzea 1, behea • T/F. 948 625 206 • BERA  
Colon Pas. 6 - atzea • T/F. 943 633 050 • IRUN




logurak  
www.logurak.com



gauko konfort-kuxina



Centro Prim



regina tolosaechepare



# Haizea Ziluagari babesa adierazteko besta larunbatean

Ilunabarrean kalejira egingen dute eta ondotik, ekitaldia, afaria eta besta izanen dituzte

## NEREA ALZURI

Heldu den irailaren 16an abiatuko den 11/13 makroepaiketako 47 euskal herritar epaituko dituzte eta 601 urteko zigor eskaerari aitzin egin beharko diote. Tartean dugu Haizea Ziluaga Larreategi herritarra. Hain zuzen, epaiketa salatu eta Haizeari eta gainerako 46ei babesa eta elkartasuna adierazteko, larunbat honetan, irailak 7, elkartasun eguna antolatu dute herrian.

19:30ean kalejira egingen dute herrian barna. Ondotik, 20:00etan, ekitaldia izanen da

plazan, dantza, musika, bertsoak eta bertze uztartuz, eta 21:00etan frontoian afaltzeko bilduko dira. Eguna borobiltzeko, gauerditik aitzinera, 47ak herrian besta antolatu dute Ekaitza Elkartean.

## Bilborako autobusa

Irailaren 14an, berriz, auzipe-tuek deituta manifestazioa egingen da Bilbon eta harat joateko autobusa antolatu dute herritik. 14:30ean abiatuko da aparkalekutik eta joan nahi duenak Dena janari-dendan eman beharko du izena.



AMAI APEZETXEA

## Zakutenea ostatuak 50 urte

Herritar aunitz hurbildu zen joan den abuztuaren 10ean, Zakutenea ostatuaren 50. urtebetetze-bestara. Aurrekua, herriko dantzariak, harri-jasotzaileak, aizkolariak, musikariak, jatekoa eta edatekoa... izan ziren. Tartean, etxeoandreei, Filomena eta Piliri omenaldi hunkigarria eskaini zieten.



M. LARRETxea / I.UGALDE

## Bestak eta Arantza Rock giro onean

Urtean behin egiten diren bestak giro ederrean joan ziren. Herrikoak eta berezkoak diren jarduerak mantenduz, hainbat ekitaldi izan ziren abuztuaren 14tik 17ra. Abuztuaren 24an egindako Arantza Rock jaialdia ere, egun paregabea ateraz.



RAMON ALBISTUR

## Emakumearen Baratzearen urtemuga

Uztailaren 20an, herrian dagoen Emakumearen Memoriaren Baratzearen lehenbiziko urtebetze-besta koloretsua izan zen. Irakurraldiak, kantak eta dantzak uztartuz, emakumeei eskainitako ekitaldia egin zuten eta tartean, hainbat herritarrek parte hartu zuten.

Denda. 948 631 217  
T. 630 136 863  
Julio Caro Baroja, 6 - BERA  
jaurenabera@gmail.com

**Elektrizitate lanak orokorrean**  
**Erreformat, etxe berriak**  
**Lantegietako mantenu lanak**

Etxetresnen salmenta, instalazioa eta etxez etxeko konponketa  
Antenak, satelite bidezko instalazioak



## Bizikleta ibilaldia eta Ulibeltzak elkartearen besta irailean

Irailaren 8an izanen dute bizikleta ibilaldia eta 14an elkartearen besta

### MAIDER PETRIRENA

Sunbildarrek kirolzale eta bestazaleentzako hitzorduak prestatutuzte irailerako.

Hilaren 8an, igandean, II. BTT ibilaldia izanen dute. 09:00etan abiatuko dira eta parte-hartzaileek bi ibilbide izanen dituzte aukeran: 32 kilometrokoa edo 26koa.

Izen-ematea zabalik da, aldeazurretik [www.rockthesport.com](http://www.rockthesport.com) atarian (federatuek 10 euro eta federatu gabeek 15); edo egunean bertan 07:45etik 08:45era (federatuek 15 euro eta gabeek 20) irteeran. Proba

ez lehiakorra da. Bukaeran gosaria eskainiko dute eta dutxak ez ezik, bizikleta garbitzeko ura ere izanen dute. Horrez gain, kirolarien artean zozketak egingen dituzte.

### Elkartearen besta

Hurrengo larunbatean, irailaren 14an, berriz, Ulibeltzak elkartearen besta izanen dute. 13:00etan Beñat Mitxelena eta Jalisko lagun dituztela poteoa egingen dute eta 14:00etan bazkarian bilduko dira. Txartelak Bustitzen eta Fondan eros daitezke.



MAIDER PETRIRENA

## 31 partaide Arretxekobordako igoeran

31 partaidek parte hartu zuten Arretxekobordako kronoigoeraren VIII. edizioan, bizikletaz zein lasterka. Zozketak egin ziren eta Julen Ibarra (bizikleta), Izaskun Lekuberria (bainuetxean zirkuitua eta otordua) eta Iban Iturbide (urdaiazpikoa) izan ziren sarituak.

## Partaide eta ikusle aunitz izan da aurtengo bestetan

Parte-hartzea eta arrakasta ikusita, herritarrek antolatzaileek egindako lana eskertu nahi izan dute

### M. PETRIRENA

Bestak abuztuaren 10ean hasi ziren arren, abuztuaren 9an gazteek herri-kirol desafioa eskaini zuten. Ondotik, kontzertuak izan zituzten.

Larunbatean lehertu zen bestei hasiera eman zien txupinazoa, guraso elkartearen kideen eskutik. Arratsaldean pilota partidak izan zituzten. M. Ruiz de Larramendik eta Aldaregiak 18-17 irabazi zieten Agirre eta O. Ruiz de Larramendiri. P. Etxeberria eta Untoria izan ziren Retegi II.a eta Eros-tarberen aurka 22-9 irabazi zutenak; eta Ezkurdia eta Rezusta izan ziren nagusi Altuna eta Martijaren aurka (22-14).

Igandea izan zen egun handia. Gaita doinu argitu zen herria. Meza, abesbatza, dantzariak, erraldoiak... izan zituzten. Ohi bezala, Ramon

Latasa saria ospatu zuten. 808 ikuslek gozatu zuten Arrospide eta Peñagarikano (17' 09'') eta Vicente eta Saralegiren (28' 38'') aurkako apustuaz. Ousmane txingalariak eta Iri-goien harri-jasotzaileak ere lan ederra egin zuten. Antton Espelosini omenaldi hunkigarria eskaini zioten eta Otaegik bertso bat kantatu zion.

Astelehenean herri-krosa izan zen eta 68 korrikalari izan ziren. Ondotik, 110 guraso eta seme-alabek bazkariak gozatzeko aukera izan zuten eta herri-kirolak jokatu zituzten.

Asteartea peñaren eguna izan zen. Txarangak ederki alaitu zituen bazter guztiak eta haurrek jolasak izan zituzten. Azken eguneko mus txapelketan 20 bikotek parte hartu zuten eta bestak akitzeko 130 lagun bildu ziren afarian.



Haur, gazte eta helduek parte hartu dute bestetan. M. PETRIRENA / A. IBARRA



## Besta ttikiak irailaren 20an eta 21ean izanen dira

Ortzirale ilunabarrean botako dute txupinazoa baina aitzinetik ere besta giroa nagusituko da

### MARGA ERDOZAIN

Bertze urte batez, egitarau oparoa prestatu du Gazte Burrunba Kultur Taldeak besta ttikiak ospatzeko. Bi egunez, irailaren 20an eta 21ean, ez da ekitaldirik faltako.

Ortziralean, irailak 20, herriko dantzari gazteen emanaldiarekin hasiko dira besta ttikietako ekitaldiak. 17:30ean egina dute hitzordua, Santa Luzia plazan. 18:00etan erremon-te partidak jokatu-tuzte eta aipatzekoa da, protagonistetako bi bederen herritarrak izanen direla: Julen Larretxea eta Aimar Jabalera. Azken asteotan profesionalekin partidak jokatzen ari dira bi gazteak.

18:30ean buruhandiak herrian barna ibiliko dira eta 20:30ean botako dute besta ttikiei hasiera ofiziala emanen

dien txupinazoa. 21:30ean zopak eskainiko dituzte eta eguna borobiltzeko, 00:30ean Alerta Gorria taldearen emanaldia izanen da eta ondotik Tirri & Tery ariko da.

Larunbatean, 10:00etan gaiteroak karrikak alaitzen ibiliko dira. Eurekin batera buruhandiak ere herrian bueltaka ibiliko dira. 14:00etan zikiro jatea egingen dute eta ondotik, bingo musikatua egingen dute.

16:00etan haurrendako puzgarriak paratuko dituzte Bear Zana pilotalekuan eta 18:00etatik aitzinera Matraka elektrotxaranga arduratuko da bazterrak girotzeaz. 20:00etatik 21:30era Oharkabe taldearekin dantzaldia izanen da plazan. 00:00etan Pleura taldeak joko du eta ondotik berriz Oharkabe taldeak hartuko du lekukoa.



UTZITAKOA

## 22 haur Udako Kirol Eskolan

22 neska-mutikok parte hartu dute uztailaren 29tik abuztuaren 23ra Erreka Kirol Elkartek antolatuta egin den Udako Kirol Eskolan. Argazkia kirol eskolako hondarreko eguneko da eta ikus daitekeen bezala, merezitako gosaria eginez agurtu zuten denboraldia.

## Musika eskolan izena emateko epea irailaren 13ra arte zabalik

### M. ERDOZAIN

Irailean sartuta matrikula egiteko epe berezia zabaldu dute musika eskolan. Irailaren 13ra arteko epea izanen da horretarako, telefonoz (948 45 14 12 / 636 66 97 50), posta elektroniko bitartez ([esmusidoneztebe@gmail.com](mailto:esmusidoneztebe@gmail.com)) edo

11:00etatik 13:00etara musika eskolara joanez.

Bertzalde, aipatu, Nafarroako Gobernuak udal musika eskolei emanen dien dirulaguntza deialdiaren barne, Agorreta Musika Eskolak 12.696,97 euro hartuko dituela.

## Motorzaleen besta irailaren 14an eta 15ean egingen dute

### M. ERDOZAIN

Basurde motorzaleen peñak irailaren 14an eta 15ean ospatuko du aurtengo bere eguna. Ohiko egitarauari eutsita, motorrean ibilbideak, zikiro jatea, jokoak, oparien zozketak, kanpalekua eta kontzertuak izanen dituzte. Musikari dagokionez, aldi honetan, Tabana eta Mala Vela musika taldeak gonbidatu dituzte larunbatean eta horien ondotik, Drako DJa arduratuko da musika paratzeaz. Antolatzaileek tatuajeak egiteko mahaia izanen dela ere aitzineratu dute.



Motor soinua nagusituko da berriz.

Motorzaleen hitzorduan parte hartzeko 35 euro ordaindu beharko dira eta aitzinetik izena ematekotan irailaren 5a baino lehen egin beharko da (640 20 44 11).



UTZITAKOA

## ANAIF elkartekoak auzolanean

ANAIF elkarteko kideak (Nafarroako Haur eta Gaztediaren Laguntzarako Elkartea) Doneztebe aldean ibili dira uda honetan. Abuztuaren 1etik 8ra hainbat lanetan aritu ziren eta tartean, erreka garbitzeko ere aprobeztatu zuten egonaldia. Ez gutti gainera.

## Plazaren mendeurren festa irailaren 13an eta 14an

Bertsolariak, pilota partidak, aizkora apustua, herri-bazkaria... izanen dituzte larunbatean

### FERMIN ETXEKOLONEA

Ehun urte ez direlako egunero betetzen, plazaren festa ospatuko dute irailean.

### Irailak 13, ostirala

17:00etan plaza apainduko dute, txorimaloak eta kartela egin eta paratu egingen dituzte. Ordu berean, estalpean argazki eta informazio erakusketa egingen dute. 20:00etan triki-poteoan bilduko dira.

### Irailak 14, larunbata

11:00etan txistulari, erraldoi eta buruhandien kalejira egingen dute eta 11:30ean bertso-lariei harrera egingen diete. 12:00etan pilota partidak izanen dira eta gero aizkora apustua. 14:00etan bazkarian bilduko dira. 17:30ean mutxikoak dantzatuta, 18:00etan kamiseta margotzea izanen dute. 20:00etan taloak jan eta dantzatzu akituko dute besta.

## Mindegia eta Indakotxea Nafarroako II. mailako aizkora finalerako sailkatuak

### TTIPI-TTAPA

Nafarroako II. Mailako Aizkora Txapelketako finalistak abuztuaren 17an, Arantzako pilotalekuan jokatu zen kanporaketan erabaki ziren. Hamar aizkolaritari ziren aurrez aurre bi kanaerdiko eta 60 ontzako bat ebakitzeko lanean eta lehendabiziko bostek finalerako txartela lortu zuten. Mieltxo Mindegia eta Donato Larretxeak ez aritzea era-

baki zutenez, horiek izanen dira maila galduko dutenak.

Bestalde, finalerako sailkatu dira Patxi Mindegia (08:49:58) eta Mikel Indakotxea (10:44:11), bigarren eta bosgarren postua lortuta, hurrenez hurren. Beintza Labaiengo Jesus Etxeberri izan zen irabazle (08:30:34), Xuban Kañamare hirugarren eta Goizeder Belza laugarren. Finala non eta noiz jokatu den zehazteke dago oraindik.



IZASKUN ZUBIALDE

## Arbolaren bueltan, herritarrek festan

Ohi bezala, arbola altxatuz hasi eta botaz akitu dituzte bestak herritarrek. Bien bitartean hamaika ekitaldi izan dituzte: aizkora apustua, pilota partidak, herri-kirolak, patata tortilla eta postre lehiaketa, bertso-saioa, xakea, piñata, bingoa, krosa, futbitoa... Eta Udalak Engraxi omendu du.

## Monte Perdidon izan dira 15 herritar mendizale

15 eta 52 urte bitarteko 15 lagun Monte Perdidon izan ziren abuztuaren 10ean. Ostiral eguerdian abiatu eta Torlan gaua pasatuta, larunbatean tontorrera goititu ziren. Paisaia «zoragarriez» gozatu zuten.







Joaldunak eta trikitilariak Ameztin barrena ibiliko dira goizean. ARTXIBOKOA

## Joaldunen hitzordu handia irailaren 21ean

Sarriegi eta Maiak girotuko dute bazkaria. Txartelak Herriko Ostatuan eskura daitezke

### ARKAITZ MINDEGIA

Bertze urte batez, Joaldunen Eguna ospatuko dute irailean herrian. Hilaren 21ean izanen da aurten eta herritarrak egun osoko besta antolatzen ari dira.

Ohi bezala, goizean goiztik joaldunak eta herriko trikitilariak Ameztiko baserrietan barrena ibiliko dira. Eguerdian,

13:30 aldera, aizkora apustua jokatu da. Ondotik, Aitor Sarriegi eta Jon Maia bertsolariak girotutako herri bazkaria egingen dute, plazan (txartelak Herriko Ostatuan eskura daitezke). Mahai-inguruan kanta eta bertsoez gozatu ondotik, Salaberri akordeoi-lariaren txanda izanen da.

### Hamar ikasle ikasturte honetan hiru urteko gelan

Izar eta June Apeztegia, Gartxot eta Oneka Arhex, Arane eta Eider Aioroa, Anuk Salvado, Oihan Deskarga, Xabat Mindegia eta Joel Ramos 3 urteko gelan hasiko dira. Gainerakoek bezala, irailaren 6an hasiko dituzte saioak. Laster eskola berriko obrak hasiko dituzte.

### Ugaitz Elizalde ederki ari da txapelketetan

Pilotari gaztea harat eta honat ibili da Garferekin partida eta txapelketak jokatzen. Binako txapelketan, Beroiz lagun zuela, finalaurrekotara iritsi zen eta, orain, Bodegas Taronek antolatzen duen txapelketan Irustarekin finalera ailegatu da.

## Aurtizko bestak eta bertso-afari bat antolatzen ari dira gazteak

### ARKAITZ MINDEGIA

Ate joka dituzte Aurtizko sanmartinak. Azaroko bigarren asteburuan adin guzietako herritarrendako ekitaldiak izateko lanean ari dira gazteak. Larunbatean talde ezagun baten kontzertua ekartzeko asmoa dute baina oraindik ez dute zein izanen den aipatu.



Urriaren 5ean bertso-afaria dute.

### Urriaren 5ean afaria

Besten aitzinetik, ordea, bertze ekitaldi bat antolatzeko buru-belarri ari dira. Urriaren 5ean, lehendabiziko larunbatean, bertso afaria egiteko

asmoa dute. Iker Zubeldia eta Ander Lizarralde bertsolariak, Beñat Mitxelena akordeoi-lariarekin batera, bertso eta dantza doinuak zabaltzen ariko dira.

## Trikitixa edo pandereta jotzen eta dantzatzen ikasteko saioak hastear

### ARKAITZ MINDEGIA

Herriko bestetan beraien erakustaldiak eskaini ondotik, trikitixa eta pandereta jotzen edo dantzatzen ikasteko ikastaroak eskainiko dira laster Iturenen eta Aurtizen. Trikitixa eta pandereta jotzen ikasi nahi dutenendako aurre-

matrikulazioa zabalik da dagoeneko. Irailaren 16a, astelehena, izanen da hondarreko eguna. Dantza saioekin ere urrian hasteko asmoa dute. Oraindik eguna eta ordua zehazteko dituzte. Laster gurasoekin biltzeko hitzordua adostuko dute.

### Tresenea ostatuak irailaren 6an irekiko ditu ateak

Irailaren 6an, heldu den ortziraletan, irekiko ditu berriz ere ateak Tresenea ostatuak. Orain arte apartamentuak martxan eduki dituzte eta bertan turista andana egon da. Hemendik aitzinera, berriz, jatekoa eta edatekoaz gozatzeko aukera izanen da.

### Joaldunak Zarauzko Euskal Jaietan irailaren 9an

Iturengo joaldunak Uharte Arakilgo Artzain Egunean egon ondotik, irailaren 9an, astelehenean, Zarauzko Euskal Jaietara joanen dira. Goizean kaleak animatuko dituzte beraien joare soinuekin. Trikitilari eta panderojoleekin batera ibiliko dira.

**Zalain**  
JATETXEA RESTAURANTE

Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. [www.zalain.info](http://www.zalain.info)

**F. LANCHAS**  
Akutxiladorea eta bernizatzailea  
Parket eta parket flotatzailea jartzea  
Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 735 M: 620 172 679



Eratsungo Peña Bakarrak ederki alaitu zuen herria iazko festetan. P. MARIEZKURRENA

## Eratsungo pestak ekitaldiz beteak prest astebururako

Joan den larunbatean ospatutako Iruñarriko Egunaren ondotik, ostiralek igandera egitarau bete-betea antolatu dute

### TTIPI-TTAPA

Ospakizunetan dabilta azken aldian Eratsunen. Aurten, aurreneko aldiz, Iruñarriko Eguna ospatu zuten abuztuaren 31n, herriko festen aurrekari gisara eta beroketa horren ondotik, hiru eguneko pestak hartuko dituzte ostiral hone-tatik igandera.

### IRAILAK 6, OSTIRALA

16:00etan mus txapelketa jokatu dute eta 18:00etan pilota partidak hasiko dira: lau eta erdian, alde batetik, Elizalde zubietarra eta Aldaregia ariko dira eta bestetik, Lereneta Espinal. 20:00etatik aurrera eta gauzez Oharkabe taldearekin dantzaldia izanen da.

### IRAILAK 7, LARUNBATA

11:30ean Turuta txarangak herri ingurua alaituko du eta ondotik bazkaria egingen dute.

17:30etik 19:00etara Los Cahuetes mariatxi taldeak emanaldia eskainiko du eta gauzez Kenbat taldearekin dantzaldia izanen da.

### IRAILAK 8, IGANDEA

11:00etan hasita puzgarriak izanen dituzte egun osoan. Ordu berean, meza hasiko da eta 12:00etan aizkora apustua, tortilla lehiaketa eta sagardo dastaketa egingen dituzte. Aizkora apustuan, Julen Alberdi eta Kañamates, Jon Rekondo leitzarraren eta Palaxio zubietarraren kontra ariko dira. 17:00etan ipuin-kontalaria gonbidatu dute eta ordu berean, lau eta erdiko beste partida bat ikusteko aukera izanen da: Arribillaga eta Anso. Festak borobiltzeko, 18:30ean Bankako Menditarrak taldeak elizantaldia eskainiko du eta ondotik, luntxa eskainiko dute.



JAIONE ZABALO

## Giro ederra Ezkurako pestetan

Abuztuaren 14an hasi eta 18an akitu zituzten Ezkurako pestak. Bost egunetz besta giroan murgildu zen herria. Otorduak, ikuskizunak, aizkora apustua, dantzaldia, mus txapelketa... denetarik ekitaldiak izan zuten herritarrek eta bisitariek.



AMAIA ODRIOZOLA

## Bestak denen gozamenerako

Natalia Rekarte alkatearen eskutik lehertu zen Donamariako beste hasiera eman zien txupinazoa. Handik aitzinera, haur, gazte eta helduak besta giroan murgildu ziren. Bateko eta bertze ekitaldietan plaza inguruan beteta ikusi zen bestek iraun zuten borts egunetan.







Haur, gazte nahiz helduendako ekitaldiak izanen dira aurtengo bestetan ere. JAIONE MINDEGIA

# Astebururako besta bikainak prestatu dituzte Oizen

Igande eguerdian aizkora apustua izanen da eta ondotik bertsolariekin eta Salaberriekin herri-bazkaria egingen dute

## TTIPI-TTAPA

Ortzirale arratsaldetik igande arratsa bitarte, irailaren 6tik 8ra, bestak ospatuko dituzte oiztarrek, eta hiru egunetarako haur, gazte eta helduendako hainbat ekitaldi prestatu dituzte.

## IRAILAK 6, ORTZIRALEA

20:00etan herriko trikitilariak herrian barna kalejiran ibiliko dira beste hasiera emanez. 21:00etan afaltzeko zopak izanen dira Herriko Ostatuan (erreserbak egin daitezke). 00:00etatik aitzinera Iñaki DJa ariko da musika paratzen.

## IRAILAK 7, LARUNBATA

11:00etan mus txapelketa jokatu dute. 17:00etatik aitzinera, berriz, haurrendako eta helduendako jokoak izanen dira. Ondotik, txokolate beroa eskainiko dute ostatuan. 21:00etan patata tortilla lehia-keta hasiko da eta 22:00etan afari-merienda egingen dute.

## EGUNERO HAURRENDAKO PUZGARRIAK PARATUKO DITUZTE

Tortillaz gain, xingarra, solo-moa eta txistorra aterako dute jateko. Eguna borobiltzeko, arratsalde eta gauz dantzaldia izanen da Gabenara taldearekin.

## IRAILAK 8, IGANDEA

11:00etan meza izanen da eta txistulariak ere ariko dira. Ondotik, luntxa eskainiko dute Herriko Ostatuan. 13:00etan aizkolariek apustua jokatu dute: Tito eta Jazinto, Miguel Angel eta Asierren kontra ariko dira. 14:00etan bertsolariekin batera mahaiaren bueltan bilduko dira herritarrek, herri-bazkaria egingen baitute Jon Maia eta bertze bertsolari batekin eta Mikel Salaberri soinuariarekin. 21:00etan afari-merienda egingen dute eta gauerdian *Gaixoa Ni* kantatuz emanen diete beste bukaera.

Udaletik jakinarazi dutenez, bestetako hiru egunetan haurrendako puzgarriak paratuko dituzte.

## Euskara ikasten ari diren helduendako dirulaguntzak

### TTIPI-TTAPA

Bertze urte batez, Malerreka-ko Mankomunitateak euskara ikasten ari diren 16 urtetik goitikoendako dirulaguntza deialdia egin du. 2018ko urriaren 1etik 2019ko irailaren 30era arte egindako ikastaroen matrikula gastuetarako izanen da laguntza, ikastaro estentsiboak, trinkoak, barnetegiak eta *on line* ikastaroak egin dituztenendako.

Laguntza lortzeko baldintzetako bat Malerreka-ko Mankomunitatea osatzen duten udalerrietako batean erroldatua egotea izanen da eta ikastaroan izandako asistentzia mailaren arabera jasoko da. Dirulaguntza matrikularen kostu osoaren adinakoa izanen da ikastaroan izandako asistentzia %85etik goitikoa denean; matrikularen kostuaren %75a izanen da ikastaroan izandako asistentzia %70-%85 bitartekoa denean eta ez da laguntzarik jasoko ikastaroan izandako asistentzia %70etik beherakoa denean. Gehienez ere laguntza 380 eurokoa izanen da.

Eskabideak eta dokumentazioa urriaren 2a baino lehen aurkeztu beharko dira. Informazio gehiago: [www.malerrekakomankomunitatea.eus](http://www.malerrekakomankomunitatea.eus).

ongi pasa bestak!

OITZEKO OSTATUA

Eguneko menuak, asteburuko menuak, menu bereziak (enkarguz), plater konbinatuak, bokatak eta errazioak.

Zopak jateko erreserbak egin daitezke.

Karrika bakarra, 43 · T. 948 11 05 66 · 31751 Oiz

OIZKO UDALA · NAFARROA

Oizko Udalak  
besta zoriontsuak  
opa dizkie  
herritar eta  
bisitari guziei

---

LIZUN  
GAZTANDEGIA

IDIAZABAL

Sunbilla · Tel: 948 450 862

## Santa Leokadia bestak asteburu honetan Legasan

Larunbatean zopak izanen dituzte eta igandean bazkaria eta dantzaldia

### TTIPI-TTAPA

San Agustin bestek utzitako ondorioa pasatzeko asti handirik izan gabe, asteburu honetan Santa Leokadia bestak ospatuko dituzte legasarak.

### Irailak 7, larunbata

Larunbatean, hilak 7, 20:00etan botako duten txupinazoarekin hasiko dira bestak. Ondotik ezkilak joko dituzte eta 21:00-etan zopak eskainiko dituzte.

### Irailak 8, igandea

Igandean, Santa Leokadia Egunean, 11:00etan meza izanen



Ermita. IRANTZU PASTOR / URAREN BAILARAK

da ermitan eta 13:00etan mahaiaren bueltan bazkaltzeko bilduko dira. Asteburua borobiltzeko, arratsaldean dantzaldia izanen da Hauspolariet taldearen eskutik.



OLATZ MUTUBERRIA

## Haur, gazte eta heldu besta giroan

Gazteak etxetik etxe eskean bainu eta guzti, haurrak jokoetan eta puzgarrietan, otorduak, mus eta partxis txapelketak, dantzaldiak, herritarren arteko herri-kirol desafia, dantzarien saioa... Eguraldia lagun, narbartearek ederki ospatu zituzten bestak abuztuaren 21etik 25era.



Lukas panpina Elgorriagan. NEREA ETXEBERRIA

## Haurren minbizia ikertzeko Lukas panpina eskualdean dabil

### TTIPI-TTAPA ELGORRIAGA

Haurren minbizia ikertzeko, Lukas panpinaren bira abiatu dute. Ikerketan laguntzeko bortz euro emanez, panpina egun batez etxean edukitzean datza proiektua. Elgorriagarrek egitasmoarekin bat egin dute eta abuztuaren 22az geroztik herrian dute Lukas. Dagoene-

ko 30 lagunetik goitik eskatu dute eta oraindik eskaerak egin daitezke. Etxean hartu nahi duten elgorriagarrek Oihana Migeltorenaarekin harremanetan jarri behar dute. Inguruko herrietan norbaitek interesa badu 'El viaje de Lucas contra el cáncer infantil' Facebook orrialdetik eska dezake.



Gure Zirkua bertatik bertara gozatzeko aukera izanen dugu irailean eta urrian.

## Gure Zirkua Elizondora eta Leitzara etorriko da irailean eta urrian

### TTIPI-TTAPA

Gure Zirkua eskualdean egin du geldialdia irailean eta urrian. Elizondora eginen dute lehendabizi, irailaren 27an, 28an eta 29an eta urriaren 4an eta 5ean guttienez bina emanaldi eskainiko dituzte. Urriaren 11n, 12an, 13an, 18an eta 19an, berriz, Leitzan izanen

dira Gure Zirkuko artistak, tartean, Unai Zabaleta musikari leitzararra.

Sarrerak dagoeneko salgai paratu dituzte. Elizondoko ikuskizunetarako sarrerak Fan-txiken eros daitezke eta Leitzakoak Maimur liburu-dendan. Bi kasuetan [www.eventbrite.es](http://www.eventbrite.es) atarian ere salgai daude.



# Eskualdeko lau herritar Gobernuko zuzendari nagusi

Izaskun Abril, Begoña Urrutia, Martin Zabalza eta Izaskun Goñi dira goi-karguak hartu dituztenak

## TTIPI-TTAPA

Laudira Nafarroako Gobernuan goi karguak hartu dituzten eskualdeko herritarrek: Izaskun Abril, Begoña Urrutia, Martin Zabalza eta Izaskun Goñi.

### Izaskun Abril Olaetxea

1970ean Beran sortua, aitzineko legealdian, Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio kontseilariaren kabineteko burua izan zen eta orain, Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuaren Lurralde

Antolamenduko zuzendari nagusi izendatu dute. 2015ean kabineteko buruaren kargua hartu zuen arte, Cederna Garalurren Toki Garapeneko eragile gisa aritu zen Baztan, Urdazubi eta Zugarramurdin.

### Begoña Urrutia Juanikotena

1962an jaio zen Amaiurren eta Aurrekontuen, Ondarearen eta Politika Ekonomikoaren zuzendari nagusia da. 1986az geroztik Nafarroako Gobernuan egiten du lan, batez ere, Toki Administrazio Departamentuari lotuta.



Ezkerretik hasita, Izaskun Abril, Begoña Urrutia, Martin Zabalza eta Izaskun Goñi.

### Martin Zabalza Arregi

1962an Almandozen sortua, Herritarrekiko Harremanetako Sailaren Bake, Bizikidetasun eta Giza Eskubideen Zuzendari Nagusi izendatu berri dute. Nafarroako UGTren erakunde idazkari, Espainiako Batzorde Konfederaleko kide eta Francisco Largo Caballero Fundazioaren kolaboratzaile izan zen. Gobernuko Ordezkaritzaren Kabinete Teknikoaren buru ere izan zen.

### Izaskun Goñi Razkin

1972an Iruñean jaioa, Sunbilla bizi da eta Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiektzioaren eta Lanaren zuzendari nagusi izendatu dute. 2007tik 2015era Bertizko Partzuergo Turistikoan kudeatzaile aritu zen eta 2015eko uztailean Gobernuaren Garapen Ekonomikoko presidenteordearen kabineteburu izan zen eta 2015eko abenduan Politika Ekonomiko, Enpresa eta lan zuzendari nagusi.



PROMOCIONES

**MALERREKA**

Informazioa: **629 951 170** (Aitziber)

**Sunbilla**  
neurri egindako  
etxebizitzak

**AUKERA  
BIKAINA!**

**9 ETXEBIZITZA:**

**115m<sup>2</sup> arteko etxeak**

**3 atiko**

**Denek 3 logela,  
sukaldea, egongela,  
2 bainu, trastelekuak  
eta lurpeko garaieak**

**Lokal komertzialak**



**EZKAIN  
ERAIKUNTZAK-ek  
eraikiak**



✓ Zure beharren arabera finantziarioa,  
Rural Kutxaren babes eta abalarekin



## Heldu den urteko irteerak proposatzeko bildu da zuzendaritza

Hurrengo egitekoa proposamenak aztertu eta aukeratzea izanen da

### PABLO IRASTORTZA

Elkarteko Zuzendaritza Batzordea heldu den urtean egiteko irteerak eta egonaldiak proposatzeko bildu zen uztailaren 30ean. Orain, bidaia agentzien eskaintzak aztertu eta erakargarrienak eta kome- nigarrienak aukeratuko dituz-

te. Arduradunen asmoa «ahali- lik eta bidaia eta egonaldi aukera zabalena» eskaintzea da eta horretarako lan egingen dute. Zehaztua dutelarik, el- karteko kideei TTIPI-TTAPA al- dizkariaren bidez eta buletin- ean bilduta eskainiko zaie informazio zehatza.

## Mallorcako egonaldiaz gozatzen ari dira elkarteko 41 lagun

### TTIPI-TTAPA

Joan den astelehenean, irailaren 2an, Mallorcara jo zuten elkarteko 41 lagunek eta heldu den astelehenean, irailaren 9an, itzultzekoak dira. Bien bitartean, egonaldiaz goza- tzeko denbora izanen dute: harat-honatean ibiltzeko,

erosketak egiteko, hondartza- ra joateko... baliatuko dute. Egonaldian daudela, nahi dutenek ateraldian joan eta inguruko paraje zoragarriez gozatzeko aukera ere izanen dute. Elkartekoek ongi pasa- tzeko deia egin diete: «ongi ibili lagunok!».



ROSA BERTIZ

## Aralarreko hitzordu bikaina

Urtero bezala, Aralarren izan ziren uztailaren 22tik 23ra elkarteko kideak. 223 lagun joan ziren eta 12:00etako meza aditu ondotik, Gorraizen bazkaldu zuten. Bazkalondoa Joxe Angelen doinu eta kante alaitu zuten. Dantza eta dantza ibili ziren, etxeratzeko ordua ailegatu zen arte.



P. IRASTORTZA

## 39 mendizale Txamantxoian izan dira

Uztailaren 23an elkarteko 39 mendizale Txamantxoian joan ziren. Ia 2.000 metroko mendi tontorrean, freskotasunean, gustura egon ondotik, beherantz jo zuten. Indarberritzeko, bertan bazkaldu zuten eta etxera itzuli ziren.

## Irail eta urrirako ateraldiak eta bidaia prest dituzte

Udazkenerako ateraldi eta bidaia andana prest dituzte: irailaren 14an Lezora egun- pasa egingen dute; irailaren 20tik 27ra Italian izanen dira; eta 30ean Benidormera joanen dira, urriaren 13a arte. Batzuk Benidormen dauden bitartean bertzeak Pirinioetara joanen dira. Urriaren 1etik 3ra bitarte paraje ederretan ibiltzeko au- kera izanen dute. Urria Baz- kideen Egunaekin akituko dute. Ohi bezala Gorraizen bilduko dira. Xehetasunak hurrengo aldizkarietan bildu- ko dira.



# AUKERA GALDURIK?

EZ HORIXE!  
IKASI EUSKARA



Bideoa ikusi

# GOZATU EUSKARA!

## 948 012 012

[www.euskaraikasi.nafarroa.eus](http://www.euskaraikasi.nafarroa.eus)  
[www.elaide.eus](http://www.elaide.eus)

Dirulaguntzak matrikularako

### Antolatzaileak

**Udalak:** Agoitz, Antsoain, Aranguren, Artzi, Atarrabia, Auritz, Barañain, Basaburua, Berriobeiti, Berriozar, Burlata, Eguesibar, Erro, Estella-Lizarra, Esteribar, Etxauri, Galar, Gares, Imotz, Luzaide, Odieta, Oltza Zendea, Orkoién, Uharte, Ultzama, Zizur Nagusia.

**Mankomunitateak:** Irantzu, Izarbeibar, Sakana.

**Batzorde Nagusiak:** Aezkoa, Erronkari, Zaraitzu.

### Laguntzaileak





## Ikastaroak eman nahi dituztenentzat izen-ematea zabalik

Interesatuak irailaren 6ra arteko epea dute proposamenak aurkezteko

### TTIPI-TTAPA

2019/2020 ikasturtean ikastaroren bat eskaintzeko interesadutenek, irailaren 6ra arteko epea dute beren proposamenak aurkezteko. Udalean egin beharko dute eskaintza eta baldintza gisa autonomia izatea eta ikastaroaren des-

kribapen zehatza egitea eskatu da: ordutegia, prezioa, iraupena, nori zuzendua dagoen... azaldu beharko dute. Gero aukeraketa egin eta izena emateko epea zabalduko dute. Pasa den urtean jump-fit, pilates eta total trainig ikastaroak eskaini zituzten.

## Profesionaletara saltoa egingen du Iker Salaberriak

Asperekin bi urtetarako kontratua sinatu du aurrelari gazteak. Hogei urterekin emanen du jautzia, azaroko bigarren asteburuan jokatzekoa baitu profesional mailako aurreneko partida.



ARGAZKIA: ASPE

## Ehun urte bete dira Donostiako Udalak Artikutzako lurrak erosi zituenetik

### TTIPI-TTAPA

Abuztuaren 28an, San Agustin egunez, Artikutzako ateak ireki zituzten beste behin ere. Egun osoko festa izan zuten eta asko izan ziren bertara egun-pasa joandako herritarak. Argazki-bilduma eskuragarri duzue erran.eus atarian.



ERRAN.EUSEN argazki gehiago.

### Urteurren berezia

2019a urte berezia da, aurreneko baitira ehun urte Donostiako Udalak Artikutza erosi zuela. Donostiako Udalak urteetan aritu zen jabeari ordaintzen bertako ura kalitate handiko-

tzat jotzen zenenez, hornikuntzarako erabili ahal izateko. 1919an erosi egin zuen lursaila 3.250.000 pezeta ordainduta, gaur egungo baliora ekarrita, 7,3 milioi euro inguru.



ARGAZKIA: FELIX LOIARTE

## Hamaika dantza, kontu eta kanta

Eguzki eta euri artean, festa giro betean ibili ziren herrian. Gazte Egunarekin hasi eta Peña Egunera arte izan zuten hamaika dantza, kontu eta kanta. Argazkiei erreparatu besterik ez dago zeinen giro ederrean ibili ziren ikusteko. Izenari izana zor, azken egunera arte umore onean.



UTZITAKOA

## Peña Egunean familia giroan

Azken urteetan, ohikoa bihurtu da Peña Eguneko bazkarian, emakumeak, edo aita-semeak, edo aita-alabak elkartzea. Aurreneko, bi gurasoak eta bi seme-alabak osatutako familia batek parte hartu du; Luis Zugarramurdi eta Mari Jose Osak bat egin zuten, Eider eta Mikel, seme-alabekin.



## Santioen aitzakian lau egunez izan dute herritarrek non gozatua

### OHIANA KALPARSORO

Festak bukatu zirenetik hila-bete pasa den arren, utzi zuten aho zapore gozoak irauten du oraindik. Uztailean 25ean hasi ziren festak eta lau egunez, haur, gazte zein helduek izan zuten non gozatua. Herri-kirolak, dantza taldearen emanaldia, bertso-saioa, txokolata jatea, mus txapelketa, tortilla lehiaketa, apar festa, bingio musikatua...

Aipatu behar da udaletxeko kontuak ongi baino hobeki ezagutzen dituzten herritarrak izan zirela festei hasiera emateko ardura izan zutenak; azken 44 urtetako alkateek piztu zuten suziria. Hala, herriaren alde egindako lana esker-tu nahi izan zieten herritarrek.



Glo paregabea izan da aurtengo festetan. OHIANA KALPARSORO

## Leitzako paper-fabrika ate-irekiak irailaren 21ean

Leitzako Torras paper-fabrika, garai bateko Sarrio, ezagutze-ko aukera eskainiko dute irailaren 21ean ate-irekien jardunaldia antolatu dute eta. Nahi duen orok bisita dezake lantegia, baldintza bakarra 10 urtetik gora izan eta aldeaz aurretik izena ematea izanen da. Horretarako, interesa duenak irailaren 9a baino lehen 620 86 14 77ra deitu beharko du, astelehenetik ostiralera 09:00etatik 17:00etara.

10:00etan irekiko dituzte ateak eta 17:30 arte taldetan banatuta antolatu dituzte bisitak. Zuzendariak harrera egingen die, fabrika osoa bisitatu eta erakusketa bat ere jarriko dute garai bateko argazki eta piezak biltzen dituen. Gaur egungo eta garai bateko lantegia erakusten duen bideo bat ere prest dute.

## Erakutsi eta probetu aukerak!

### DESKONTUAK LEITZALDEA TTIPI TXARTELA

|                                                                                                                          |                                                                                                                 |                                                                                                                                                                                        |                                                                                                                                       |                                                                                                             |                                                                                                           |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <p><b>%5</b> DESKONTUA<br/>30€tik gorako erosketetan</p> <p>Huarte Goizaia, 19   LEITZA<br/>T. 948 51 01 73</p>          | <p><b>%5</b> DESKONTUA<br/>30€tik gorako erosketetan</p> <p>Huarte Goizaia, 19   LEITZA<br/>T. 948 51 01 73</p> | <p><b>%5</b> DESKONTUA<br/>30€tik gorako erosketetan<br/><b>%10</b> DESKONTUA<br/>50€tik gorako erosketetan ESTMEDERM markan ezik</p> <p>Elbarren, 67   LEITZA<br/>T. 948 51 02 73</p> | <p><b>%10</b> DESKONTUA<br/>koltxo, somier eta burkoetan. Eskaintzetan izan ezik</p> <p>Elbarren, 45   LEITZA<br/>T. 948 51 02 08</p> | <p><b>%10</b> DESKONTUA<br/>30€tik gorako erosketetan</p> <p>Landa Behekoa   LEITZA<br/>T. 948 51 04 37</p> | <p><b>%3</b> DESKONTUA<br/>30€tik gorako erosketetan</p> <p>Elbarren, 21   LEITZA<br/>T. 948 51 00 55</p> |
| <p><b>%10</b> DESKONTUA<br/>oparitzeko artikuluetan</p> <p>Elbarren, 15 - Herriko Plaza   LEITZA<br/>T. 948 51 01 46</p> | <p><b>%5</b> DESKONTUA<br/>25€tik gorako erosketetan</p> <p>Elbarren   LEITZA<br/>T. 948 51 09 74</p>           | <p><b>%5</b> DESKONTUA<br/>gozotegian 30€tik gorako erosketetan</p> <p>Elbarren, 20   LEITZA<br/>T. 948 51 07 20</p>                                                                   | <p><b>%15</b> DESKONTUA<br/>bainugelako osagarrietan</p> <p>Elgoien, 32   LEITZA<br/>T. 948 51 00 86</p>                              | <p><b>%5</b> DESKONTUA<br/>30€tik gorako erosketetan</p> <p>Elbarren, 36   LEITZA<br/>T. 948 51 09 76</p>   | <p><b>%5</b> DESKONTUA<br/>erosketa guztietan</p> <p>Elbarren, 19   LEITZA<br/>T. 948 51 07 48</p>        |
| <p><b>%10</b> DESKONTUA<br/>hamar saloko bonoan</p> <p>Huarte Goizaia, 8-3.C   LEITZA<br/>T. 948 51 07 30</p>            |                                                                                                                 |                                                                                                                                                                                        |                                                                                                                                       |                                                                                                             |                                                                                                           |



## XI. Stock azoka irailaren 14an eta 15ean egingen dute

Kaxkabeltza elkarteko kideek udaberri-udako salgaiak plazaratuko dituzte beherapen bereziekin

### TTIPI-TTAPA

Kaxkabeltza elkarteko kideek XI. Stock Azoka egingen dute iraileko hirugarren asteburuan. Elkarteko sei komertziok parte hartuko dute azoka berezian, udaberri-udako salgaiak beherapen bereziekin plazaratuz. Hain justu, Kulunka haurrentzako arropa eta oinetako denda, Leitza Kirolak, Garbi-lurrindegia, Bi pauso oinetakoak, Biok jantziak eta Kapritxo arropa eta osagarri denda izanen dira azokan parte hartuko dutenak.



Sei komertziok parte hartuko dute.

### Plazan edo pilotalekuan

Eguraldiaren arabera zehaztuko dute azokaren kokalekua; eguraldi ona egiten badu, plazan jarriko dituzte postuak eta euria egiten badu Amazabal pilotalekuan. Larunbatean 10:00etatik 19:00etara eta igan-

dean 10:00etatik 14:00etara egonen da zabalik. Erosketak egiten dituztenak saritzeko zerbait prestatzeko asmoa dutela aipatu dute antolatzaileek.

## Taloaren bueltan egun osoko pesta antolatu dute irailaren 22rako

### TTIPI-TTAPA

Saralegitarrek eta Billabona-tarrek, arto-irina prest izanen dute dagoeneko irailaren 22an, igandean, ospatuko duten XV.Talo Egunerako. 10:00etan emanen diete hasiera pestari eta artisauek postuak ez dira faltako plazan.Karrapean, tresna zaharren erakusketa ere izanen da. Hitzorduarekin bat eginez, herriko ostalariek taloekin gutuziak prestatuko dituzte. 13:00etan eskualdeko talo lehiaketa izanen da eta ondoren sariak banatuko dituzte. 16:30ean, berriz ere,



Taloak salgai egun osoz. N. MAZKIARAN

talogile eta artisauek plazaratuko dira. Eguna irrintzi lehiaketarekin borobilduko dute, 18:00etan. Talo eta irrintzi lehiaketarako izen-ematea 11:00etan zabalduko da.



ARGAZKIAK: PABLO FEO ETA NEREA MAZKIARAN (D.NOTICIAS)

## Irudi ederrak pesten erakusle

Plaza bete jende ibili da pestetan. Eguneko zein gaueko ekitaldietan parte-hartze handia izan da. Dantzariak eta musikariak, herritar eta bisitariak, giroa ederra izatea bermatu dute. Udalak eskerrak eman nahi izan dizkie antolatzaile lanetan aritu diren dozenaka herritarrei.

## Plazaolako Natur Bideko maratokia eta maratoi erdia irailaren 15ean

### TTIPI-TTAPA

Trenaren pasabidea zena, lasterkariz beteko da irailaren 15ean, igandean. Orduan jotuko dituzte Plazaola Natur Bideko IV.maratokia eta XII. maratoi erdia. Aurreko urteetako ibilbide bera egingen dute lasterkariak; maratokia Lekunberritik abiatuko da eta maratoi erdia, berriz, Leitzatik, biak 09:00etan. Bateko zein besteko lasterkariak, Andoainen izanen dute helmuga.

Ibilbidea lineala eta behe-ranzkoa da; eta solido eta likidoen anoa-guneak izanen

dira bost kilometroro. Larrial-di plana ere prestatu dute. Parte hartzaileei asfaltorako zapatilak eramatea gomendu diete eta tunel luzeenak argiztatuta egonagatik, kopeta-argia eramatea derrigorrezkoa izanen dela jakinarazi dute.

Interesa duenak [www.maratonviasverdes.com](http://www.maratonviasverdes.com) webgunean eskura dezake probaren inguruko informazio osagarria. Izena emateko ere web orrialdea baliatu dezakete edo nahia-go badute Leitza Kirolak denda bete dezakete izen-emate orria.



# Ez izan zalantzarik, BirziklApp!



## App honek hondakinak bereizten lagunduko dizu, birziklatzeko

Zalantzan zaude eta ez duzu argi non utzi hondakin mota batzuk? Jakin nahi al duzu nola birziklatzen diren ondoren? Inoiz baino errazagoa da; hartu zure mugikorra, ireki BirziklApp eta argitu zure zalantzak.

Begiratu

[www.reciclapp.navarra.es](http://www.reciclapp.navarra.es)



Android



Iphone

Jaitsi doan!!

Bultzaileak

Laguntzaileak

Oficina de Prevención  
de Residuos y de Impulso  
a la Economía Circular  
Hondakinak Prebenitzeko  
eta Ekonomia Zirkularra  
Bultzatzeko Bulegoa

Navarra  
Gobernua

Ministerio de  
Medio Ambiente

Ministerio de  
Energía y Medio Ambiente

Ministerio de  
Energía y Medio Ambiente

Ministerio de  
Energía y Medio Ambiente

Ministerio de  
Energía y Medio Ambiente

Ministerio de  
Energía y Medio Ambiente

Ministerio de  
Energía y Medio Ambiente

Ministerio de  
Energía y Medio Ambiente

Ministerio de  
Energía y Medio Ambiente

Ministerio de  
Energía y Medio Ambiente

Ministerio de  
Energía y Medio Ambiente

Ministerio de  
Energía y Medio Ambiente

Ministerio de  
Energía y Medio Ambiente

Ministerio de  
Energía y Medio Ambiente

Ministerio de  
Energía y Medio Ambiente

Ministerio de  
Energía y Medio Ambiente

Ministerio de  
Energía y Medio Ambiente

Ministerio de  
Energía y Medio Ambiente

Ministerio de  
Energía y Medio Ambiente

Ministerio de  
Energía y Medio Ambiente

Ministerio de  
Energía y Medio Ambiente

Ministerio de  
Energía y Medio Ambiente

Ministerio de  
Energía y Medio Ambiente

Ministerio de  
Energía y Medio Ambiente

Ministerio de  
Energía y Medio Ambiente

Ministerio de  
Energía y Medio Ambiente

Ministerio de  
Energía y Medio Ambiente

Ministerio de  
Energía y Medio Ambiente

Ministerio de  
Energía y Medio Ambiente

Ministerio de  
Energía y Medio Ambiente

Ministerio de  
Energía y Medio Ambiente

Ministerio de  
Energía y Medio Ambiente

Ministerio de  
Energía y Medio Ambiente

Ministerio de  
Energía y Medio Ambiente

Ministerio de  
Energía y Medio Ambiente

Ministerio de  
Energía y Medio Ambiente

Ministerio de  
Energía y Medio Ambiente

Ministerio de  
Energía y Medio Ambiente

Ministerio de  
Energía y Medio Ambiente

## Egur loteen zerbitzuan aldaketak egin ditu Udalak

Gastu errealarari aurre egin ahal izateko prezio berriak finkatu behar izan dituzte

### TTIPI-TTAPA

Herriko lurretan hazitako egurrari aterabidea eman eta herritarrei sutarako aprobetxatzeko aukera emateko, egur loteen zerbitzua eskaintzen hasi zen Udala duela hainbat urte. Azken urteetan, baina kezka-iturri izan da Udalaren tzat.

Batetik, loteak ateratzeko enpresak kontratatzeak arazoak izan dituztela azaldu dute: «15 enpresei bidali zaie gonbidapena eta epe barruan ez dugu aurrekonturik jaso. Azken urteetan zerbitzua eman duen enpresari behin eta berriz eskatu ondoren lortu dugu aurrekontu bat bidaltzea». Gainera, loteak ateratzeko pista bat ireki behar dela ikusita, «lotearen gastua igotzea dakar». Zerbitzua ematen segitzeko, «gastu erreala tapatzeko adi-

na sarrera lortu beharko du Udalak» eta horregatik, aurretik lotea pista hartzeara, 215 euro kostako da (iaz 90) eta lotea etxera edo baserrira eramatea 248 euro (iaz 190).

### Mendian eroritako zuhaitz edo adarrak

Mendian eroritako zuhaitzak edo adarrak banatzeko moduan ere aldaketak iragarri dituzte. Herritar guztiei eman nahi diete aukera eta interesa duenak izena eman beharko du. Gero, zozketa bat egingo dute egurra hartzeko ordena finkatzeko. Ordenaren arabera banatu eta dagokion kopurua ordaindu beharko dute. Egurra norbere kontsumorako erabili beharko da. Arauak hausten dituenaren neurriak hartuko dituztela ere iragarri du Udalak.



UTZITAKOA

## Esther Tolosak irabazi du I. Lore lehiaketa

Hamahiru parte-hartzaile izan ziren eta herritarrek hala erabakita Larreako Esther Tolosaren loreak izan ziren irabazleak. Oilleneako Amaia Aizagirrenenak geratu ziren bigarren postuan eta Zubidiko Txaro Goikoetxearenak hirugarren postuan. Loreak erosteko erosketa-txartelak izan zituzten saritzat.

## 19. txapela lortu du Alustizak Uharte Arakilen

Jai eta Aske txakurrekin ongi baino hobeki moldatzen dela erakutsi zuen beste behin ere Alustizak Uharte Arakilgo Artzain Egunean. Abuztuaren 25ean lehenengo eta bigarren postuak eskuratu zituzten.



UTZITAKOA



E. IRAOLA ETA J. OLAZABAL

## Gorputza ederkiki astindu dute herritarrek pestetan

75 urtetik gorako emakumeen eskutik lehertu zen pesta eta haiek emandako txispa bereziagatik akaso, bizi-bizi ibili dira herritarrak pestetan. Herri-krosean, herri-kiroletan, dantzan, kuadrillen eguneko jolasetan... giro bikaina izan dute.

## Kirol-ikastaroetako izen-ematea irailaren 13an

Urriaren 1etik maiatzaren 25era arte hainbat ikastaro eskainiko dituzte herrian. Pilates klaseak astelehenetan eta asteazkenetan izango dira 15:30etik 16:30era. Ttikienek, Mugimenduarekin jolasean ikastaroa izango dute asteazkenetan 16:00etatik 17:00etara eta LHko 1. mailatik 5.era artekoek Kirolean hastapena, astelehen eta asteazkenetan 17:00etatik 18:00etara. Kirol Mankomunitateko teknikaria irailaren 13an goiz eta arratsaldean egongo da udaletxean izen-emateak egiteko.



# IKASTURTE HASIERA 2019



## Erronka berriei ekiteko sasoia

*Ekaitzaren ondotik barealdia* datorrela dio esaera zaharrak, baina irailean kontrakoa gertatu ohi da. Udako atsedendiaaren ondotik, gorputza astindu eta burua lanean jartzeko tenorea baita.

Motxila bizkarrean jarri eta eskolarako bidea hartuko dute batzuek, lagun berriak egin, lagun zaharrekin elkartu... bizitzaz beteko dira ikasgelak. Mingaina eta boligrafoa jarriko dituzte bertzeek dantzaz, hizkuntzaren batean trebatu edota berriren bat ikasi asmoz. Bide horretan lagundu eta ikasgelara prest joateko, beharrezko eskola-material guztia eskualdeko komertzioetan izanen dute eskura.

Kirola eta ongizatea eskutik doazenez, hainbat irakurlek kiroldegi edo akademiek eskaintzen dituzten ikastaroetan emanen dute izena. Eskaintza zabala izanen dute aukeran norberaren beharrei, ezaugarri fisikoei, helburuei... hobe-  
kien egokitzen dena aukeratu ahal izateko. Hasiberriak izan edo goi-mailako kirolariak, punta-puntako profesionalak izanen dituzte bidelagun. Eta inor hasiera honetan baldin badoa arrastaka... animo! Lehenbiziko pausoa eman ondotik, aldapa txikiagoa da eta!

**XAGU**  
**LIBURUDENDA**  
Tel. / Fax 948 638 232  
Koskontako bidea, 7  
(osasun-zentroaren parean)  
31770 LESAKA

- PAKETEAK JASOTZEKO GUNEA
- LIBURUDENDA
- KOLORETAKO FOTOKOPIAK
- USBURU EGINDAKO INPRIMAKETAK
- ESKANERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGORAKO MATERIALA
- EGUNKARIAK, ALDIZKARIAK

**Angie**  
ENGLISH ACADEMY  
Cambridge English  
Teacher

T. 626 908 076  
angieacademy@gmail.com  
Elizagibela, 7 behea  
31740 DONEZTEBE

Cambridge English  
Exam Preparation Centre  
Angie English Academy

8 urtetik aurrera.  
**HAUR - GAZTE - HELDUAK**  
Hasiera mailatik:  
**A1 - A2 - B1 - B2 - C1 - C2**

Cambridgerako azterketa ofizialak  
prestatzen ditugu hagitz emaitza onekin.  
Itzulpenak ere egiten ditugu.

2019-2020 kurtsoarako **MATRIKULAZIO EPEA ZABALIK**  
Plaza mugatuak | Ikasturte hasiera: **IRAILAK 16**

**AniNote**  
Amazabal Kalea, 39 LEITZA  
T. 948 510 719

**Laster denboraldiko ikastaroen  
eskuorria etxean izango duzue**

**IRAILEAN AUKERA EZIN HOBEA:**

- Irailean bazkide egiteko sarrera DOHAINIK  
(urte bateko iraunkortasunarekin)
- BAZKIDE izanda ikastaroetan sartzeko  
LEHENTASUNA eta prezioetan **ABANTAILAK** izanen dituzu.

**2019-2020**

**TOKI ONA**  
UDAL KIROLDEGIA  
Laster eskuorria zuen etxean

IZEN-EMATEA  
Irailaren 16tik 22ra  
Ordutegia 11h-14h / 16h-21h

**Urte Berria**

**Berako Toki-Ona kiroldegia** @berakiroldegia  
INFORMAZIOA: 948 630 215 • bera@urdisl.com



**Eskaintza berezia!**

LESAKAKO UDAL KIROLDEGIA

**Irailaren 7 edo 8an**  
abonatu gero,  
**%50eko** deskontua matrikulan

www.lesakakoudalkiroldegia.com

Komentu kalea, 2 · LESAKA · T. 948 637 400 · kiroldegia@lesaka.eus

**AULKI ARIKETAK**  
- DONEZTEBE -

Edozein adin, egoera fisiko edo muga duten pertsonentzako.  
Etorri eta ezagutu **EGIN DEZAKEZUNA**.

ANA TOVAR  
(Tel. 679 210 910)

Astelehenak eta ortziralak  
**11:00 > 12:00**

**JOSEPHINE'S ENGLISH**  
**Bertako irakaslea**

**TALDEAK: HAUR, GAZTE eta HELDUAK**

Lehen hezkuntza 6. mailatik goiti  
DBH eta Batxilergoa  
Helduentzako 3 maila: hasierakoa, tartekoa eta aurreratua

Christina Irigoyen  
M. 637 176 572 · Santiago, 38 Elizondo  
josephinesenglish@gmail.com

www.englishya.es

**INGELERAZ BIZI**  
AKADEMIA

Urteetako esperientziadun irakasle adituak  
Eskolaz kanpoko laguntza  
Taldea txikiak, 5 ikasle gehienez  
Azterketa ofizialerako prestaketa (Cambridge, EOIE, TOEFL, IELTS):

Maila guztiak  
Umeak, 3 urtetik aurrera  
Gazte eta helduak  
Matrikula doan  
Plaza gutxi  
**Deitu orain!**

Baztan Berri Plaza, 1 - behea | ELIZONDO | T. 660 731 901  
info@englishya.es

# Nola egiten diozu aurre ikasturte hasierari?



**Marta Alzugarai De Santiago**  
Lesaka



**Beñat Saralegi Izagirre**  
Leitza

Kiroldegiko motxila dagoeneko prest izanen du Martak, spinningeko oinetakoak jantzi eta pilateseko baloi gainean jartzeko «gogoz» dago eta. Kirola egitea, «hagitz ongi» heldu zaiola gaineratu du «fisikoa lantzeko eta burua pixka bat arintzeko». Kiroldegian hasieratik izena eman bazuen ere «tarteka» joaten omen zen, duela lau bat urte ikastaroetan izena eman zuen arte: «izena emanda obligazio puntu bat duzu eta konstanteagoa zara». Eta ez hori bakarrik, talde-giroa ere lagungarria da bere ustez, «taldean gustura egoten gara, giro hagitz polita dugu, irri batzuk egiten ditugu eta bertzenaz harremanik ez zenuen jendearekin egoteko aukera ere ematen dizu». Batez ere, negu garairako iruditzen zaio aukera aproposa «negua sobera luzea da, eguraldia ez da hain ona... eta baduzu plan bat». 3, 2, 1... ekin! Eta animo hasierako giharminekin.

Udako atsedenaren ondotik, hasten da zoramena; ongi baino hobeki daki hori Beñatek. Hiru seme-alaben aita izanik abuztu bukaeraz geroztik «nahikoa lan» izaten dutela aitortu digu: «ikasturtea hasi aurretik eskolarako behar duten materiala eskuratu behar izaten dugu. Ez da merkea izaten eta poltsikoan ere ederki nabaritzen da iraila dela». Ikasturtea hasitakoan, berriz, ordutegiak egokitzea izaten da aurreneko lana: «lanean ari gara bikoitea eta biok eta eskolako ordutegiak, egokitzen ari gara, gure laneko ordutegia... guztia bat etortzea ez da erraza izaten askotan». Urrian hasten dira eskolaz kanpoko jarduerekin, «igeriketara, musika eskolara eta guraso elkarteak antolatutako ekitaldietara joaten dira. Hori guztia lotu ondotik, ahal dugunean guretzat hartzen dugu tartetxo bat». Ez dira hasiberriak eta ziur aurtengoan ere topatuko dutela guztia ongi lotzeko formula.

*Margotu, erlaxatu eta disfrutatu!*



**Iciar Mikelperizena**

**INSKRIPZIO EPEA ZABALIK** - 0€ - Plaza mugatuak

- 7 urtetik aurrera, gazte eta helduendako
- Arkupeko bazkideek 35€
- Ez da beharrezkoa esperientzia izatea

*Zatoz margotzera!*

T. 661 010 416 | mikelperizena@gmail.com

BERA

DONEZTEBE

ELIZONDO





- Liburuak
- Akademiak
- Kiroldegiak



**Inma Ibarrola Mariezkurrena**  
Doneztebe

Ilusioa eta beldurra. Biak aipatu ditu Inmak ikasturte hasieraz galdetutakoan: «beti izaten dut kurtso hasieran ilusioa, baina Batxilergoko bigarren mailan hasiko naiz aurten eta, zaila dela diotenez, beldur pixka bat ematen dit». Izan ere, ez du batere gustuko «etxean sartuta, ikasten orduak pasa behar izatea». Gauzak egin zalea da, argi dio: «ez dut aspertzeko denborarik eduki nahi» eta horregatik, eskolaz kanpoko hainbat jarduerak egiten ditu: «ingeleseko eta matematikako klaseetara joaten naiz, osagarri bezala, eta euskal dantzetan ere banabil». Horretaz gain, «astean behin herriko bertze emakume batzuekin elkartzen naiz korrika egitera joateko». Gauza berriak probatu zalea ere bada, hala aipatu digu, «aurten badut asmoa lagun batekin igeriketan has-teko». Agenda bete-betea izanen du eta badaki, «guztia egin ahal izateko, ongi antolatu» beharko duela.



**Rosa Mendiburu Gillenea**  
Elizondo

Urte osoan bezalaxe, harat eta honat ibiliko da Rosa irailean: «galdetu izan didate ba ote dakidan aspertzen... eta nik uste jakinda ere ez nukeela astirik izanen!» erran digu irrika. Zein afizio dituen galdetuta aipatu digu: «bertzeak pozik ikusteak egiten nau zoriontsu eta horregatik psikiatrikoan laguntzaile, Arkupeakeko Elizondoko ordezkari... lanetan aritzen naiz». Azken horri lotuta, lan gehixeago izaten omen du ikasturte hasieran, «bidaia batzuk koordinatzeaz arduratzen naiz eta yoga taldean hasi nahi dutenen zerrenda osatzeaz». Antolatu soilik ez, bere burua zaintzeko ere hartzen du tarte, «yogara joaten naiz asteartetan eta ortzegunetan eta luzaketa ikastaroetara ortzirale goizetan». Batean zein bertzean «hagitz gustura» ibiltzen dela azpimarratu du: «egiten dudana ez da derrigorrezkoa, nahi dudalako egiten dut eta hori da gustura aritzeko sekretua».

**GILTXAURDI**  
UDAL KIROL INSTALAZIOA

2019-2020. urteko kirol jardueretan IZENA EMATEKO EPEA:

- Irailaren 17tik aitzinera Baztanen erroldatuak
- Irailaren 19tik aitzinera gainerakoak

Jardueren liburuak etxera iritsiko zaizue!!

Informazioa: 948 452 301  
giltxaurdi@baztan.eus

Baztango Udala

**NURSTUDIO PILATES**

Irailaren 9an irekiko dugu

PILATES  
K-STRETCH  
GAHF HIPOPRESIBOAK

**ORDUTEGIA**  
Astelehena-ortzeguna:  
9:00, 10:00, 11:00, 14:30,  
18:30, 19:30, 20:30  
Asteazkena:  
arratsaldez bakarrik  
Ortzirala: goizez bakarrik  
Larunbata eta igandea: ixrita

Rosa Seminario 7 • **DONEZTEBE**  
627 039 233 • nurfuejo@gmail.com

Ballet | Hip Hop | Danza Jazz | Pilates | Aerodance...

Maila eta adin guztiak - Taxi zerbitzua - Irakasle tituluak

Ikasturtearen hasiera: **Irailak 9**

Doneztebe 607744199

rebeca

**YOGA**

ANA TOVAR  
(Tel. 679 210 910)

**DONEZTEBE**  
Astelehenak  
09:15 - 10:45  
14:45 - 16:15  
17:30 - 19:00  
Asteazkenak  
Meditazioa / Mindfulness: 07:00 - 07:30

**AEROYOGA**  
DONEZTEBE  
Astelehenak  
19:30 - 20:30  
Astearteak  
20:15 - 21:15

**ZUBIETA**  
Asteazkenak  
18:30 - 20:00

**BERA**  
Ostiralak  
18:30 - 20:00

Haurrentzako yoga para niños  
Astearteak  
18:30 - 19:30

**sare**  
akademia

DBH ETA BATXILERGOA  
- MATEMATIKA, FISIKA ETA KIMIKA

LEHEN HEZKUNTZA  
- ERREFORTZU KLASEAK IKASGAI DESBERDINETAN

Talde-ixkilitan eta jarraipen pertsonalizatuarekin.  
2019-2020ko ikasturterako apuntatzeko epea zabalik.

INFORMAZIO GEHIAGO:  
T. 815561458 (Nerea)

Emaila: akademiasare@gmail.com  
Web orria: sites.google.com/view/sareakademia  
Leitzako errepidea 29  
31740 Doneztebe

Elkartekin ikasiko dugu!



Joan den urteko saridunak. ARTXIBOKOA

## Pirinioetako behi-aziendaren lehiaketa irailaren 21 eta 22an

Lehiaketa-enkante nazionalaren XXXII. edizioa izanen da aurtengoa

### TTIPI-TTAPA

Pirinietako behi-aziendaren lehiaketa-enkantea egiteko hitzordua zehaztua dute Elizondon. Aurten XXXII. edizioa beteko du eta aziazaleak irailaren 21ean eta 22an, larunbatean eta igandean, bilduko dira herriko merkatu plazan.

### Irailak 21, larunbata

09:00etan abelburuen txanda kalifikatzaileak hasiko dituzte eta arratsaldean, 17:30etik 20:00etara, azia erakustaldia egingen dute. Bien bitartean, goizez, 10:00etatik 14:00etara, eta arratsaldez, 17:00etatik 20:00etara, Baztango artisauek mimoak lan-

dutako produktuak eta nekezarritza elikagaiak plazaratuko dituzte.

### Irailak 22, igandea

Goizean goizik hasiko dute eguna. 09:00etatik 12:00etara, behi-aziendaren erakustaldia egingen dute. Erakustaldiaz gozatu artean, 11:30ean hasita, Nafarroako aratxe haragia eta gazta dastatzeko aukera izanen dute.

12:30ean behi-aziendaren enkantea egingen dute. Segidan, 13:00etan, azia lehiaketako sariak ez ezik, argazki lehiaketakoak banatuko dituzte. Goiz osoz, 10:00etatik 14:00etara Baztango artisauen produktuak eta elikagaiak erosteko aukera eskainiko dute.

## 592.622,24 euroko inbertsioak Zigan eta Zigaurren

Udalak Ziga eta Zigaurreko argiteri publikoa aldatzeko eta Zigaurreko ur-hornidura eta saneamendua berritzeko eta zerbitzuen lurperatze eta zolaberritzea egiteko 592.622,24 euroko inbertsioa egin du. Nafarroako Gobernutik %60ko dirulaguntza jaso dute. Lanen artean aipagarria da Ziga eta Zigaurreko karrikako argiteri guztia aldatu duela Udalak, azpiegituran hobekuntza eta aldaketak egin bidenanbar, energia kontsumoa eraginkorragoa eta apalagoa izateko LED bonbillak paratuz.

## Sumangaliko neska esplotatuei buruzko erakusketa zabalik

*Sumangali. Ehungintza-industriak esplotatzen dituen nesken drama* argazki-erakusketa zabalik da irailaren 13ra, ortziralerara, arte Arizkunenea Kultur Etxean. Astelehenetik ortziralerara bisitatu ahal da, arratsaldez, 17:00etatik 20:00etara.

## Herri arteko txirrindulari gazteen topaketa Anizen irailaren 8an

### MAITANE MARITORENA

Herri arteko txirrindulari gazteen topaketak aurtengo borzgarren hitzordua izanen da igandean Anizen. Aitzinetik Lesaka, Irurita, Bera eta Donezteben egin dituzte. Izen ematea egunean berean izanen da 16:00etan, eta ordu bete beranduago, 17:00etan, hasiko dira itzuliak. Parte-hartzaileak, adinaren arabera, bortz kategoriatan arituko dira: tikiak, haur benjaminak, benjaminak, kimuak eta haurrak. Ondotik, partaideen artean zozketa egingen dute.



Doneztebeko topaketan.


Apirilean hasi zen berriz ere martxan Baztandarra Txirrindulari Taldea. Anizko zazpi haurrek parte hartu dute eta erakustunetako bat, Iñaki Zelaieta, ere aniztarra da.

## Baztango Udalak Amaiurko bisitarien etxea egiteko lanak eman ditu

### TTIPI-TTAPA

Amaiurko gazteluaren bisitarien etxeko lehen fasearen lanak Arakan enpresari eman zizkion Baztango Udalak, abuztuaren 19an egindako Tokiko Gobernu Batzordean. Arakanen eskaintza 191.101 eurokoa (BEZ gabe) zen, lizitazioarako aurrekontua, berriz, 199.063,65 eurokoa (BEZ gabe).

Lehendabiziko fase honetan kooperatiba zaharra urratu beharko dute, amiantoaren duen uralitazko teilatua barne. Bertzalde, linea elektrikoa tokiz aldatu eta ingurua eraikuntza



Azaroaren 7rako akitu beharko dute.

fasearekin hasteko prest utzi beharko dute.

Lanak Nafarroako Parlamentuak emandako 250.000 euroko dirulaguntzarekin finantzatuko du Baztango Udalak.





BRTeko kideak hasiak dira dagoeneko lanean. BRT

# Seniorren errugbi taldea osatzea lortu du BRT-Menditarrak

Garai bateko jokalaria batzuk bueltatu eta kide berriak ere animatu dira

**TTIPI-TTAPA**

Abuztuaren 23an bildu ziren taldea osatzeko nahiko jende izanen ote zuten jakiteko eta garai bateko jokalaria batzuk bueltatu eta kide berriak ere animatu direnez, senior mailako taldea izanen du BRT-Menditarrak. Euskal ligan izena emanen dute eta «lehian hasteko gogotsu eta ilusioz» daudela adierazi dute.

Orain artean bezalaxe, Xabi Urrutia arduratuko da taldearen alderdi fisikoaz, Peio Orbegozoren esku geldituko dira arlo teknikoko kontuak eta, horiekin batera, Mariano Iri-

barren ere entrenatzaile lanean ariko da.

**Parte hartzeko deia**

Gaztetxoak ere lanean hasiak dira dagoeneko. 18 urtez azpikoetan eta 16 urtez azpikoetan Irungo Txingudi errugbi taldearekin batera ariko dira lehian. Ttikienak, berriz, Iñaki Ezkurra eta Aitor Mutilvaren gidaritzapean errugbiaren inguruko sekretuak ikasten hasiko dira. Deialdia ere egin dute, «norbaitek kirol hau probatu nahiko balu, asteazken eta ortziraletan 19:00etatik 20:30era du aukera».

## 'Euskararen genesiaz' liburua aurkeztuko dute Elizondon hilaren 27an

**TTIPI-TTAPA**

Juan Migel Munarrizek idatzitako *Euskararen genesiaz* liburuaren aurkezpene egingen dute irail bukaeran Elizondon. Kultura Batzordeak antolatutako hitzordua irailaren 27an, hondarreko ortziralean, 19:00etan dute, Arizkunenean.



Juan Migel Munarriz. JM ONDIKOL



JM.ONDIKOL ETA M.PETRIRENA

## Giro ederra Oronoz-Mugairiko bestetan

Soinu eta dantza, giro ederrean, ibili dira Oronoz-Mugairiko herritarrek abuztuaren 14tik 17ra herriko bestetan. Txupinazoa lehertu zen momentutik hainbat joko, txapelketa, otordu eta emanaldiz gozatu zuten haur, gazte eta helduek.



IXABEL ALEMAN

## Mihura garaile artzain txakur txapelketan

Abuztuaren 14an ilunabarrean hasi zituzten Amairuko bestak. Juan Mihurak irabazi zuen egun handian ospatu zen artzain zakur txapelketaren XLIV.edizioa. Ortziralean haurrendako puzgarriak eta apar besta izan zituzten. Gazteek elkartearen afaldu zuten. Zikiroan jendetza bildu zen.



Larunbat eguerdian zikiri jatea izanen dute. LAURA JAEN

## Elbeteko bestak irailaren 12tik 16ra izanen dituzte

Ortziraleko paella jaterako eta Santa Kruz Egunekeo zikiri jaterako txartelak irailaren 8a baino lehen eros daitezke

### TTIPI-TTAPA

Heldu den ortzegunean, irailak 12, 18:00etako txupinazoa-ekin abiatuko dira Elbeteko bestak. Aitzinetik, hala ere, 16:30ean, mus txapeketa jotatuko dute, frontoian. Bortz egunez, haur, gazte eta helduek hainbat ekitaldiz gozatzeko aukera izanen dute.

### IRAILAK 12, ORTZEGUNA

16:30ean mus txapelketa frontoian (15 minutu lehenagotik izen-ematea). 18:00etan txupinazo eta japoniar bonbak beste hasmenta emateko. Ondotik Txikitxopogoratzea,

herriko gaztetxoek txopoa goitituko dute. 19:00etan Franxixkorekin dantzaldia. 21:00etan Zopak Franxixkorekin eta 00:00etan txopo goratzea. Ondotik Franxixko Posadan.

### IRAILAK 13, ORTZIRALEA

09:00etan dianak. 14:30ean paella jatea frontoian eta postre lehiaketa (txartelak Posadan salgai irailaren 8a arte). Segidan *Grand Prix* ikuskizuna Tuku-Tuku Txarangarekin. 20:30ean La Jodedera musika taldearen kontzertua. Ondotik xingar jatea. 22:00etan karao-

kea. Gauerdian Kaiku's Night taldearen emanaldia.

### IRAILAK 14, LARUNBATA SANTA KRUZ EGUNA

09:00etan dianak. 11:30ean meza. Ondotik luntxa. 14:30ean zikiri jatea (txartelak Posadan, Julin eta Intzan salgai irailaren 8a arte). Ondotik dantzaldia. 21:00etan xingar-jatea. 22:00etan zozketa. 23:00etatik aitzinera Fun&Go taldearen dantzaldia. 02:30ean Tirri&Tery.

### IRAILAK 15, IGANDEA

09:30ean dianak. 11:00etatik 13:00etara puzgarriak. 14:00etan haurren bazkaria Posadan (Posadan eman behar da izena). 16:00etatik 19:00etara puzgarriak. 18:00etan txokolata beroa. 19:00etan Hauspolariek taldearekin dantzaldia.

### IRAILAK 16, ASTELEHENA

14:00etan beste akabaila emateko Karrikatxarreko bazkaria.

## Gaita edo atabala ikasi edo ahotsa trebatzeko saioak urritik aitzinera

### TTIPI-TTAPA

Ikasturte hasierarekin batera, ikastaroak prest dituzte Baztanen. Udaleko Kultura Batzordeak gaita eta atabala ikasteko aukera luzatu die musikazaleei. Atabala saioak zortzi urtetik goitikoei bideratuak dira. 20 orduko ikastaroa izanen da eta Arizkunenean bilduko dira larunbatetan 09:00etatik 10:00etara. Saioak urriaren 5ean hasiko dira. Egun berean hasiko da gaita ikastaroa. Gaita-jotzaileak ere larunbatetan bilduko dira 09:00etatik 10:30era. Izen emateak Arizkunenean egin behar dira (atabala ikastaroa 60 euro Baztanen erroldatuek eta 80 gainerakoek; gaita saioak, berriz, 90 euro erroldatuek eta 120 erroldatu gabeek).

### Ahots teknika eta abesbatza ttikia

Elizondoko abesbatzaren eskutik, ahots teknika lantzeko aukera izanen dute astelehenetan. 18:00etan, 19:00etan eta 20:00etan izanen dira klaseak, Arizkunenean (izen-ematea 670 32 21 37). Abesbatza ttikia, berriz, Iruritan bilduko da, asteazkenetan. 18:00etan ttikien txanda izanen da eta 18:30etik 20:00etara koxkorrena (izen-ematea 620 22 84 55).



## ELBETEKO POSADA

Ongi pasa bestak!

- Eguneko menua
- Plater konbinatuak
- Asteburuetan karta

**ELBETE** • Karrikaundi • T. 948 581 519  
[info@posadaelbete.com](mailto:info@posadaelbete.com) • [www.posadaelbete.com](http://www.posadaelbete.com)

Ohariz Auzoa z/g · LEKAROZ  
T. 948 452 143 · 948 452 449  
[info@harrilan.com](mailto:info@harrilan.com) [www.harrilan.com](http://www.harrilan.com)

**HARRI LAN, S.L.**  
ESTRUTURA DE HERRI

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

BAITA HORMIGOI INPRIMATUA ERE







Xanti Altzuguren, Jasone Astibia eta Xabi Torres aurkezpenean. UTZITAKOA

## Ibilbide etnografikoak bilduz eskuorria eta gida egin dituzte

'Baztango Paisaia Kulturala eta Ondare Etnografikoa Ezagutzeko Ibilbideak' eskuorria eta gida argitaratu du Udalak

### TTIPI-TTAPA

*Baztango Paisaia Kulturala eta Ondare Etnografikoa Ezagutzeko Ibilbideak* eskuorri eta gida argitaratu du Udalak. Lana Xanti Altzugurenek eta Jasone Astibiak, turismo bulegoko langileek, eta Xabi Torresek, Turismo, merkataritza eta kontsumo zinegotziak, aurkeztu zuten abuztu erdialdean.

**Eskuorriaren eta gidaren egileak, edukia eta ezaugarriak**  
Eskuorria eta gida Jauregiarteko Pello Iriarte eta Arkaitz Muratorik egin dute. Iriartek

adierazi duenez, «edukia duten ibilbideak dira: kirola, sinismenak, gerra eta jolasak, eraikinak, elur-zuloak, azpilak, burdinolak, bordak, dorreak... interpretaturik biltzen dituzte (...), eta eskola zein bisitarien interesekoak izaten ahal dira». Muratorik ibilbideak «adin eta sasoi guztietarako diseinatuak» direla nabarmendu du: «1,5 km ditu laburrenak eta luzee- nak 13 km, desnibelak 65 eta 400 m artean kokatzen dira eta ibilbidearen arabera, 45 eta 150 minutuko iraupen bitartekoak daude, erritmo lasaian eginez gero».

## Magnak Erdizerako sustatu nahi duen proiektua «kaltegarria» dela salatu dute

### TTIPI-TTAPA

Magnesitas Navarras enpresak aire zabaleko magnesita harrobi bat sustatu nahi du Erdizen. Sustrai Eraikuntza Fundazioak proiektuak ingurumenean dituen ondorioak «txostenean zehaztutakoak baino larriagoak» direla salatu du:

«proiektuak ia 100 Ha hondatzen ditu eta ekosisteman duen eragina hagitik kaltegarria da». Horrekin batera, «ondorio sozio-ekonomikoak» ere bada- kartzala adierazi dute. Horrela bada, Erdiz Bizirik platafor- marekin bat egin eta «atzera egitea» eskatu dute.



JM ONDIKOL

## Lekarozko bestetan gozamina nagusi

Emakume nekazarien izenean, Mari Jose Telletxearen eskutik lehertu zen bortz eguneko beste hasiera eman zien txupinazoa. Bai beste hasiera eman zien Baztan zopetan baita hondarreko eguneko herri-bazkarian ere 120 lagun inguru bildu ziren.

**BRIKO BAZTAN, SL**

Bainuontziaren lekuan dutxaontzia jartzea

Pinturak  
Fatxadak  
Pladurra

Egur lakadura eta bernizadura  
Birgaitzeak eta obra berriak  
Lur-mugimenduak

T. 608 016 052  
San Andres, 66 · NARBARTE  
(Sarrera Legasatik)

**asegi asesorías**

Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

**www.zergalan.es | zergalan@asegi.es**  
**www.asegi.com**

Baztanberri plaza, 6  
31700 ELIZONDO  
T. 948 581 300 · F. 948 580 648

Eztegara pasealekua, 22-1  
31780 BERA  
T. 948 631 108

Eliza Kalea, 22  
31740 DONEZTEBE  
T. 948 450 395 · F. 948 451 304



Ortiziraletan 19:00etan botako dute txupinazoa. VALLEDEBAZTAN.COM

# Txokotoko bestak ortziraletik igandera ospatuko dituzte

Ortiziraletan Baztan zopak izanen dituzte eta larunbat eguerdian zikiri jatea egingen dute

## TTIPI-TTAPA

Ortizirale ilunabarretik igandera hainbat ekitaldi izanen dituzte Txokoton.

## IRAILAK 6, ORTZIRALEA

19:00etako txupinazoaren ondoren, konpartsekin itzulua egingen dute. 20:00etan Baztan zopak jateko bilduko dira. 21:00etan, mutil-dantzak eta mutxikoak dantzatuko dituzte. 23:30ean Azukre Beltxaranak taldearen emanaldia izanen da.

## IRAILAK 7, LARUNBATA

11:00etako konpartsen itzuliarekin hasiko dute eguna.

14:00etan zikiri jatea izanen dute (euria bada trinketea). Ondotik, txaranga-poteoan ibiliko dira. 16:30ean haurrendako puzgarriak eta 17:00etan ginkana izanen dituzte. 19:30etik 21:00etara eta 00:00etatik 03:00etara Ohar-kabek girotuko ditu bazterrak.

## IRAILAK 8, IGANDEA

11:00etatik 14:00etara puzgarriak paratuko dituzte igerilekuan. 12:30ean mokadutxoak eskainiko dituzte. Akitzeko, 16:00etan mus txapelketa jokatuko dute.



UTZITAKOA

## Eskualdeko hiru gazta sarituak

Lekarozko Kortariko Infernuko Gasnak irabazi zuen Nafarroako Artzain Gazta Txapelketa abuztuaren 25ean Uharte-Arakilen. Bigarren Urdazubiko Etxelekua izan eta hirugarren Elizondoko Etxetxipia. Lehendabiziko hamarrak Euskal Herriko Txapelketara sailkatuak izan dira.

## Udalak Agroekologiaren aldeko hirien sarean parte hartzeko erabakia hartu du

### TTIPI-TTAPA

Abuztu hondarrean, Baztango Udalak Agroekologiaren aldeko hirien sarean parte hartzeko erabakia hartu zuen.

Agroekologiaren aldeko hirien sarea 2018an sortutako elkarte da, elikadura iraunkorra eta osasuntsua eta elikadura sektorean kalitateko lanarekin konpromisoa duten toki entitateak antolatzen. Orain, elkarteak egituraketa bat ezarri nahi du tokian tokiko elikadura-sistemak erai ki nahi dituzten udalerrien artean.

Azken urteetan Baztango Udalak elikadura osasuntsuari buruz eta nekazaritza herrikoietara iraunkorrari buruz eman dituen pausoen segidan heldu da erabakia, orain artioakoak indartzeko eta bide berean ari direnekin elkarlanean sakontzeko.

Agroekologiaren aldeko hirien sarean parte hartzeko erabakiarekin, ekintza-planak abiarazteko; neurriak bete ote diren ikusteko tresna egokiak garatzeko; eta behar bezalako ideiak eraikitzen konpromisoa hartu du Udalak.

**MARMOLES SOULE**  
[www.marmollessoule.com](http://www.marmollessoule.com)  
 ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444 | marmollessoule@gmail.com

LAPIDAK  
 PANTEONAK  
 KANPOSANTUAK  
 HARRI LANAK  
 ESKULTURAK

**CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE**  
**abokatua**  
  
 Dibortzioak, herentziak,  
 alokairuak, alkoholemiak...  
 T. 948 581 468 | M. 630 354 818  
 Santiago, 59 2C ELIZONDO

  
**BEROPEL**  
 egurrezko pellets  
 ECHEVESTE HNOS. SL  
 T. 948 637 232 • 618 264 654  
 31770 LESAKA (Nafarroa) • Fax 948 637 250  
[info@echevestehermanos.com](mailto:info@echevestehermanos.com)  
[www.echevestehermanos.com](http://www.echevestehermanos.com)





# Dantzari Eguna irailaren 14an Iruritan

Eguerdian dantza-emanaldia izanen dute eta ondotik herri-bazkarian bilduko dira. Arratsaldean, berriz, laxoa finalak jokatuko dituzte



50 dantzari inguruk parte hartuko dute. ARITZ URRUTIA

## TTIPI-TTAPA

Urtero bezala, Iruritako dantzariak Dantzari Eguna antolatuko dute. Hilaren 14an, larunbatean, ospatuko dute aurten. XXVI. edizioa izanen da eta 50 dantzari inguruk eskainiko dute emanaldia. Eguerdian, 12:30 aldera, izanen da saioa eta herriko plaza izanen dute bilgune. Ondotik, bazkari herrikoa egingen dute. Arratsaldean, berriz, laxoa finalak jokatuko dituzte eta Jauregiartan musika izanen da.

## Ene Kantak taldea Elizondoko pilotalekuan irailaren 28an

### TTIPI-TTAPA

Elizondoko eskolako guraso elkarteak antolatuta, Ene Kantak taldearen 'Satorjator, lurraren bihotzera bidaia' emanaldia izanen dute irailaren 28an, hondarreko igandean, Elizondoko Baztan pilotalekuan. 17:00etan hasiko da emanaldia. Sarrerak dagoneko salgai daude eta nahi dutenek honako saltoki hauek eskura ditzakete: Elizondon, Fantxiken; Donezteben, Casa Ostizen; Lesakan, Telletxean; Beran, Agara prensan; edo Larraintzarren, La Posadan, eskura daitezke. Irailaren 20a arte salgai daude, zazpi eurotan eta hiru urtez azpikoek ez dute ordaindu beharrik izanen.

eta hau ere?

**bai**

Etxe
Automobil
Istripuak
Bizitza
Ehorzketak

**Aseguruen** inguruko premiak dituzunean ere, Rural Kutxa da erantzuna.

**CAJA RURAL**  
SEGUROS RGA  
Professional Cycling Team

**DENA SEGUROAGOA DA HURBIL BAZAUDE**

**RURAL KUTXA**  
seguros@rural-kutxa.com

Bizitza-asegurua RGA Rural Vida S.A. de Seguros y Reaseguros-ekin kontratatzen da: IFK A-78.229.663 eta DGSFPko gakoak C-595. Eke, Istripu, Ehorzketak eta Merkataritza-asegurua RGA Rural Vida S.A. de Seguros y Reaseguros-ekin kontratatzen da: IFK A-78.524.863 eta DGSFPko gakoak C-616. Automobil-asegurua honako hauekin kontratatzen da: Liberty Seguros compañía de Seguros y Reaseguros S.A. (IFK A-48037642 eta DGSFPko gakoak C-0467); Reale Seguros (IFK A78520293 eta DGSFPko gakoak C-0613); Mapfre España (IFK A-28141935 eta DGSFPko gakoak C-0058). Asegurua RGA Mediación, Operador de Banca Seguros Vinculado, S.A.ren bitartez merkaturatzen da (IFK: A79490264). Madril du helburua (C/Basauri, 14) eta DGSFPren bitartekariaren erregistroan inskribatuta dago OV-0006 gakoarekin, baita Madrilgo Merkataritza Erregistroan ere, 8205. liburukian, 89. folioan, 8. sekzioan, M10188 orrian. Rural Kutxa RGA Mediación OBSV S.A.aren banaketa sareko kide da. Hobbide honetan kontsultatu dezakazu zere aseguru etxerik dituen RGA Mediación-ek aseguru agentziako kontratuak: [www.segurosrga.es/Entidades\\_contrato\\_RGA\\_Mediacion.pdf](http://www.segurosrga.es/Entidades_contrato_RGA_Mediacion.pdf)





TTIPI-TTAPA

## Jende andana Kontrabandisten Egunean

Kontrabandisten Egunaren kariatara, egun osoan giro ederra izan zen agorrilaren 25ean. Azoka, pottoka gainean haurrentzako ibilbideak, trikitixa doinuak, herri-kirol saioa, joaldunak... denetarik antolatu zuen Sara Korrika elkarteak. Borobiltzeko haur eta helduen lasterketak egin ziren.



GANEX

## Pilotariak txapelkun

Frantziar estatuko txapelketan eta Euskal Herriko ligan bi txapel jantzi dituzte herriko pilotariak. Lehenean, esku huska, 2. mailan, Aritz Lekuonak eta Daniel Calvetek irabazi zuten. Bertzetik, Eneko Mounho, Mathieu Pouyet, Xabi Larretxea, Julen Mariluz eta Xabi Sansiñeak ere txapela jantzi dute.

## Kalakan taldeak hiru kontzertu eskainiko ditu Sarako lezeetan

Irailaren 20an, ortziralea, Kim Carnie eta Innes White artistak izanen ditu ondoan Kalakanek. Hilaren 21ean Beasaingo (Gipuzkoa) Loinatz abesbatzarekin ariko da eta irailaren 22an, Berzaitz anaiekin, Andoni Agirrerekin eta Dominique Le Guichaouarekin.



F. ANBUSTEGI

## Burdinaren Eguna arrakastatsua

Bertze urte batez, burdin minerala idi-gurdietan garraiatzen zeneko ibilbidea antzestu zuten agorrilaren 10ean egindako Burdinaren Egunean. Brun anaiei arotz-lanak ikusteko aukera ere izan zuten. Zikiro jatean 200 bat lagun bildu ziren, tartean Pobeñako 50, eta giro ederrean finitu zuten eguna.



UTZITAKOA

## Jubilatu elkartekoen besta

Harremana jubilatuen elkarteak ikasturte bukaerako besta egin zuen uztailaren 31n. Medikua, erizaina, eta bi herrietako udal ordezkariak gomitatu zituzten, eta Leorlas auzoko egoitza berria ezagutarazteko baliatu zuten. Halako zerbitzua halako egoitza egokian izatea eskertu nahi izan dute.

## OSPAKIZUNETARAKO SALA ALOKATZEN DUGU

Gure lokala nahi duzun ospakizuna nahi duzun moduan antolatzeko aloka dezakezu: ezkontzak, jaunartzeak, bataioak, familia bazkaria...

- 170 lagunentzako jangela
- Sukalde profesionala edo catering enprekin harremanetan jarriko dizugu
- Lo egiteko tokia 15 pertsonendako



T. (0034) 948 59 92 22 | (00 34) 690 755 875 | Urdazubi (lezeen ondoan)  
[www.ikaburua.com](http://www.ikaburua.com)



## Merezitako omenaldia jaso du Laxaro Dainziartek

32 urtez Herriko Etxean egindako lana eskertu nahi izan diote herritarrek

### MARIFA ETA KORO

Udalean 32 urtez aritu ondotik, eta horietako batzuk alkatere bezala, merezitako oroigarria jaso zuen Laxaro Dainziartek bestetan. Herritarrek txapela eta makila eskaini zizkioten, eta Maialen Lujanbio eta Uxue Alberdik bertso polit batzuk ere bota zizkioten.

Gainerakoan, bestak izigarri ongi joan ziren (zikiro jate eguneko euria kenduz). Aurten proba gisa, su-artifizialen tokia Azketara aldatu zuten, eta arrakasta izan zuen. Bertso-poteoan momentu hunkigarriak izan

ziren, Maialen eta Uxuek Frantxixkori eskaintako bertsoekin.

Bertzalde, zikiro jatearen antolamendua urtetik urtera hobetzen doa, eta horren adierazgarri dira aurten lan egin duten 93 lagunak; hortaz, Ake-larre Elkartek biziki eskertu nahi izan du lanean aritu diren guztien borondate ona.

Andre Mari Egunean egin zen Udako Pilota Txapelketaren finala. Uztailean zortzi bikote aritu ziren, eta azkenean Joseba eta Armitx suertatu ziren txapelak, Kepa eta Maix-terneren kontra aritu ondotik.



UTZITAKOA

## Frantxixko gogoan

Irailaren 22an urtea beteko da Frantxixko galdu genuela, eta Boteluzeko bere lagunak omenaldia eskaini nahi izan zioten abuztuaren 3an. Lapitxeko-bordako ardi-bordako pilota-soroan boteluzeko txapelketa bat egin zuten Zugarramurdi, Sara, Etxalar eta Urdazubiko taldeek eta ondotik, zikiro jatea.



Goian Laxaro Dainziart bertsolariekin eta behean pilotariak. MARIFA ETA KORO

**Giltzak eta aginteak**  
**AUTOA - MOTOA - KAMIOIA**  
Giltzak galdu badituzu, guk lagunduko dizugu



**www.ibargoyen.net** ☎ **943 616 587**  
**Molino Errepidea, 21 - 20305 - IRUN**





Finaleko jokalaria. UTZITAKOA

## Iratzoki eta Lopez kadete mailako Frantziako txapeldun

Mauleko pilota-plazan jokaturako finalean Hazparneren aurka irabazi dute

### PIERRE BASTRES

Urte guztiz bezala, Frantziako pilota txapelketako finalak agorriaren erditsuan jokatu dira. Aurten, bi senpertarrek Mauleko finalean hitzordua finkatua zuten, kadeteen mailan (16-17 urte), Hazparneko Iban Izoco eta Peio Hiribarneren aurka lehiatzeko.

Uztailean, bikote beraren kontra irabazi zuten Hazparneko kantxan, Euskal Herriko txapelgoaren karietarat eta orduan 30-25eko emaitzarekin nagusitu ziren. Balentria bera erdietsi dute Xiberoko hiri nagusian, 30-27 irabaziz.

Emaitzarekin kontent, Martin Sanchez SPUCeko lehen-

dakarietako batek bere zoriona agertu du: «sasoiaren has-tapenetik txapeldun aterako zirela nehork ez zuen usteko. Olivier Goienetxek behar zer hartu Lopezekin, baina esku-ko minagatik gelditu da. Iratzokik ordezkatu du, gazteago izanik ere». Gaineratu duenez, «bi gazte horiek pilota errotik maite dute, langileak dira. Ez dute entrenamendurik huts egin izan».

Bi mutilen burasoak ere go-goan izan ditu Sanchezek: «beren burasoei ene goresmenak nahi nizkieke eman, 16-17 urterekin, gazte bati paradak ez zaizkio falta barreiatzeko. Burasoen sustenguari esker, gure mutikoei behar bezala jokatu izan dute».

## Musika, antzerkia eta bertzelako ikusgarriak buruilean

### P. BASTRES

Ortzirale honetan, buruilak 6, Zaldubi ikastolak antolatuta, Huntza musika taldearen doinuez gozatzeko aukera izanen da Larreko kultur-gunean. 21:00etan hasiko da emanaldia.

Buruilaren 12an, berriz, Ravel jaialdiaren baitan, errepertorio klasikoko lanak entzuteko aukera izanen da Ravel Akademiako musikari gazteen eskutik. Philippe Manoury konpositore eta irakasleak parte hartuko du. Elizan izanen da emanaldia, 20:30ean.

Buruilaren 21ean, Jacques B. kantaria gomitatu dute Larreko kultur-gunera. Brel zenaren abesti klasikoak kantatuko ditu 21:00etan hasiko den kontzertuan. Aste berean, buruilaren 24an, Fabrice Luchini gogoan Olivier Sauton ariko da Larrekon, 19:30ean hasita. Eta azkenik, hilabetea borobiltzeko, Poronponpon dantza ikusgarria eskainiko dute hilaren 28an, 20:30ean Larrekon.

## Errugbi taldearen denboraldiko honetako egutegia jakinarazi dute

### PIERRE BASTRES SENPERE

Aurten ere, Federaleko 3. mailan ariko da SPUCeko errugbi taldea. Jokalari kopurua aski ttikia izanen zela ikusirik, buruzagiek maila apalagoan nahi zuten aritu, baina jokalariek mailari atxiki nahi izan diote.

Ohargarria da ikustea hamaika taldetarik zortzi Lapurdikoak eta Xiberokoak direla.

### Lehenbiziko itzulia

Etxeko taldeak irailaren 15ean jokatu du denboraldiko lehenbiziko partida, Rion Des Landes aurka, herrian. Gai-

nerako partidak honela izanen ditu: irailaren 22an Larresoro-Senpere eta 29an Senpere-Hazparne; urriaren 13an Barkoxe-Senpere, 20an Senpere-Urruña eta 27an Baiona ASB-Senpere; azaroaren 10ean Senpere-Mugerre, 17an Kanbo-Senpere eta 24an Senpere-Bardoz; abenduaren 8an Nabarenkoxe-Senpere eta 15ean Mugron-Senpere.

### Bigarren itzulia

Urtarrilaren 12an jokatu dute urte berriko lehenbiziko partida, Rios Des Landes.



Errugbi jokalaria. UTZITAKOA

Urtarrilaren 19an Senpere-Larresoro eta 26an Hazparne-Senpere; otsailaren 16an Senpere-Barkoxe eta 23an Urruna-Senpere; martxoaren 1ean Senpere-Baiona ASB,

15ean Mugerre-Senpere, 22an Senpere-Kanbo eta 29an Bardoz-Senpere. Apirilaren 19an Senpere-Nabarenkoxe eta 26an denboraldia finitzeko Senpere-Mugron jokatu dute.



# Ekitaldiz betetako bestak prest larunbatetik aitzinera

Bortz egunez musika eta kirol eskaintza zabala prestatu dute, baita bertzelako ekitaldiak ere

## TTIPI-TTAPA

Larunbatean hasita asteazkena bitarte hainbat ekitaldi prestatu ditu Besten Komiteak.

## BURUILAK 7, LARUNBATA

09:00etatik 19:00etara ball-trap egingen da Plaxidenbordan. 15:00etan kadete mailako errebot txapelketako finala jokatuko dute errebotean eta 17:00etan junior mailakoa. Ordu berean, Sarakorrika lasterketa hasiko da. 21:00etan Elektrotxufiak girotuko ditu karrikak eta 00:00etan Gozategik kontzertua eskainiko du. 01:30ean Ingo al deu taldeak hartuko du lekukoa. Gau osoan, Iparraldeko gaiteroak ibiliko dira.

## BURUILAK 8, IGANDEA

10:00etan meza izanen da eta Urruñarrak klikak parte hartuko du. Eta karriketan Mariñelak Tanborrada eta gaiteroak ibiliko dira. 10:30ean senior mailako errebote txapelketako finala jokatuko dute. 16:00etan Tio Teronen Semeak ikusgarriarekin gozatzeko aukera izanen da eta 16:30ean desfilea hasiko da plazan: gaiteroak, erraldoiak, joaldunak eta ahate jokia. Herri-kirol saioa ere izanen da. 19:00etan Sarako Kantariek alaituta, aperitifa izanen da eta 20:30ean dantzaldia Altzukutarrarekin. 22:30ean Tirri&Teryk paratuko du musika eta Los Incongnitos karriketan ibiliko da.

## BURUILAK 9, ASTELEHENA

Goizean, gaiteroak eta txistulariak karriketan ibiliko dira. 10:30ean errebotean, Kapito Harri eta Zaharer Segi lehiari ariko dira. 13:30ean zikiri jatea

eginen dute kiroldegian eta 16:30ean J.M. Jauregiaren landan artzain zakur lehiaketa. 17:00etan esku pilota partidak hasiko dira trinketeen (Monceducassou, Waltary-Guichanduten aurka eta Ospital-Bilbao, Larralde-Harismendiren aurka). 18:30ean Zazpiak Bat dantz taldeak saioa eta 21:00etan Aire Ahizpek kantaldia eskainiko dute. 22:00etan Kolokarekin dantzaldia izanen da eta gauez Saranga txaranga ibiliko da karrikaz karrika.

## BURUILAK 10, ASTEARTEA

Goizean, gaiteroak eta txistulariak karriketan ibiliko dira. 09:00etan paxaka partida jokatuko dute trinketeen eta 10:30ean luzean errebotean Spuc eta Nozbait taldeak nor baino nor ariko dira. 18:00etan gazteen joko garbi partida hasiko da eta 19:00etan helduena, Frantziako txapelketako finalaren errebantxa. 19:00etan mutxikoak izanen dira Kuxkuxtu txarangarekin eta 20:00etan gaztetxean besta antolatu dute. 20:30ean Zaldibi taldearekin aperitifa izanen da eta 22:00-



Aurtengo egitaraua ikusita, besta koloretsuak izateko aitzakiarik ez da izanen.

etan Jotatxo DJa hasiko da. Gauez Kuxkuxtuk girotuko du herria.

## BURUILAK 11, ASTEAZKENA

Goizean gaitero eta txistulariak karriketan ibiliko dira. 09:00etan Zabaldeian azienda lehiaketa egingen da. 10:00etan pala txapelketako errebantxa jokatuko dute trinketeen eta 11:00etan xoko torneoko partida Agirrek eta Karrikaburuk. 13:00etan puzgarriak izanen dira, baita

zaldian ibilaldiak ere. 18:00etan esku-huska partida jokatuko dute trinketeen eta plazan bertsolariak ariko dira: Amets Arzallus, Elixabet Etxandi eta Oier Urreizti. 19:00etan zozketa egingen dute eta 19:30ean Erramun Martikorena kantari ari dela, aperitifa egingen dute. 21:00etan Burrumba elektrotxaranga ibiliko da eta 23:00etan su-artifizialak hasiko dira. 23:15ean Joselu Anaiak taldeak dantzaldia eskainiko du.

SARA  
HERRIKO ETXEA



SARARI BALHOREAREN  
ETA LEYALTASUNAREN  
SARIA EMANA  
LUIX XIV-ER 1693-AN

Plazan  
elkar ikusiko dugulakoan  
Herriko Kontseiluak  
besta onak opatzen dauzkitzue



Laxoa txapelketako lau talde onenak Iruritan, antolatzaile eta laguntzaileekin, sariak banatu ondotik. JUAN MARI ONDIKOL

## LAXOA TXAPELKETA

| TXAPELDUNAK |           |
|-------------|-----------|
| 1980        | IRURITA   |
| 1981        | DONEZTEBE |
| 1982        | DONEZTEBE |
| 1983        | OIZ       |
| 1984        | OIZ       |
| 1985        | DONEZTEBE |
| 1986        | DONEZTEBE |
| 1987        | DONEZTEBE |
| 1988        | OIZ       |
| 1989        | DONEZTEBE |
| 1990        | OIZ       |
| 1991        | IRURITA   |
| 1992        | DONEZTEBE |
| 1993        | IRURITA   |
| 1994        | DONEZTEBE |
| 1995        | DONEZTEBE |
| 1996        | DONEZTEBE |
| 1997        | DONEZTEBE |
| 1998        | DONEZTEBE |
| 1999        | ARRAIOZ   |
| 2000        | DONEZTEBE |
| 2001        | ARRAIOZ   |
| 2002        | IRURITA   |
| 2003        | DONEZTEBE |
| 2004        | IRURITA   |
| 2005        | DONEZTEBE |
| 2006        | DONEZTEBE |
| 2007        | IRURITA   |
| 2008        | DONEZTEBE |
| 2009        | ARRAIOZ   |
| 2010        | IRURITA   |
| 2011        | IRURITA   |
| 2012        | IRURITA   |
| 2013        | DONEZTEBE |
| 2014        | DONEZTEBE |
| 2015        | IRURITA   |
| 2016        | IRURITA   |
| 2017        | IRURITA   |
| 2018        | DONEZTEBE |
| 2019        | IRURITA   |

## DONEZTEBEK 20 TXAPEL DITU, IRURITAK 13, OIZEK 4 ETA ARRAIOZEK 3

# Hamahirugarren txapela Iruritik 40. Laxoa txapelketan

Miguelenak 9-6 irabazi zion Olariri herriko bi talderen artean abuztuaren 2an Iruritan jokaturako finalean

### TTIPI-TTAPA IRURITA

Baztan-Errekako 40. Laxoa txapelketaren finala jokatu zuten abuztuaren 3an Iruritan eta herriko bi taldeen arteko lehian Irurita Migelena suertatu zen txapeldun, Irurita Olari taldeari 9-6 irabazita.

Duela bi urte bezala, Irurita bi talde izan ziren finalean (iaz Doneztebeko bi izan ziren) eta, orduan bezala, Irurita Migelena taldea nagusitu da aurtun ere. Txapelketako partida guztiak irabazi dituzte txapeldunek, bai ligaxkan, bai kanporaketetan. Talde txapeldunean, Xabier Barberena

sakalaria, Gorka Urtasun numeroa eta Jagoba Ramos eta Egoitz Prim laurdenak aritu ziren; Azpitxapeldun izan zen Irurita Olari taldearekin Jorge Azkarate sakalaria, Joseba Urtasun numeroa, eta Iñaki Etxandi eta Guillermo Etxenike laurdenak aritu ziren.

Partida gogorra izan zen. Lehenbiziko jokoa Olarikoek egin zuten eta hasiera berdindua izan zen, baina pixkanaka gailendu ziren Miguelena-koak (0-1, 3-1, 3-2, 5-2, 5-5, 7-5, 7-6 eta 9-6). Gisa honetara, Iruritik hamahirugarren txapela jantzi du laxoa txapel-

ketan. Doneztebek 20 ditu, Oizek 4 eta Arraiozek 3.

### Hirugarren postua Arraiozek

Hirugarren posturako nor-gehiagokan Arraioz Sagardia taldeak (Mikel Mindegia, Xabier Mihura, Miguel Maritoren eta Jon Gamio) 9-6 irabazi zion Doneztebe Apezteguia taldeari (Jon Apeztegia, Ramontxo Etxebeste, Joseba Juanena eta Ibai Santesteban) 9-6 irabazi zion, ia hiru orduko partidari.

Sari banaketa ekitaldian, Oihane Prim, Iruritako alkatea; Iñigo Iturralde, Baztango udaleko kirol zinegotzia; Nafarroako Kirol Institutuko Josu Janixes, Alberto Soldado, Nazioarteko Pilota Federazioko presidentea; Nafarroako Pilota Federazioko Jesus Mari Porron eta Jose Artetxe, Pilotarien Batzarrako presidentea izan ziren. Ondotik, afarian bildu ziren jokalaria, antolatzaile eta laguntzaileak Olari jatetxean.

## Gazteen txapelketako finala irailaren 14an jokatu dute Iruritan

### TTIPI-TTAPA

Helduena akitu bezain abudo, abuztuaren 10ean abiatu zen Laxoa Elkarrekin antolatutako gazteen laxoa txapelketa (aurten ez da gaztetxoena jokatu). Sei taldek eman dute izena aurtengoan, Doneztebeko hiruk, Iruritako bik eta

Oizko batek. Finala irailaren 14an jokatu dute Iruritako plazan.

Ligaxkako eta finalerdietako partidak 7 jokoetara jokatu dituzte eta finala 9 jokoetara. Ligaxkako sailkapenaren arabera, finalerdiak lehenbizikoak laugarrenaren kontra eta bi-

garrenak hirugarrenaren kontra jokatu dituzte: zuzenbidean, abuztuaren 31n jokatu dute joaneko eta irailaren 7an egingen dute itzulerakoa.

### Jokalaria

Honako taldeak ariko dira: **Doneztebe A** (Ekaitz San Martin, Ugaitz Aldabe, Mikel Juanotena eta Gari San Miguel); **Doneztebe B** (David Mitxeo, Erik Garcia, Eneko Maylin eta

Urko Oiarzabal); **Doneztebe C** (Oier Apezetxea, Markel Jabalera, Jokin Arozena eta Julen Pikabea); **Irurita A** (Xuban Iturregi, Egoi Iturregi, Imanol Zoko eta Ander Lakosta); **Irurita B** (Jon Sagaseta, Hodei Aleman, Aritz Bikondo eta Julen Urreaga) eta **Oiz** (Xuban Ilarregi, Mikel Mikelarena, Aimar Ariztegi eta Uxue Ilarregi, txapelketako neska bakarra).





Kirolariak, antolatzaileak eta laguntzaileak, abuztuaren 11n Sunbillan. UTZITAKOA

# Iker Vicente eta Ruben Saralegi nagusi Sunbillan

XVIII. Ramon Latasa sariketan Larretxeak eta Mindegia irabazi zuten beteranoetan eta Antton Espelosin omendu zuten

## TTIPI-TTAPA SUNBILLA

Iker Vicente eta Ruben Saralegi lehengusuak erraz nagusitu ziren abuztuaren 11n Sunbillan, Ramon Latasa zenaren omenez hemezortzigarren urtez antolatutako aizkora sariketan. Irabazleek 28 minutu eta 38 segundo behar izan zituzten hamar kanaer-

dikoak eta sei 60 ontzakoak mozteko.

Ugaitz Mugertak, Mugertza II.a, eta Julen Alberdi Txikia IV.ak 29 minutu eta 21 segundo behar izan zituzten eta bigarren gelditu ziren; hirugarren, Mikel Larrañaga eta Eneko Otaño gelditu ziren (30.41) laugarren Joseba Otae-

gi eta Aitzol Atutxa izan ziren (31.48) eta bosgarren Xabier Orbegoza Arria V.a eta Jon Rekondo leitzarra (32.04).

## Beteranoen arteko aizkora lehia ikusgarria

Proba nagusia izanagatik, ez zen hau Sunbillako pilotalekua lepo bete zutenek ikusi zuten apustu bakarra. Izan ere, 800 lagun baino gehiago sartu ziren frontoian, inoiz baino gehiago. Ikusminik handiena, beharbada, garai bateko aizkolari beteranoek eskaintako desafioa izan zen. Alde batetik, Ezkurrako Mikel Mindegia eta Arantzako Donato Larretxea aritu ziren eta bertzetik Angel Arrospide eta Angel Mari Peña-garikano. Lauren artean, Euskal Herriko hoge txapelen jabe. Nafarrak nagusitu ziren, 16 minutu eta 32 segundo behar izan baitzituzten lau kanaerdiko eta si 45 ontzako mozteko lana burutzeko eta gipuzkoarrek 17 minutu eta 9 segundo.

Txinga eramaten egindako marka ahaleginean ez zuen suerterik izan Ousmané Dramé bizkaitarrak. Ehuna kiloko txingekin lau plaza baino gehiago egin nahi zituen, Santxok utzitako marka alegia, eta

entrenamentuetan lortua zuela adierazi bazuen ere, Sunbillan ez zuen egiterik izan: 2 plaza, 9 metro eta 35 zentimetro egin zituen, baina zaleen txalo zaparrada handia jaso zuen.

## Harri-jasotzen Aimar Irigoien nagusi

Harri-jasotze lehian, hamarna jasoaldi eman behar zizkieten Aimar Irigoienek eta Mikel Lopetegik 125na kiloko zilindriko eta errektangularrari, 113 kiloko kubikoari eta 100 kiloko harri borobilari. Irigoienek 2 minutu eta 49 segundo behar izan zituen eta Mikel Lopetegik 9 segundo gehiago.

## Omenaldi hunkigarria Antton Espelosini

Saioaren akabailan une hunkigarria bizitu zen Sunbillako pilotalekuan. Aizkolariek omenaldia eskaini nahi izan zioten hemezortzi urtez Ramon Latasa saria antolatzen eta aizkora munduko bertze hainbat lan (liburu mardula tartean) egin dituen Antton Espelosini. Joseba Otaegik bertsoa kantatu zion eta oroigarriak eta esker onak jaso zituen aizkolarien eta aizkorazaleen esku-tik.



JUAN MARI ONDIKOL

## Maika Ariztegi berriz txapeldun

Euskal Herriko koxkor biltze txapelketa hamabortz aldiz irabazia du Maika Ariztegi iturendarrak. Nafarroakoan ere parte hartu duen txapelketa guztiak irabazi ditu, baina ez daki zuzen zenbat. Santiago egunez Elizondon bertze ale bat gehitu zuen, Nafarroako txapelari eutsiz.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Jon Jaunarenak azken partida Leiztan

Jon Jaunarena pilotari leitzarrek profesionaletako azken partida jokatu zuen abuztuaren 13an, jendez gainezka zegoen Leiztako Amazabal pilotalekuan. Aurrera pilota eskolakoek bidea egin zioten Jaunarenari eta gero, Zubietako joaldunek joareak astinduz egin zioten gurra.

# Larralde eta Saint Martin nagusitu dira Sarako lasterketan

Gizonezkoetan, Asier Apezetxea aranztarra hirugarren sailkatu da Kontrabandisten Lasterketan

## TTIPI-TTAPA SARA

Egun osoko ospakizunen artean, Sara Korrika elkarteak antolatuta, Kontrabandisten Lasterketaren 56. edizioa jokatu zen agorrilaren 25ean Saran. Beti bezala, 36 lasterkarik parte hartu zuten eta 35ek lortu zuten helmugara ailegatzea. Gizonezkoetan, guztietan bizkorrena Joseba Larralde beratarra izan zen. 40 minutu eta 35 segundoko denbora behar izan zuen 8,4ko ibilbidea osatzeko. Bere gibeletik, Baionako Guillaume Levoy sailkatu zen, iazko ira-

bazlea, 40 minutu eta 24 segundoko denbora eginez, eta Asier Apezetxea aranztarra helmugaratu zen hirugarren (42:30).

Emakumezkoetan, bi izan ziren parte hartu zutenak eta Amaia St Martin izan zen jendearen txalo artean Sarako plazako helmugara ailegatu zen lehenbiziko lasterkaria. 57 minutu eta 58 segundo behar izan zituen. Bigarren Baionako Amandine Levoy sailkatu zen. Honek ordu bat, bi minutu eta 35 segundo behar izan zituen.



Goian lehen sailkatuak eta behean lasterkari guztiak. LEGARRA / TTIPI-TTAPA

## Nafarroako I. Mailako Aizkora Txapelketako kanporaketa irailaren 22an

### TTIPI-TTAPA

Aizkora-zaleen hainbat hitzordu izan dira abuztuan eta bide beretik segituko du irailak ere. Alde batetik, Nafarroako I. Mailako Aizkora Txapelketako kanporaketa irailaren 22an jokatu dute Uhartan, 17:30ean hasita. 10 aizkolarik parte hartuko dute: Iker Vicente, **Jon Rekondo (Leitza)**, **Joxean Etxeberria (Ziga)**, Oier Kañamare, **Ruben Saralegi (Leitza)**, Juan Jose Lopez, **Eneko Saralegi (Leitza)**, Julen Kañamare, Iban Resano eta **Asier Pellejero Otermin (Areso)**. Lehenbiziko borts sailkatuek azaroan Donezteben eginen den finalerako txartela eskuratuko dute.

Bertzetik, Nafarroako II. Mailako kanporaketa abuztuaren 17an Arantzan jokatu zen. Hamar aizkolari aritu ziren eta guztietan bizkorrena **Jesus Etxeberria (Beintza Labaien)** izan zen. Bere ondotik, honela gelditu zen sailkapena, hurrenez hurren: **Patxi Mindegia (Zubieta)**, Xuban Kañamare, Goizeder Belza, **Mikel Indakotxea (Zubieta)**, Miguel Angel Etxeberria (Beintza La-

baien), Emilio Gartzia, **Jon Telletxea (Beintza-Labaien)**, **Jacinto Etxekonanea (Beintza Labaien)** eta Iker Gorriti. Lehenbiziko bortszklortu dute finalerako txartela. Gainerakoan, Donato Larretxeak eta Mieltxo Mindegia txapelketan ez aritzea erabaki zuten eta ondorioz maila galdu dute.

### Julen Olano mailaz igoko da

Egun berean jokatu zen Nafarroako III. Mailako Aizkora Txapelketako kanporaketa Burlatan. Borts aizkolari aritu ziren lanean eta Julen Olano leitzarria bigarren sailkatu zen. Gisa honetara, mailaz igotzea lortu du leitzarrik.

### Euskal Herriko lehia

Euskal Herriko III. Mailako Aizkora Txapelketak ere aitzinera segitzen du. Irailaren 15ean, hirugarren kanporaketa jokatu da Irurtzun eta 12 aizkolariren artean ariko dira **Patxi Mindegia (Zubieta)**, **Eneko Saralegi (Leitza)**, **Jon Telletxea (Beintza-Labaien)** eta **Jacinto Etxekonanea (Beintza-Labaien)**.



Nafarroako hirugarren (goian) eta bigarren (behean) mailetako lehen sailkatuak.



# Hiru erremontista gazte profesionalen artean

Aimar Saldias oiztarrak eta Aimar Jabalera eta Julen Larretxea doneztebar erremontistak profesionalekin jokatzeko ari dira

## TTIPI-TTAPA MALERREKA

Estreinaldi polita egin dute uda honetan Aimar Saldias oiztarrak eta Aimar Jabalera eta Julen Larretxea doneztebarrek erremontista profesionalekin jokatzeko. Hirurek oraindik 18 urte bete gabeak dituztela izan dute onenen artean aritzeko aukera.

Erremonte Fundazioak Donezteben duen erremonte eskolan ibiltzen dira hiru gazteak. Eta fin moldatzen direla ikusita, fundazio hori izan da Nafarroako promozio mailako txapelketan parte hartzeko aukera eman diena.

Oiztarrak uztailaren 28an Zubirin egin zuen estreinaldia eta geroztik hainbat partida jokatu ditu profesionalen artean. Fundaziotik «erremontista indartsua eta kolpe handia duen gaztea» dela nabar-

mentu dute. Gisa berean, aipatzekoa da, 2011n profesionaletan debutatu zuen Andoni Saldiasen anaia dela.

Abuztuaren 2an, berriz, Aimar Jabalera Hendaian jokatu zuen profesionalekin lehenbiziko partida. Lehian sartzea kosta bazitzaion ere, aurrelari bikaina izateko dohaiak dituela erakutsi zuen, klase handikoa baita eta fisikoki ikusgarria, 1,86 metroko altuerarekin.

Abuztuaren 4an, azkenik, Julen Larretxearen txanda izan zen, Izaban. Debuta garaipenarekin borobiltzeko aukera izan zuen, baina ez hori bakarrik, lau jokalarien artean onena izan zen Doneztebeko atzelaria. Bai Jabalera, baita Larretxeak ere txapelketako hurrengo partida irailaren 20an jokatu dute Donezteben.



Goitik hasita, Aimar Saldias, Aimar Jabalera eta Julen Larretxea. UTZITAKOAK



MAITANE MARITORENA

## Unai Iantzi Nafarroako txapeldun

Abuztuaren 15ean Nafarroako gizonezkoen koxkor biltze txapelketa izan zen Etxalarren eta irabazlea Unai Iantzi aniztarra izan zen. 06:24 behar izan zituen 50 koxkor biltzeko. Irailaren 28an Igantzin jokatu den Euskal Herriko koxkor biltze txapelketan izanen du hurrengo hitzordua.

## Leitzulian izen-emateko aukera zabalik dago irailaren 22ra arte

### TTIPI-TTAPA

Leitzako Aurrera Elkarteko Mendibil BTT taldekoek hiru-garrenez antolatu dute Leitzulia mendi bizikleta proba. Iraileko azkeneko larunbatean izanen da, irailak 28, eta parte-hartzaileek 42 kilometro eta 1.400 metroko desnibel metatua duen ibilbidea osatu beharko dute.

Ez da proba lehiakorra izanen eta Leitzako kaskoak zeharkatuz osatuko dute itzulia. Bidean, edariak eskainiko dizkiete parte-hartzaileei bi puntutan, Basakabin eta Ui-

tziko gainean eta helmugan ere ez dira jan-edanak faltako. Parte-hartzaileen erosotasunari begira, dutsak, bizikletak garbitzeko mangerak, apar-kalekuak... prestatuko dituzte.

*Kirolprobak.com* atariaren bitartez bakarrik eman daiteke izena eta irailaren 22ra arte dago horretarako aukera. Federatuek 15 euro eta federatuak ez direnek 18 euro ordaindu beharko dituzte. Antolatzaileek emakumeak animatu nahi dituzte, «orain arte izena eman duten guztiak gizonezkoak dira eta».

HITZALDIAK

LESAKA

Euskaraldia prestatzeko bilera

Harriandoan, irailaren 10ean, 19:00etan.

ELIZONDO

'Euskararen genesiaz' liburuauren aurkezpena

Arizkunenean, irailaren 27an, 19:00etan.

IKUSKIZUNAK

LESAKA

Euskara ikasteko dokumentala

Harriandoan, abuztuaren 13an, 19:00etan.

'Zoaz pake santuan'

Harriandoan, irailaren 14an, 20:00etan.

ELIZONDO

Ene Kantaken 'Satorjator, lurraren bihotzera bidaia' lana ikusgai

Baztan pilotalekuan, irailaren 28an, 17:00etan. Sarrerak: 7 euro.

Gure Zirkua

Irailaren 27an, 28an eta 29an eta urriaren 4an eta 5ean. Sarrerak salgai Fantxiken.

BERA

Euskara ikasteko dokumentala

Beralandetan, abuztuaren 12an, 19:00etan.

KONTZERTUAK

SENERE

Huntza taldea

Larreko kultur gunean, irailaren 6an, 21:00etan.



ARTXIBOKOA

LEITZA Talo Eguna

Tresna zaharren erakusketa, azoka eta talo eta irrintzi lehiaketak. Irailaren 22an.

Ravel Akademiako musikari gazteen emanaldia

Elizan, irailaren 12an, 20:30ean.

Jaques B. kantaria

Larreko kultur gunean, irailaren 21ean, 21:00etan,

SARA

Kalakan taldea

Lezeetan, irailaren 20an, 21ean eta 22an, 21:00etan.

KIROLA

ANIZ

Txirrindulari gazteen topaketa

Irailaren 8an, 17:00etan. Izen-ematea: egunean bertan, 16:00etan.

SUNBILLA

BTT itzulia

Irailaren 8an.

IRURITA

Gazteen laxoa finala

Irailaren 14an.

LESAKA

BTT itzulia

Irailaren 15ean.

LEITZA

Plazaola Natur Bideko maratoi erdia

Geltoki zaharretik abiatuta, irailaren 15ean, 09:00etan.

AZOKAK

ELIZONDO

Pirinioetako XXXII. behi-azienda lehiaketa

Irailaren 21ean eta 22an.

BERA

Baztan-Bidasoko ekoizleen merkatua

Rikardo Barojako arkupeetan, irailaren 14an, 10:00etatik 13:30era.

LEITZA

Stock azoka

Irailaren 14an 10:00etatik 19:00etara eta 15ean 10:00etatik 14:00etara.

OSPAKIZUNAK

ARANTZA

47ak herrian elkartasun besta

Irailaren 7an.

IGANTZI

Piedadeko besta

Irailaren 8an.

Berrizaungo eguna

Irailaren 14an.

ZUBIETA

Plazaren mendeurren festa

Aizkora apustua, argazki erakusketa, bazkaria... Irailaren 13an eta 14an.

IRURITA

Dantzari Eguna

Dantza emanaldia, bazkaria, laxoa partidak... Plazan, irailaren 14an.

SUNBILLA

Ulibeltzak elkartearen eguna

Irailaren 14an.

LESAKA

Organorako Musika Zikloa

Irailaren 20an eta 21ean.

LEITZA

Talo Eguna

Erakusketa, azoka eta irrintzi lehiaketa. Irailaren 22an.

BESTAK

LEGASA

Santa Leokadia

Irailaren 7an eta 8an.

ERATSUN

Herriko pestak

Irailaren 6tik 8a.

OIZ

Herriko bestak

Irailaren 6tik 8a.





UTZITAKOA

**ESKUALDEA BTT ibilaldiak**

*Sunbilla eta Lesakan irailaren 8an eta 15ean, 09:00etan abiatuta. Bina ibilbide aukeran.*

**ELIZONOD**

**Txokotoko bestak**

*Irailaren 6tik 8ra.*

**SARA**

**Herriko bestak**

*Buruilaren 7tik 11ra.*

**ELBETE**

**Herriko bestak**

*Irailaren 12tik 16ra.*

**BERA**

**Illekuetako bestak**

*Irailaren 14an eta 15ean.*

**ETXALAR**

**Urritzokietako bestak**

*Irailaren 14tik 16ra.*

**DONEZTEBE**

**Besta ttikiak**

*Irailaren 20an eta 21ean.*

**ERAKUSKETAK**

**ELIZONDO**

**Sumangali erakusketa**

*Arizkunenean, irailaren 13ra*

*arte, astelehenetik ortziratera, 17:00etatik 20:00etara.*

**IKASTAROAK**

**ELIZONDO**

**Atabala ikastaroa**

*Larunbatetan, 09:00etatik 10:00etara, urriaren 5ean hasita. Izen-ematea: Arizkunenean.*

**Gaita ikastaroa**

*Larunbatetan, 09:00etatik 10:30era, urriaren 5ean hasita. Izen-ematea: Arizkunenean kultur etxean.*

**Ahots teknika**

*Astelehenetan, 18:00etan, 19:00etan edo 20:00etan, urritik ekainera. Izen-ematea: 670 32 21 37.*

**Abesbatza ttikia**

*Asteazkenetan, ttikiak 18:00etan eta ertainak eta koxkorak 18:30etik 20:00etara. Izen-ematea: 620 22 84 55.*

**Nire aukera**

**«Urtez urte txopoa goratu dugun baztandar bakarrek gara»**

**PELLO ALBERRO EQUIOIZ ELBETEARRA**

Elbeten «sortu eta bizi» da Pello Alberro. Herrian bizi izateaz haraindi, herriarentzat lan egina ere bada: «orain dela sei urte, lau urtez alkaterik gabe egon ondotik, zazpi bat lagun elkartu eta taldea osatu genuen. Alkate izan nintzen, bi urtez». Orain alkateztatik aske da/bilen arren, taldean segitzen du: «denon artean egiten dugu lana baina ez dut herriaren hitza Udalera eta Udalarena herrira bideratzeko ardurarik». Bitartekaritza hori alde batera uztea «kristoren lasaitasuna» izan da berarendako. Dena dela, ez da damutu egindako lanaz, are gehiago, «aberasgarria» izan zaiola nabarmendu du: «bailarari,

herriari eta udal-orde-nantzei buruz aunitz ikasten da». Taldean sartu aitzinetik ere atxikimendua izan du herrian: «bestak antolatzen 15 bat urtez ibili izan naiz». Hasiera-ko urtetan «hiruzpalau lagunek» antolatzen bazuten ere, gerora taldea handitzea lortu zuten: «denen artean aiseago moldatzen ginen: ostatua paratu, zozketa-txartelak saldu



eta etxez etxe eskatuz antolatzen genuen ahal zena, eta gaur egun ere halaxe egiten da». 30 urte zituela utzi zuen taldea, «ondokoek hartu zuten erreleboa». Dena dela, bestarako lekukoa ez du guztiz utzia: «oraindik ere ateratzen naiz». Bezperako «txopo goratzea» da gehien gustatzen zaiona: «hori ez da galtzen ahal». Ez da harritzekoa horrek berarendako duen erranhia: «15 urte ingururekin hasi nintzen goratzen eta joan den urtean utzi nuen, 39rekin». Plaza bazterretik baina bistatik galdu gabe bizi du momentua: «laguntzen aritu ginen joan den urtean, eta heldu direnek martxa hartu arte hor egonen gara». Ardurarik gabe, baina laguntzeko prest ibiltzen da orain: «bazterretik esku bat behar delarik eman egiten dugu, zikiroan mahaiak paratzen edo zerbitzatzen...». Egun horrek hartu duen indarra nabarmendu du: «orain artean 100 lagun inguru biltzen ginen eta joan den urtean Elizondotik jendea etorri zen eta 160 bat bildu ginen, frontoia lepo bete zen». Batzuk indartu eta bertzeak galdu: «denborak berak aginduta, aldaketak gertatu dira eta aizkora apustuak orain ez dira egiten». Baina bada horrek baino pena handiagoa eragiten dion aldaketa bat: «herritarrek ez dute bestetan jai eskatzen».

# ZERBITZUAK

## MERKATU TTIKIA

### ETXEBIZITZAK

#### SALGAI

**BERA.** Bidasoa Karrikako 59. zenbakian pisu berriua salgai trasteleku eta ganbareekin. ☎639 12 50 46.


**LESACA.** Plazan dagoen apartamentua saldu edo errentan emateko. Lehendabiziko solairua. Mobleztatua. Igogailua, ganbara ttiki bat eta garajeko marrarekin. ☎675 71 43 60.

#### ERRENTAN EMATEKO

**LESACA.** Lagun batentzat logela bat errentan emateko, urte osorako. ☎678 85 50 56.


**ETXALAR.** Baserria errentan emateko, lurrarekin. ☎661 12 15 40.

**BERA.** Irailetik aitzinera pisua errentan emateko. 3 logela, bainugela, egongela eta sukaldea ditu. Mobleztatua. Berogailuarekin. ☎616 38 28 49.



**ALMUÑECAR.** Granadako kosta tropikalean, lagun bat edo birentzako apartamentua errentan emateko. Hondartzako lehen lerroan. Igerilekuarekin. Bista ederrak. Klimatizatua, ongi hornitua. Irailaren 1etik 15era. Urtarrilean, otsailean eta martxoan ere negu goxoa. ☎658 94 37 10.

**LESACA.** Bi lagunendako apartamentua errentan emateko. Bi logela. Irailetik ekainera, astelehenetik ortziratera. ☎948 63 78 62 / 678 85 50 56.



**ETXALAR.** Baserri zoragarria, xehetasun osoz hornitua, errentan emateko, erosteko aukerarekin. ☎667 21 92 53.

**IRUÑEA.** Arrotxapean, igogailuetatik hurbil, pisua errentan emateko. 3 logela, egongela, sukaldea eta komun. Mobleztatua, igogailu eta berogailuarekin. ☎666 38 80 63.

## IRAGARKIA JARTZEKO:



948 63 54 58



www.erran.eus



744 48 43 61



info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 €** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 €** iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan

Ttipi-Ttapak ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeken erantzukizunik

#### ERRENTAN HARTZEKO

**BERA.** Pertsona bat bizitzatzen. Ez du zertan mobleztatua egon behar. ☎687 60 96 84.

**IRUÑEA.** Eskualdeko bi lagun pisu bila. Unibertsitate ondoan baldin bada, hobe. ☎689 97 98 69.

#### GARAJEAK/LOKALAK

##### SALGAI

**BERA.** Herri erdi-erdian, lokala salgai. ☎629 00 80 81 / 667 03 90 27.

##### ERRENTAN EMATEKO

**LESACA.** Jatetxea errentan emateko. Lokal handia, dena hornitua eta martxan dagoena. ☎608 75 72 28.

**BERA.** Herri erdi-erdian, lokala errentan emateko. ☎629 00 80 81 / 667 03 90 27.

#### LURRAK/ORUBEAK

##### SALGAI

**OIZ.** 10.783,50 m<sup>2</sup>ko lur eremua salgai. Errepidearen ondoan dago. ☎628 31 60 81.

#### LANA

##### ESKAINITZAK

**DANTXARINEA.** Maspormenos-en lan egiteko jendea behar dute. Kirol artikulu eta arropa teknikoak saltzen dituzte: goi-mendikoak, lasterketakoak, kanpoko jarduerak... Bidali curriculum: [info@maspormenos.net](mailto:info@maspormenos.net)-era. Frantsesa jakitea kontuan hartuko dute. ☎687 73 92 40.

**IRUÑEA.** 2 neska behar dituzte lanerako, bat obradorean aritzeko eta bertzea dendan. ☎676 00 10 49.

**BERA.** Ostatu batean lanean aritzeko zerbitzaria eta sukalde laguntzaila behar dituzte. ☎617 72 34 75.

##### ESKARIAK

**ELIZONDO**n bizi den emakume bat lan bila. Adinekoak eta neska-mutilak zaintzeko prest. Azkeneko 12

urteetan neska-mutilen zainketako esperientzia handia duena, erreferentziekin. Etxeak garbitzen aritzeko ere prest. ☎666 37 53 72.

**Esperientziadun emakumea** lan bila. Etxeko lanetan, garbitasun lanetan edo zaintzan lan bila nabil. Orduka edo interna moduan ibiliko nintzateke. ☎631 80 86 33.


**BORTZIRIAK INGURUAN** esperientziadun emakumea lan bila. Garbitasunean, portalak garbitzen, ariko litzateke, orduka. Kotxe propioa. ☎660 58 97 03.

**Esperientziadun gizonezkoa** lan bila. Animaliak zaintzen, eraikuntzan edo zainketan aritzeko prest. Ordu-tegi malguta. ☎644 07 15 37.

Adinduk zaintzen eta sukaldaritzan esperientzia duen emakumea lan bila. ☎644 23 37 26.

#### ANIMALIAK

##### OPARITZEKO



**Katakumeak** opari. Ama sagu eta satagin ehiztari bikaina. ☎652 75 08 17.




**ITUREN.** Katakumeak oparitzeko. Ama ehiztari bikaina. ☎650 77 57 36.

**BERA.** 10 hilabeteko zakurra oparitzeko, ama golden eta aita setter arrazakoa. ☎680 63 44 34.



**Zakurkumeak** opari emateko. 3 hilabete dituzte. ☎600 78 54 94.

#### BERTZELAKOAK



**2 txakur galdu** dira Lesakan, abuztuaren 17an. Pikukoborda landetxearen inguruan. Handiak Pira izena du, 14 urte eta larruzko lepoko marroia dauka. Tikiak Pitxon izena du, biak txipa dute eta desagertu direnaren abisua emana da. ☎645 82 18 42

#### MOTORRAK

##### SALGAI

**Peugeot 207** SW autoa salgai. 90 zaldikoa, gasolioa. 162.000 km. 2009. urtekoa. ☎633 32 29 63.



**Peugeot 407** autoa salgai. 136 zaldi, sei abiadura, 2007koa eta 65.000 kilometro. Berri-berria bezala dago bai kanpotik baita barne-tik ere. ☎676 44 25 04.

**Citroen Xsara** salgai. 1.4 gasolina. 5 ate. 214.000 km. 2002 urtekoa. Orain dela gutti, distribuzio korrea eta uraren bomba aldatuak, baita olio filtroa ere. ☎636 84 75 10.



744 484 361

ttipi-ttapa



## ETXALARKO UDALA

### USATEGIEN ENKANTEA 2019

Udal honek enkante irekia egingen du aurtengo ehizaldirako larmen-diko barrutian dauden usategiak errentan jartzeko.

Enkantea Herriko Etxean egingen da 2019ko irailaren 7an, goizeko 12:00etan, ahozko eskaintzen bidez.

Baldintzak udal idazkaritzan daude interesaturik daudenen esku-ra, baita udalaren web orrian ere ([www.etxalar.eus](http://www.etxalar.eus)).

Etxalarren, 2019ko abuztuaren 10ean.  
Alkatea, Miguel Mari Irigoien Sanzberro.

## Sampi Aragón

Oporretara joateko alokatzen dira



DONEZTEBE | 948 450 354

## BERAKO UDALA

### ALKATEAREN EBAZPENAK – HIRIGINTZA -

Berako Udaleko Alkateak, 2019ko abuztuaren 20an emandako Ebazpenen bitartez, ondoko akordio hauek onetsi zituen:

- 10. poligonoko 121. partzelako (Eztegara Pasealekua 36 –A121 jarduketa asistematikoa-) xehetasun azterketa hasiera batez onestea eta espediente jendaurrean jartzea hoge laneguneko epean, dagokion iragarkia NAOi argitaratu ematen denetik hasita.

- 9. poligonoko 254. partzelaren Hiri-Jarduketarako Plan Berezia hasiera batez onestea eta espediente jendaurrean jartzea hilabete bateko epean, dagokion iragarkia NAOi argitaratu ematen denetik hasita.

Bi iragarkiak 2019/08/26an argitaratu dira NAOi (167. zbkia.)

Bera, 2019-08-26. ALKATEORDEA, ALKATE FUNTZIOETAN,  
M. Aranzazu Zubietza Ochoteco.

## BERAKO UDALA

### ALKATEAREN AKORDIOA – HIRIGINTZA -

Berako Udaleko Alkateak, 2019ko uztailaren 5 eta 19an emandako Ebazpenen bitartez, hurrenez hurren, ondoko akordioak onetsi zituen:

- 9. poligonoko 237. partzelaren (Urruña Plaza, 1) Xehetasun Azterlana hasiera batez onestea; espediente jendaurrean izan da hoge laneguneko epean, dagokion iragarkia N.A.O.n argitaratu ematen denetik.

- 3. poligonoko 299, 300, 301 eta 302 partzeletan (Plaza Zaharra, 1, 2, 3 eta 4) Hiri-Jarduketarako Plan Berezia hasiera batez onestea; espediente jendaurrean izan da hilabete batez, dagokion iragarkia N.A.O.n argitaratu ematen denetik.

Bi iragarkiak 2019.08.08an argitaratu dira N.A.O.ean (154. zbkia.)

Bera, 2019.08.09 / ALKATEA, Aitor Elexpuru Egaña

## IRAGARKIAK INTERNETEN

Sail honetako iragarkiak gure webgunean ere argitaratzen dira hilabete batez. Ikusi iragarki guztiak Interneten: <https://erran.eus/sailkatuak>

## HERIOTZAK

- **Begoña Lezamiz Etxebarria**,  
Bera-Erandiokoa, uztailaren 19an, 74 urte zituela.
- **Jesus Zenoz Etxegarai**,  
Urdazubikoa, uztailaren 20an, 66 urte zituela.
- **Alberto Azpiroz Aleman**,  
Zigakoa, uztailaren 23an, 90 urte zituela.
- **Jesus Susperregi Oronoz**,  
Lesakakoa, uztailaren 23an, 87 urte zituela.
- **Lidia Mandiola Ugartetxea**,  
Berakoa, uztailaren 23an.
- **Yvette Daubas**, Sarakoa, uztailaren 23an.
- **Mª Angeles Olaizola Espelosin**,  
Urdazubikoa, uztailaren 25ean, 74 urte zituela.
- **Isabel Danboriena Arretxea**,  
Iturengoa, uztailaren 26an, 76 urte zituela.
- **Dolores Martikorena Irigoien**,  
Elizondokoa, uztailaren 26an, 81 urte zituela.
- **Eugenio Urrutia Urrutia**,  
Erratzukoa, uztailaren 27an, 90 urte zituela.
- **Jose Fermin Azpiroz Zabaleta**,  
Leitzakoa, uztailaren 27an, 95 urte zituela.
- **Asuncion Retegi Telletxea**,  
Igantzikoa, uztailaren 28an, 91 urte zituela.
- **Mª Carmen Legazkue Zulaika**,  
Sunbillakoa, uztailaren 30ean, 92 urte zituela.
- **Miguel Mariezkurrena Saldias**,  
Leitzakoa, uztailaren 30ean, 81 urte zituela.
- **Julian Barbero Gonzalez**,  
Elizondokoa, uztailaren 31n, 75 urte zituela.
- **Juan Mari Zurbano Anzin**,  
Berakoa, uztailaren 31n, 65 urte zituela.
- **Esteban Bertiz Otxandorena**,  
Elizondokoa, uztailaren 31n.
- **Meltxor Sein Larretxea**,  
Igantzikoa, abuztuaren 5ean, 84 urte zituela.
- **Francisco Saldias Ezkurra**,  
Urrozkoa, abuztuaren 8an, 74 urte zituela.
- **Mª Josefa Goia Etxeberria**,  
Berakoa, abuztuaren 9an, 84 urte zituela.
- **Margarita Telletxea Telletxea**,  
Leitzakoa, abuztuaren 10ean, 85 urte zituela.
- **Martin Zozia Abanz**,  
Lesakakoa, abuztuaren 11n, 81 urte zituela.
- **Xixili Perurena Iribarren**,  
Goizuetakoa, abuztuaren 13an, 88 urte zituela.
- **Joakina Mutuberria Baleztena**,  
Beintza-Labaiengoa, abuztuaren 15ean, 89 urte zituela.
- **Mª Dolores Ballarena Elizondo**,  
Erratzukoa, abuztuaren 17an, 93 urte zituela.
- **Feliziana Arburua Arribillaga**,  
Etxalarkoa, abuztuaren 19an, 94 urte zituela.
- **Bautista Mariezkurrena Telletxea**,  
Ezkurakoa, abuztuaren 19an, 73 urte zituela.
- **Joakin Urtizberea Garmendia**,  
Lekarozkoa, abuztuaren 26an, 63 urte zituela.
- **Bittor Altuna Irastorza**,  
Berakoa, abuztuaren 27an, 71 urte zituela.
- **Anunciacion Irigoien Irigoien**,  
Igantzikoa, abuztuaren 28an, 91 urte zituela.

## URTEURRENA

### Juan MARIEZKURRENA GASTESI

Elgorriagan, 2018ko abuztuaren 31n.

I. urteurrena



Negar egin dezakezu joan delako  
edo irri egin bizi izan delako.  
Begiak itxi berriz ikusi ezin duzulako eta  
otoitz egin bueltatu dadin, edo utzi duen  
guztiz ohartu zaitezke begiak irekitzean.  
Zure bihotza triste eta hutsik egon  
daiteke joan delako,

edo amodioz beteta elkarrekin bizitako  
momentuak gogoratzean.  
Negar egin dezakezu, gogamenak itxi,  
hutsunea sentitu eta bizkarra eman,  
edo berari gustatuko litzaiokeena egin:  
irri egin, begiak ireki  
eta maitasunez aurrera jarraitu.

ZURE FAMILIA

## OROIGARRIA



### Jose GARCIA SACRISTAN

Eskerrik asko gure  
bidelagun izateagatik

URTXINTXA TXIRRINDULARI ELKARTEA

## OROIGARRIA



Beti izanen zara gure zeruko  
izarrik distiratsuen

### Unai MUTUBERRIA OTERÍN

Saldiasen, 2017ko irailaren 4an • II. urteurrena

**ESKELAK JARTZEKO edo OROIGARRIAK EGITEKO:**  
948 63 54 58 edo [info@titi.eu](mailto:info@titi.eu)

► **Eskelak, Esker Onak** eta **Urteurrenak**  
Titi-Ttapa aldizkarian + ERRAN.EUSen: 90 €  
Titi Txartela dutenek %10eko deskontua.

► **Oroigarriak** egiten ditugu, pertsonalizatuak, nahi den argazki eta  
testuekin prestatuak. Ikusi ereduak gure bulegoan,  
(Koskontako bidea, 7-1 · 31770 LESAKA).

## SORTZEAK

- **Alaia Madariaga Beizama**, Arantzakoa, ekainaren 21ean.
- **Mara Erasun Ernandorena**, Iturengoa, uztailaren 9an.
- **Ilie Mario Duicu**, Lesakakoa, abuztuaren 3an.
- **Siuka Bidegaray Iturre**, Erratzukoa, abuztuaren 2an.
- **Noa Santxez Migel**, Lesakakoa, abuztuaren 4an.
- **Mirari Muñoa Sanjuan**, Lesakakoa, abuztuaren 5ean.
- **Ander Mikelarena Taberna**, Arantzakoa, abuztuaren 17an.
- **Saioa Zubigarai Bertiz**, Narbartekoa, abuztuaren 21ean.

## EZKONTZAK

- **Philippe Bancon** eta **Enmanuelle Andros**, uztailaren 20an Saran.
- **Jose Jabier Elizegi Apezetxea** eta **Estibalitz Urreaga Laffage**, Goizuetakoa eta Erreterriakoa, abuztuaren 16an Goizuetan.

**BEILATOKIAK**  
ELIZONDON, BERAN ETA DONEZTEBEN  
*Zerbitzuak Baztan, Beran, Bortziriak eta Malerrekan*

**IZARRA**  
HEMEN, ZURE ONDOAN  
AGUL A TU LADO

Hurbiltasuna eta begirunea

**T. 948 05 90 90** [izarratanatorio.com](http://izarratanatorio.com)

**BB**  
BAZTAN  
BIDASOA  
Ehorzketak Zerbitzuak

BAZTAN: **ELIZONDON** Santiago kalea, 79  
BORTZIRIAK: **BERAN** San Jose Beilatokian  
MALERREKA: **DONEZTEBEN** Aparan ind. 1-3

web: [funerariabaztanbidasoa.com](http://funerariabaztanbidasoa.com)

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA  
ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

**24 ORDU** | **948 48 95 50**  
**365 EGUN** | [info@funerariabaztanbidasoa.com](mailto:info@funerariabaztanbidasoa.com)

*Betiko taldea zu laguntzeko*

**IRACHE**  
tanatorioak  
Betidanik

**BERA** (Kanttonberri, 14) | **DONEZTEBE** (Amezti, 13)  
**ELIZONDO** (Santiago, 52) | **LESAKA** (Zarandia, 18)

ETXEETAKO ZERBITZUA  
Trasladoak Iruñea, Donostia eta Iruñgo ospitaleetatik edozein herritara

**948 63 74 04 / 948 19 70 70**



## KONTATU KONTUAK



**Saharako haurrak gure artean.** Bertze urte batez, Saharako neska-mutikoak uda honetan eskualdean izan dira. Zehazki, aurten zazpi neska-mutil sahararrek pasa dute uda eskualdeko familietan. Uztailaren 9an etorri ziren eta ordutik, Elizondon egon dira hiru eta Arizkun, Doneztebe, Urroz eta Beran bana. Igande honetan, irailak 8, hartuko dute etxerako bidea. Argazkia uztailaren 20an Baztango Udalak harrera egin zienekoa da.



VALLEDEBAZTAN.COM

**Zigako orga irabazle Baztandarren Biltzarrean.** Eguraldia lagun, jende andana bildu zen uztailaren 21ean Elizondon Baztandarren Biltzarra ospatzeko. Aurten organ desfilea irekitzeko ohorea 20 urte bete dituen Bidelagun elkarteak izan zuen eta organ desfileko lehen saria jaso zuena, berriz, Zigakoa izan zen. Aipatzekoa da 1.500 lagun baino gehiago bildu zirela bazkarian.



ARANTXA GAMIO

**Giro ederra Zigako bestetan.** Abuztuaren 9tik 12ra, lau egunez, besta giroan murgildu ziren zigatarrak. Eguraldia lagun haur, gazte eta helduek ederki pasatu zuten.



**Mendiz mendi.** Bere garaian Xabino Korta, Loro Pikabea eta Xabier Zubietak Bortzirietan eginiko itzuliaren gisakoa osatu zuten lau beratarrek abuztuan. Lizuniagatik abiatuta, bertzeak bertze, Larun, Manttale, Endarlatsa, Aiako Harriak, Aritxulegi, Bianditz, Izu, Ekaitza, Mendieder, Igantziko Bentak, Azkua eta Etxalarren barna Lizuniagan bukatu zuten. Ibai Iturriak 80,52 km egin zituen; Irantzu Etxebeste, Andoni Lasaga eta Asier Irazokik 57,4 km.



AIMAR IPARRAGIRRE

**Etxalartarrak Euskadi Irratian.** Abuztuaren 21ean Donostiako Miramongo Euskadi Irratiaren estudioetan izan ziren Etxalarko Uxue Iturria, Martxel Larraza, Leire Iribarren eta Olaia Iturria. Eurek sortutako *Mundua aldatu* kanta arrakasta handia izaten ari da eta horren harira, Txiriboga saiora gonbidatu zituzten. Ez hori bakarrik. Zuzenean pieza jo zuten.



GAZTE BURRUNBA

**Bertizera bizikletan.** Doneztebeko Gazte Burrunbak antolatuta, argazkiko kuadrillak Bertizera bizikleta-irteera egin zuen abuztuaren 25ean. Han jolasean aritzeko aukera izan zuten.



# PLAZAN BAZAN



## 5 x 5 x 5

Erreparatu ongi,  
berdinak diruditen  
bi irudi havei.  
Ezkerretik eskuinera,  
bortz elementu  
agertu dira,  
eta bertze bortz  
desagertu.  
Bidenabar, bortz  
elementu aldatu dira.  
Aurki itzazu.


Egilea: Garbine Ubeda (Aiurri)

### AGERTU

- 1 .....
- 2 .....
- 3 .....
- 4 .....
- 5 .....

### DESAGERTU

- 1 .....
- 2 .....
- 3 .....
- 4 .....
- 5 .....



## INTERNETEN ERE BAI !

<http://plazanbazan.eus/>

Kontsultatu soluzioak  
[www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak](http://www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak)







## ALDATU

- 1 .....
- 2 .....
- 3 .....
- 4 .....
- 5 .....

## ITZALA

Zein da Maripurtzilen itzal zuzena?





# URTEBETETZEAK



**Libe Tapia**  
Mutuberriak 10 urte bete ditu abuztuaren 29an. Zorionak familia guztiaren partetik. 10 muxu potolo.



**Intza Sagardia Oiarzabal**  
lesakarrak 7 urte beteko ditu irailaren 18an. Aunitz urtez Kastillobaitako familiaren partetik.



**Aitor Oiarzabal Ubiria** lesakarrak irailaren 7an urteak beteko ditu. Aunitz urtez familia osoaren partetik.



Elizondoko **Unax Legarrea Arnalek** urtea bete du abuztuaren 22an. Aunitz urtez pollite! Muxu haundi bat familian partetik, bereziki Eiderren partetik.



Irailaren 5ean eta 10ean **Hegoi eta Ainere** Arantzako lehengusuek 2 eta 9 urte beteko dituzte. Zorionak eta muxu haundi bana familia guztiaren partetik!



Leitzako **June Urkiola Mariezkurrenak** 7 urte bete ditu abuztuaren 24an. Zorionak eta muxu haundi bat Lide, Izargi eta Haizederren partetik!



Doneztebeko **Oier Lopez Oteizak** 6 urte beteko ditu irailaren 4an. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partetik, bereziki Irai anaiaren partetik.



Anizko **Elorrik eta Harrietek** 9 eta 7 urte beteko dituzte irailaren 7 eta 13an. Urteak bezainbertze muxu, ongi pasatu eguna.

## Aunitz urtez!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu TTIPI-TTAPAREN bidez zoriontzeko:

**Internetez:** <http://erran.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion-agurra.

**Bulegoan edo postaz:** etor zaitez TTIPI-TTAPAREN bulegora edo bidal ezazu postaz helbide honetara: Koskontako bidea, 7-1, 31770 LESAKA.

**Prezioa:** argazki soila 5 € eta bikoitza 10 €.

**Ordaintzeko:** bulegoan dirutan, hegoaldetik postaz 0,60 €ko 10 edo 20 seilu; Iparraldetik postaz 5 edo 10 €ko txekia; [erran.eus](http://erran.eus) bitartez

## PARTIDA HASTERA DOA!

*Zure kirol taldearentzat behar duzun guzia!*



**KULTURKARI**  
Diseinu grafikoak | Publizitatea

Koskontako bidea, 7-1. · 31771 LESAKA  
(0034) 948 63 54 58  
[kulturkari@ttipi.eus](mailto:kulturkari@ttipi.eus)  
[www.kulturkari.com](http://www.kulturkari.com)

### Olanak | Panelak

Bezeroaren publizitatearekin egindakoak.  
PLASTIKOA | ALUMINIOA | PVC  
Hainbat neurri eta material aukeran, eskatu zurea



### Bazkide-txartelak

Izen-abizenekin pertsonalizatuak, kide zenbakiarekin...  
KARTOIA | PVC  
Hainbat neurri eta material aukeran, eskatu zurea



### Partiden kartelak

Kartel mutuak asteroko hitzorduen informazioa jartzeko, bezeroaren publizitatearekin.  
Tamaina: A3 | A2 | PERTSONALIZATUA  
Hainbat neurri eta material aukeran, eskatu zurea



### Egutegiak

Kideei oparitzeko egutegi pertsonalizatuak.

### Boletoa

Eguberrietako saskia zozketatzeko boletoak.

### Txartelak

Partiden informazioarekin egindako txartelak.

**Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe!**





**Zu hemen zaude,  
AEK ere bai**  
**Tú estás aquí,  
AEK también**

**EUSKARA-IKASTAROAK · CURSOS DE EUSKERA**

## **Baztango AEK Suinki euskaltegia**

**Maila guztiak – Ordutegi guztiak** · Todos los niveles y horarios

**Talde presentzialak – Autoikaskuntza**

**Grupos presenciales – Autoaprendizaje**

**EGA prestatzeko ikastaroa**

**Gurasoendako talde bereziak eskoletan**

**Grupos especiales para madres y padres en las escuelas**

**Baztan Berri 7 · 948 45 24 71 · [baztan@aek.eus](mailto:baztan@aek.eus)**

### **DIRULAGUNTZAK / BECAS**

**Udaleko dirulaguntzak jasotzeko aukera**

**Posibilidad de optar a ayudas del ayuntamiento**



# Ttapi Txartela

arekin  
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...  
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA  
MUSUTRUK  
-%80ko DESGRABAZIOA  
ERRENTA AITORPENEAN  
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:  
TTIPI-TTAPA  
Koskontako bidea, 7 LESAKA  
T 948 63 54 58 | F. 948 63 54 57  
info@ttipi.eus | erran.eus

[www.ttipitxartela.info](http://www.ttipitxartela.info)

# 740

aleko  
irabazleak >



## ZOZKETAK

**Baztan Abentura Park - 2 sarrera**  
Ibon Elizalde Telletxea | LEITZA  
**Zugarramurdiko lezeak - 2 sarrera**  
Olatz Oiarzabal Bertiz | OIARTZUN  
**Donostiako aquariuma - 2 sarrera**  
Axun Jaimerena Haran | ERRATZU  
**Eureka! Zientzia Museoa - 2 sarrera**  
Jeannie Telletxea Mayo | LESAKA  
**Buatxabal - Kamiseta bat**  
Jaime Sein Ordoki | DONEZTEBE  
**La Rhune - 2 sarrera**  
Santi Lizasoain Urrutia | ELIZONDO  
**Wow Park - 2 sarrera**  
Enara Iribarren Bertiz | BERA  
**Erein - Liburu bat**  
Marta Txibite de Miguel | ARESO  
**Erein - Liburu bat**  
Elisa Almandoz Irigoien | LEKAROS

2 sarrera



**IRRISARRI LAND**  
[www.irrisarriland.com](http://www.irrisarriland.com)

2 sarrera



**ASTIZKO LEZEAK**  
[www.mendukilo.com](http://www.mendukilo.com)

2 sarrera



**DONOSTIAKO AQUARIUMA**  
[www.aquariumss.com](http://www.aquariumss.com)

**EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA**  
[www.eurekamuseoa.es](http://www.eurekamuseoa.es)



2 sarrera helduentzat

**ONDDO TA PUNTO**  
[www.onddotapunto.com](http://www.onddotapunto.com)



Kamiseta bat

**LA RHUNE**  
[www.rhune.com/eu](http://www.rhune.com/eu)



2 sarrera - Heldu bat eta gazte bat

## ZOZKETA



**Wow Park**  
Votre Parc Aventure

2 sarrera  
**WOW PARK**  
<http://wowpark.fr>

## MUSIKA



Gaur ez da dena grisa  
Pantomima

**baga-biga**  
MUSIKA IDEIAK

[www.baga-biga.eus](http://www.baga-biga.eus)

## LA GUNTZAI LEAK



[www.txalaparta.eus](http://www.txalaparta.eus)



[www.navarraaventura.com](http://www.navarraaventura.com)